



Gureak ere bai, Zirauna Infisport taldean

Bailarako hiru ziklista
daude amateur
mailako taldean | 28

Amodiozko gutun onena, tolosar batena

65 gutun jaso ditu
Jardun elkarteak
22. aldian | 31

Goi mailako bertso saioa Bergaran
domekan, Libre-ren eskutik | 34



Kinttada Eguna egingo dute
bihar, zapatua, Eskoriatzan | 24



Bide Ertzean eta Balerdi Balerdi
(Pettirekin) Elgetako Espaloian | 32



BERGARA-BERGARA %65EAN

AHTaren lanak aurrera doa
gurean: Bergara-Antzuola
zatiaren %85 eginda dago | 2

Argazkian, Bergara-Arrasate errepidea zeharkatzen duen zubibide ikusgarria. | IMANOL BELOKI

Martxoaren 8 berezia Aretxabaletan

Fun Dantz! jaialdiak bat egin du 'Martxoak 8
egunero izan dadila' egitasmoarekin | 11

Maialen Axpe Malagara doa urrezko dominaren bila

Promes mailako
Espainiako
Txapelketara doa | 14

"600.000 eurotik gora inbertitu ditugu Baltistanen"



Inazio Arregi
Baltistan Fundazioko kidea | 8

Intxortako gerrateen errekreaziorako boluntario bila

Pazko Asteko
domekan egingo
dute, Intxortan | 27

Emakumeen Birako etapa bat Oñatin izango da

Ekainaren 13an
2. etapa hasi eta
amaituko da han | 16

SINADURAK

- Kapitain Planet ginenean | 6
IDOIA RAMIREZ DE OKARIZ
- 6 | Musikaren herria bagara...
JOKIN BEREZIARTUA
- Selekfitiboak al gara? | 27
MARIKARMEN LARRAÑAGA
- 40 | Atez ate, froga enpirikoa?
AINTZANE OIARBIDE

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 6 |
EL KARRIZKETA 8 | HERRIAK 11 | KIROLA 28 |
KULTURA 31 | ZURE IRAGARKIAK 35 |
TELEBISTA-IRRATIA 36 | EZKONTZAK 37 |
ESKELAK 37 | NON-ZER 38

Erreflexuek ez
dezatela
ezkutatu
nolakoa zaren.

mō betaurreko
graduatuak
islaren aurkako
beslayt kristalekin

67€

BEASAIN • DONOSTIA • EIBAR • ERRETERIA
IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

J. Carlos Guerra, 1 • Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan



Bergara-Bergara tramuan, garabi erraldoia zubibideko habe bateko lanak egiten. | IMANOL BELOKI



Angiozarren dagoen zubibidea. | MAIDER ONDARTZA



Habearen estruktura egiten. | I.B.



Bergara-Bergara zatian dagoen 900 metroko

Eusko Jaurlaritzaren esku dauden AHTaren lanak aurrera doaz

- ▶ Bergara-Bergara zatiaren %65 eginda dago; Bergara-Antzuolaren %85
- ▶ Gipuzkoako zatiko lotuneak lizitatu gabe edo gelditu daude oraindik

IRATI GOITIA | ARRASATE

Abiadura Handiko Trenaren obra zibila amaituta dago bailarako hainbat tokitan; adibidez, Eskoriatzan eta Aramaion. Adif-ek egin zituen lan horiek. Beste zati batzuk, berriz, eraikuntza lanean daude: Eusko Jaurlaritza egiten dabilen Bergara-Bergara eta Bergara-Antzuola. Debagoienean, zati batzuk Sustapen Ministerioak egin ditu –oro har, Arrasate, Aramaio eta Eskoriatzakoak– eta beste batzuk, Eusko Jaurlaritzak –Antzuola eta Bergara.

Eskoriatza, Aramaio eta Arrasateko zatietako obra zibila amaituta dago. Hala ere, Eskoriatzan, azken euriteek lur-jausiak eragin dituzte tunelen sarbideetan eta kalte horiek konpontzen ibili dira azken asteotan. Aramaion ere

hainbat lanetan ibili dira asteen. Zati horietan bigarren faseko lanak falta dira (trenbidea, elektrizitatea...); oraindik lizitatu gabe daude. Horren ostean, probaldirako tarte bat egon beharko da.

Krisiaren eragina

Krisiak izan du eragina AHTaren lanetan. Izan ere, Rajoyk Kongresuan adierazi zuen diru faltagatik ezin izango dituztela Madrilen esku dauden zatien lizitazioak

De Andres ahaldun nagusia Aramaion, AHTaren kalte-ordainen harira

Javier de Andres Arabako ahaldun nagusia Aramaion izan zen bere Gobernuko beste kide batzuekin 2013ko azaroaren 11n. Aramaioko Udaleko ordezkariekin bildu zen AHTaren lanen kalte-ordainen auzia dela-eta. Besteak beste, Arrasatetik Aramaiora doan errepide nagusia 13 hilabetez egon zen itxita. "Bion borondatea da kaltetuei laguntzea eta Adif-i kalteok erreklamatzeko. Arrazoi objektiboak daude kasu askotan", adierazi zuen De Andresek Aramaion izan zenean.

DATUA

1.100

MILIOI EURO

Hori da Eusko Jaurlaritza Gipuzkoako lurraldean egiten ari den lanen aurrekontua. Lakuak aurreratu du dirua, baina Madrilek kupo bidez itzuliko dio.

horrek AP-1 errepidea, GI-632 eta Deba ibaia bera gaindituko ditu amaitzean.

Beste hiru zubibide ere badaude tarte horretan: Oltzaileko (100 metro), Altzeta (140 metro) eta Lamiategi (425 metro). Hiru horiek amaituta daude. Hiru tunel ere izango dira zati horretan: Loidi, Aldai Azpikua eta Azkarruntz.

Zati hori da, hain zuzen, Angiozartik pasatzen dena. Zati bikoitza da (Angiozar-Arrasate eta Angiozar-Elorrio) eta AHTaren obra konplexuenetako bat, *Euskal Y*-aren muina delako.

Bergara-Antzuola

Bergarako eta Antzuolako herriak hartzen dituen zatian, 4.289 metro luze den zatia esleitu da. Zati horrek hartzen duen lurraldearen ezaugarri fisiografikoak oso malurtsuak dira. Ondorioz, ia zati guztia tunel barruan doa. Zehazki, Kortatxi Sakon izeneko tunelean, eta 3,9 kilometroko luzera du. Haren eraikuntza lanak azken fasean daudela jakinarazi dute Eusko Jaurlaritzatik, eta zehaztu zati osoaren %85 eginda dagoela. Zati hori aurreko zatiarekin (Bergara-Bergara) lotzen da, Deba ibaiaren gaineko zubibidearen bitartez. Hurrengo zatiarekin (Antzuola-Ezkio-Itsaso), Deskar-gako ibaiaren gaineko zubibidea

Euskalduna

Hileta Zerbitzuak



BEILATOKIA • ETENGABEKO ZERBITZUA • LORE KOROAK
ESKELAK • TRAMITE GUZTIEN BIDERATZEA



Amilaga 39, Bergara • Tel./Faxe: 943 76 12 99 • e-posta: euskalduna@harrespil.net



Zubibidea eraikitzen. | I.B.



Antzuolako zatian zubibidea eta tunelaren sarrera. | ANE ETXEBERRIA

zubibidea . | I.B.

ren aurreko trintxeraren bitartez elkartuko da.

Gipuzkoako egoera

Eusko Jaurlaritzak *Euskal Y*-aren Gipuzkoako adarrean egin behar dituen zati guztiak (17) martxan edo amaieratik daude. Adarreko zatiaren %77,6 eraikuntza prozesuan edo amaituta dago. Falta

dena da Donostiarako eta Irunerako behin betiko sarbideak eta Frantziarekin ezarriko den konexioa definitzea. Zehazki, Irunera egin beharreko trenbide sarbideak eta Astigarraga eta Frantziako muga artean ezarri beharreko lotura Informazio Azterlan fasean daude Sustapen Ministerioan.

Halaber, Gipuzkoako zatia Frantziatik lotura gabe gelditzeko arriskua dago, egungo presidente Hollandek erakutsitako jarrerarekin. Eta, bestetik, Gasteiz-Bilbo zatiak lizitatu gabe egonda, atzerapen handia izango duela aurreikusten da.

Bergarako lotunea egiteko lanak lizitzeko datarik ez

AHTaren eta Espainiaren arteko konexioa inoiz baino gehiago jarri zen zalantzan 2013ko abenduan. Izan ere, Espainiako Azpiegiturarako idazkari orokor Manuel Niñok Kongresuan adierazi zuen AHTa bukatu arte itxoingo duela Gobernuak "ohiko trenbidean behar diren ekintzak egiteko".

Bada, batzar instituzionala egin zuten 2013ko abenduaren 12an Eusko Jaurlaritzako eta Espainiako Gobernuaren ordezkariak, AHTaren exekuzioaren inguruan. Eusko Jaurlaritzako Garraio sailburuordeak eskatu zuen Espainiako Gobernuak "lehenbailehen" lizitatu zitzala Arabako eta Bizkaiko zatiak, batez ere, Gipuzkoako zatia

–Jaurlaritzaren ardurakoa– Bizkaiarekin lotzeko, Bergara-Elorrio konexioaren bidez.

2014ko urtarrilaren 22an, Rajoy Espainiako presidentek Kongresuan emandako azalpenetan hau esan zuen: "*Euskal Y*-a lehentasunezko proiektua da oraindik, baina diru faltagatik ezin izan dugu proiektua eman. Aukera txikiena izan bezain azkar emango dugu". EAJko diputatu Aitor Estebanek egindako galderari erantzun zion. Estebanek nabarmendu zuen Europarekin konexioa egiteko "lehentasunezkoa" dela Bergarako lotura eraikitzea, eta Gipuzkoa "bakartuta" geratzeko arriskuaz ohartarazi zion Rajoyri.

Eskerrik asko zuen laguntzarengatik!

Goienak behar zaituztela–eta kanpaina berezia egin genuen azaro–abenduan. Eskualdeko hainbat pertsona ezagun agertu ziren Goienako hedabideetan: Goienako hedabideen kontsumitzaileak, kirol eta kultura esparruetakoak, Goienako langileak... Euskarazko eta bailarako hedabideen premia eta hauek lagundu beharraz ohartaraziz eta Goiena Klubeko kide egitera animatuz.

Lerro hauek dira Goienako proiektua bultzatzeko prestutasuna agertu duzuen guztioi eskerrak emateko. Zuen ekarpena ezinbestekoa da guretzako eta bultzada ederra aurrera egiteko. Izan ere, kanpainak sekulako arrakasta izan du. Debagoiendarren konpromisoaren eta eskuzabaltasunaren berri bageneukan. Eta kanpaina honekin baieztatu egin dugu eskualde hau euskalduna eta euskaltzalea dela. Mila–mila esker guztioi!



Aitor Antxia iPada jasotzen Goiena Klubeko arduradunaren eskutik

ZOKKETAREN IRABAZLEA

Aitor Antxia aretxabaletarrari egokitu zaio Goiena Klubeko bazkide egiteagatik zozketatutako iPada.

GOIENAK BEHAR ZAITU!

GOIENA KLUBEKO BAZKIDE EGITEKO TELEFONOA: 943 25 05 05

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!



Juan Antonio, Iñaki, Izaskun, Martin, Jose Luis, Joakin eta Asier, Bazkideak Plataformako kideak. | UBANE MADERA

Bazkideen birkokapenak zalantzan jarri ditu Bazkideak Plataformak

Besteak beste, jasotako lan-eskaintzei ezezkoa esan ostean "mehatxuak" egon direla salatu dute

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

"Fagor Etxetresna Elektrikoen erorketaren aurrean, Mondragon Korporazioak bere eragin guztia aprobetxatu du propaganda mediatikoaren bitartez, dena konpontzen ari den sentsazioa eman nahian. Baina gauzak ez dira beraiek kontatzen duten bezalakoak. Gaur egun ez da birkokapenik existitzen; izan ere, birkokapenak gertatzen dira bazkideak sarbidea duenean kontsolidazio izaera daukan lanpostu estruktural batean, hau da, behin betiko izaera daukan lanpostu estruktural batean. Gaur egun, beste kooperatibetan okupatutako postuak behin-behinekoak dira, eta enpresak aktibatzen edo suntsitzen ditu lan-kargaren arabera. Lan hauek, batez ere, aldi baterako langileek egiten zituzten, kontratua amaitu baino lehen (...) Ustezko enplegu bulegoa ez da existitzen. Fagor Etxetresna Elektrikoetako giza balia-bideetako pertsonalak, bertaratu ezin daitekeen ezkutututako bulego batetik, bazkideei komunikatzen die zein entrebistatara joan behar duten, entrebista hauek bazkideei kolokatzera bermatzen ez direlarik (...) Kalterik handiena jasaten ari dira, besteak beste, osasun arazoak dituzten pertsonak. Euren egoerari buruzko informazioa falta zaie, eta kolektibo honetik konpromiso falta dagoela sentitzen dute".

Kanpoan geratzeko arriskua

Salaketa horiek egin ditu Bazkideak Plataformak oraingo astean, Goienari esandakoaren arabera, prentsa bidez egin ere, ez dutelako beste aukerarik aurkitu salaketoi bidea emateko Mondragon Taldean. Eta hasieran esandakoa euren salaketen abiapuntua dela azpimarratu dute; izan ere, mehatxuak ere salatu dituzte, besteak beste. "Adibide bat: WhatsApp bitartez jaso genuen mezua boluntario eske Eroskiko lanpostu batzuetarako. Izango dira inguruan eta zortzi ordurako. Esan zuten. Izena ematera joan ziren asko. Eta gero ikusi zuten errealitatea ez zela hori.

Astean 28 orduko jardunak eskaini zituzten, eta gehienak kanpoan: Garberan, Irunen, Abadiñon, Logroñon... Gainera, Eroskiko funtzionamenduaren arabera, laneko euren txandak ez dira finkoak. Hau da, daude momentuan momentuko arduradunaren beharren menpe. Eta egoera bereziak gertatu dira: badaude gida-baimena eta autoa ez izan arren ere, Gasteizera, Abadiñora, Donostiara... joateko eskatu dieten kasuak. Eta kontuan hartuta eskaintzen diren lanpostuen ordutegiak oso aldakorrek direla, badaude kasuak lau ordu

lanean egiteko egun osoa eman behar dutenak etxetik kanpo. Beste adibide bat: umeengatik lan-murrizketarekin zebiltzanez ez zaie murrizketa errespetatu. Bada, halakoan aurrean jendea ezezkoak ematen hasi denean, enplegurako laguntzan hiru hileko etena aplikatu diete, eta oso falta larria zabaldu zaie euren espedientean. Eta gainera, erantzun bera birritan emanez gero, kanpoan utziko zituztela abisatu diete. Eta horrez guztiaz gainera, ez dute baimenik ematen Talde-tik kanpo ordutako lan puntualak hartzeko".



Taldeko langile ohiak protestan atzo, eguena. | ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Ordaindu eta Grumal protesta egiten

"Borrokari jarraitzeko asmoa dugu, mobilizazio bitartez, zor zaigun ordainketa burutu arte. Jarrera kooperatibistak, ordea, negoziatzailea eta bidezko erabakietara bultzatzen gaitu. (...) Zuekin biltzea nahiko genuke, elkarrekin konponbide posible guztiak aztertzeko"; komunikatu bidez helarazi zion eskaera hori Ordaindu elkarteak Mondragon Taldeari atzo, eguena, Taldearen egoitzarainoko giza katearen bitartez. Grumaleko langileen ordezkariak ere bat egin zuten protestarekin. Ordaindu, berriz, otsailaren 13an, eguena, batzarra izango du Taldeko Batzorde Iraunkorarekin.

Mondragon Taldearen kudeatzaile berriak

Korporazioaren Batzorde Iraunkorrek datozen hilabeteetan Korporazioaren jardura ildoen definizioa gidatuko duen Batzorde Kudeatzailearen kideak izendatu ditu. Korporazioaren etorkizunari buruzko hausnarketa bultzatzeko ardura izango du eta, hasteko, abiapuntuko egoeraren lehendabiziko balorazio bat egingo du, oinarritzko jardura ildoak identifikatuko ditu eta datozen urteetan jarraitu beharreko bide orria marraztuko du. Batzordeko kideak dira Mondragoneko Finantza Arloko Txomin Garcia, Banaketa Arloko Agustin Markaide, eta Korporazioko Industria Arloko Xabier Mutuberría eta Javier Sotil lehendakariordeak.

"Egoerak kontuan hartu ez"

Enplegu Bulego Korporatiboarekin segituz, hark birkokapenak egiteko dituen irizpideak "batere garbi" ez daudela salatu du Bazkideak Plataformak. "Badaude bazkide batzuk 58-59 urterekin lanerako deitu dituztenak, nahiz eta aurre-erretiroa bertan izan, edo familia aldetik ekonomia arazo askorik ez izan; eta aldiz, badaude gazteak, langabezia daukenak, etxeko egoera oso kaskarrean... eta sekula ez diete deitu elkarriketarako. Edo badaude batzuk birkokatuta egonda ere, lanerako aukera mordoa eskaini dizkietela... Ez dituzte pertsonen egoerak kontuan hartu. Ez dakizkigu zeintzuk diren bulegoaren irizpideak".

Muturrerago dauden egoerak ere salatu dituzte, beste askoren artean: "Eskoriatzan badaude batzuk, adibidez, zerbitzu sozialak laguntzak kobratzen dabilzanak". Edo baita honako hau ere: "Eroskira boluntario moduan aurkeztu diren zailtasunak dituzten bazkideetako bati ere ez diote deitu lanerako. Kolektibo horretan dauden artean badabilza ahalegintzen aurre-erretiroa har dezaten 55 urtera helduz gero; eta gainontzekoei hori ere ez diete eskaini".

"Demokrazia parte-hartzailea"

Hori horrela, Bazkideak Plataformak kooperatibismoaren balio nagusia (pertsona kontuan hartzea kapitalaren aurretik) ez dela betetzen salatzen du. Ezta elkartasun printzipioa ere. "Mondragon Korporazioa, balio eta printzipio kooperatiboetan eredu izan beharko lukeena, langileen eta lanpostuen babesgabetasunean lider da. Erantzukizunik eza erakusten dute hartutako konpromisoekiko. Horren aurrean benetako demokrazia parte-hartzailea eskatzen dugu, pertsona bakoitzaren ekarpena balioan jar dadila".

Mondragon Korporazioan salaketa horien gainean galdetuta, oraingo ez dutela adierazpenik egin gura adierazi diote GOIENA paperari.

Gora egin du langabeziak urtarrean gurean

JON BEREZIBAR | DEBAGOIENA

Urte amaierako jaitsiera txikiaren ostean, eta Leintz Gatzagan izan ezik, Debagoieneko herri guztietan egin du gora langabe kopuruak urtarrean. Urtarrila, Debagoienan, guztira - Aramaio kenduta - 3.737 langaberekin amaitu zen, eta, %12,54ko tasarekin, Espainiako Enplegu Zerbitzu Publikoaren (SEPE) datuek diotenez. Bada, abendutik urtarrean bitartean langabezia %0,43 hazi da gure ibarrean. Arrasatek jarraitzen du izaten langabe tasa handiena duen herria.

HERRIZ HERRI

HERRIA	LANGABEAK	EHUNEKOA
Antzuola	106	%9,72
Aretxabaleta	368	%10,88
Arrasate	1.607	%15,51
Bergara	855	%12,19
Elgeta	41	%7,56
Eskoriatza	245	%13,06
Leintz Gatzaga	9	%6,67
Oñati	485	%8,90
GUZTIRA	3.737	%12,54

ITURRIA: ESPAINIako ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOA

Bazkide egin eta i-Pad bat irabazi, Goienari esker

ENKO AZKARATE | DEBAGOIENA

Azaro eta abenduko sustapen kanpaina berezian, Goiena Klubeko bazkide egin diren artean i-Pad bat zozkatu du Goienak eta Aitor Antxia aretxabaletarrari egokitu zaio. Astelehenean jaso zuen oparia Goiena Klubeko arduradun Marta Leturiaren aldetik. "Oso pozik nago, sinistu ezinda; aurrerantzean, ezingo dut esan inoiz ez zaidala ezer tokatu", adierazi du.

Gertuko informazioa eskaintzearen eta hura euskaraz izatearen kontsumitzen dituzte Goienako hedabideak antxiatarren etxean. Aurrerantzean, i-Pad dotorean ere irakurri eta ikusi ahal izango dituzte albisteak, baita bideoak edo GOIENA paperekoa ere.



Aitor Antxia, pozik. | EA



Ernaiko kideak kanpainaren kartelarekin. | ERNAI

Jon Ganboa, Iraitz Arizabaleta, Itsaso Ruiz de Larrinaga, Laket Zumalde eta Igor Tome | Debagoieneko Ernai

"Burujabetza eta Euskal Herri askea aldarrikatuko ditugu"

Otsailaren 15etik ekainera bitartean kanpaina abiarazi behar du Debagoieneko Ernai

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Hazi, hezi, izan izenburuarekin Euskal Herriaren independentziaren eta nazio eraikuntzaren aldeko kanpaina abiaraziko du Debagoieneko Ernai otsailaren 15ean. Ekimen berezia iragarri dute aurkezpenarako. Horren gainean berba egin dute Goienarekin Jon Ganboak (Aretxabaleta), Iraitz Arizabaletak (Bergara), Itsaso Ruiz de Larrinagak (Arrasate), Laket Zumaldek (Oñati) eta Igor Tomek (Oñati).

Zelako aurkezpena izango da? Ekimen xumea. Herrietatik oinez abiatuko gara eta Elorregin egingo dugu topo. Bertan, asanblada antzeko baten bidez, gure ekimenaren nondik norakoak azalduko ditugu eta jendearen ekarpenak, galderak, -eta jaso. Ondoren, luntxa egingo dugu; sorpresaren bat egon daiteke. Debagoieneko gazteak bide hau elkarrekin egiten hasteko lehen urratsa izango da.

Hazi, hezi, izan... zer aldarrikatu behar duzue izenburu horrekin? Ernairen ekimena den heinean, aldarrikapen nagusiak independentzia, sozialismoa eta feminismoa dira. Hala ere, kanpainaren helburua, batez ere, formazioa eta gazteriaren eragitea izango dira. Bizi dugun testuinguru honetan, Espainiako eta Frantziako estatuen krisi estrukturala alde batetik eta Europatik datorren olatu independentista bestetik, oso garrantzitsua iruditzen zaigu gazteok ere gure ekarpena egitea; are gehiago, Euskal Herriari bizi dugun momentu historiko honetan. Batez ere, burujabetzaren eta Euskal Herri askearen beharra aldarrikatuko dugu.

Orain hasi eta ekainera arteko kanpaina izango da. Baina zelan gauzatuko da?

Hainbat alor ukituko ditugu: ekonomia, identitatea, subira-

notasuna... eta horietako bakoitzean jasaten ditugun zapalkuntzen inguruan hausnartuko dugu. Horietan guztietan egungo egoerari aurre egin ahal izateko burujabetzak daukan garrantzia azpimarratuko dugu. Beraz, esparru bakoitza lantzeko denbora tarte bat hartuko dugu eta zenbait ekimen antolatuko ditugu. Amaieran, asmoa Kataluniara joatea da, Arran gazte antolakundearekin topaketa batzuk egitera. Hala ere, hori ez dago guztiz lotuta. Dena den, argi daukagu lanketa hau ezin dela hemendik eta ekainerako dinamika honetara mugatu, ondoren ere lanean jarraituko dugu. Gure nahia ahalik eta gazte gehien gerturatzea da, eta argi daukagu dinamika honetatik gauza positiboak atera daitezkeela, aurrera begira lanean jarraitu eta gazteon aktibazioa bultzatzeko.

Gure Esku Dago ekimenaren parte da Ernairen kanpaina?

Ez. Nahiz eta erabakitze esku-bidearen gaia ere ukituko dugun, Gure Esku Dago plataforma zabala da, eta kanpaina hau ezker abertzalearen baitan kokatzen da. Hala ere, gazte erakunde, herri mugimendu, erakunde, norbanako... guztiekin elkarlanean aritzeko prest gaudete, helburu berarekin lan egiten dugun bitartean.

Bestarik gura baduzue esan...

Jende guztia animatu nahi dugu antolatuko ditugun ekintzetan parte hartzera. Elorregin elkartuko gara.

"Gazteak bide hau elkarrekin egiten hasteko lehen urratsa izango da"

Programazio berria eta irudia bera ere berrituta Goiena telebistan

Programak gutxika aineratuko dituzte; estreinakoa: 'Debagoiena Zuzenean'

ENENKO AZKARATE | DEBAGOIENA

Goiena telebista berritzeko ahaletan dihardu Goienak eta programazio berria prestatu du. Saio berriak gutxika aurkezten joango dira datozen asteetan. Horrekin batera, Arrasateko egoitza berritzen ere badihardu Goienak. Asmoa da lantalde osoa egoitza bakarrean batzea, Arrasateko Otolara Lizentziaduna kalean, hain zuzen ere.

'Debagoiena Zuzenean'

Gabonak ezker lanean dihardute Arrasateko egoitzan. Telebistako platoan eta beheko solairuan aritu dira lanean, eta, behin horiek ahal izateko, telebistako programazio berriarekin ari dira. "Platoa ezin izan dugu erabili orain arte, hainbat lan egin dira-eta. Horregatik, programazioa ez da izan ohikoa. Hala ere, lanak amaituta, normaltasunera itzultzen bagoaz eta hurrengo asteotan joango gara saio, dekoratu eta itxura berritua erakusten", dio Oihane Agirrek, Goiena telebistako programazio arduradunak.

Berriak saioa, esaterako, aste honetan hasi dute aurkezle eta guzti. Eta datorren astean Debagoiena zuzenean (DZ) saio berria estreinatuko dute. "Horixe izango



Platoa gertu dago, datorren asterako, berrikuntza obren ostean. | JAGOBA DOMINGO

da sasoiko berritasun nagusia, beste saio berri batzuekin batera", dio Agirrek.

Debagoiena zuzenean saioan, gainera, edukiak aurkezteko modu berriak erabiliko dituzte. "Gertukoagoa izango da, protagonistak eta gertaerak bertatik bertara aurkeztuko dira eta tokitik bertatik emango dituzte albisteak berriemaileek. Eskualdeko lekuak erakustez gain, elkarte, talde eta herritarrei ahotsa emango diegu protagonista bihurtuz". Debagoieneko auzoak aurkeztu; asteburuan

gertatutako aisialdi eta kultura ekimenen kronika eta komentarioak egin; denda, enpresa eta jatetxeen berri eman; sare sozialetan gertatzen ari denari jarraitzea; moda, sukaldaritza...

Baina, horretaz gain, oraingo saio arrakastatsuei ere helduko zaie; *Harmailatik* eta *Pedalka* saioei, esaterako. Eta lehengoak berreskuratuko dira: *Harira*, Debagoieneko alkateekin egindakoa; eta *Tertulia* eztabaida saioa. Eta saio batzuk estreinatuko dituzte, martxoan barrena.

Lantalde osoa elkarrekin

Goiena Komunikazio Taldeak beste erroka bati helduko dio 2014an: lantalde osoa egoitza bakarrean batzea. 40 lagun pasako lantaldea da eta bi egoitzatan banatzen da: Arrasaten eta Aretxabaletan.

Orain, ostera, Arrasateko Otolara Lizentziaduna kaleko egoitzan batuko da talde osoa, hiru solairutan. Lehenengoan, harrera eta telebista; bigarrenan, administrazioa eta zerbitzu orokorrak; eta hirugarrenean, erredakzio eta komertzial lantaldea.



Otolara Lizentziaduna kaleko egoitza, obretan. | J.D.

Debagoieneko Pastoriek Taldearen eskutik argazki digital lehiaketa

U.M. | DEBAGOIENA

Debagoieneko zelaietan ardi latxa gaia abiapuntu, argazki digital lehiaketa antolatu du Debagoieneko Pastoriek Taldeak. Edozeinek parte har dezake eta lanak otsailaren 14ra arte aurkez daitezke. www.turismodebagoiena.com helbidean dagoen formularioa bete eta honako helbidera bidali

behar da: debagoienekopastoriek@gmail.com. Gero, herritarrek aukeratuko dituzte irabazleak. [facebook.com/Debagoiena](https://www.facebook.com/Debagoiena) orrian jarriko dute galeria otsailaren 17tik 20ra. Eta boto gehien jaso dituzten 20 argazkiak otsailaren 22an Bergaran egingo duten III. Artzain Egunean erakutsiko dituzte, han beste saridun bat

aukeratuko dute eta sari bana-keta egingo dute.

Debagoieneko Pastoriek Taldea ibarreko zortzi gazte ekoizle osatutakoa da: Etxezuri eta Mendibitzu (Aretxabaleta); Gomiztegi, Mikel, Maialen eta Nestor Aldai (Oñati) eta Pikuñeta (Antzuola). Estreinako urtea du 2014a, eta euren produktuak saldu eta ekimenen berri emateko sortutakoa da, inguruko zenbait erakunderekin elkarlanean (Debagoieneko Mankomunitatea, Mendi Nekazaritza...).

ZABALIK

IDOIA RAMIREZ DE OKARIZ KORTABARRIA

<http://goiena.net/iritzia/>

Kapitain Planet ginenean

A skotan aurkitu izan dut nire burua emakume izatearen zergatiari, depilazioari, hilerokoari, ligoteo sanoari, izateari, eragiteari, erasoei eta nahasten nauten beste hamaika konturi bueltak ematen: jaso dugun hezkuntza zein izan da? Zeintzuk izan ziren gure ereduak? Ze eragin izan zuen Dragoi Bolak gure bizitzan? Super Bateko balioak matxistak ahal ziren? Nor zen benetan TrikiFlash?

Zalantza hauetan murgilduta egunkaria ireki eta to matrailakoa: "23 urteko gizonetako bat atxilotu dute bere bikotekideari eraso egiteagatik"... "31 urteko gizonetako heriotza mehatxuak egin zizkiola salatu du emakumeak".

Belaunaldi bereko gazteak gara, urtebetetze egunetarako marrazkiak egiten genituenak, txikitan planeta salbatzeko Kapitain Planet izan nahi genuenak, binaka eskua emanda mendira joaten ginen berak. Hezkuntza antzekoa, bizitza antzekoa, zergatik horren paper ezberdinak?

Erantzun ezak beste gune batzuetara begiratzera behartzen nau, bularretako publikitate-ara, gabon osteko mehetzeko piluletara, aldizkarietako esaldi morbosotara, maionesa light eta autoen produzitzaileen esaldietara. Hauek argi daukate, emakumeok ez omen dakigu zer nahi dugun.

Horregatik, gizarteak jarrera paternalistak erabiliz jokatzeko du gurekin, zer jan behar dugun esanaz, horrela ez janzteko, haurdunaldia etetea ez dela emakumezko jarrera, auto familiarra dela guretzako egokiena, haserretuz gero ximurrak aterako zaizkigula... Honen ondoriozkoak dira gaztetxoenen arteko jarrera oldarkorak, arrakasta handiena duten telebista saioak, oztupo betetako bilerak, esaldiak (lasai, ze zaude hilerokoarekin?), hankaz gorako legeak...

Badakigu zeintzuk diren oztopoak eta hauek gainditzera goaz, neska txintxoak zerura joaten omen direlako, eta gainontzekoak nahi duten tokira.

"Gizarteak jarrera paternalistak erabiliz jokatzeko du gurekin"

USTEAK USTE

JOKIN BEREZIARTUA | jbereziartua@goiena.com

Musikaren herria bagara...

A maitu da Governorsen zuzenekoak. Gaztetxea di-da baten hustu da, 02:00etarako gutxi batzuk geratzen gara. Agertokia ordu eta erdi inguruz *governatu* dutenen zuzenekoetik oraindik lurreratu barik nagoela -ederra!-, Arrasaten sei urte daramatzen Zumarragako lagun bat etorri zait. Danba!, bota dit titularra: "Ordainezina da hemen duzuen kultura musikala". Rocka oinarri duten taldeez ari zait. Bai, harro egon gaitezkeela uste dut, baina ez gaitezen harrotu. Eskaintza handia eta ona izan arren, eskariak behera egin du nabarmen. Gero, "ordainezina" zen hura galtzen dugunean, kexatu egingo gara. Edo nostalgiko jarri. Musikaren herria bagara, zain ditzagun herriko musikariak.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE | <http://goiena.net/iritzia/>

HANDIK ETA HEMENDIK

Euskal ekonomiaz

Naroa Elortza Gorrotxategi
ilunkaran.com/

Euskal ekonomiaren inguruan bi hitzaldi izan ditugu azken asteen Arrasaten: Debagoienako Gure Esku Dago taldeek antolatutakoa lehena, eta Euskal Herriko Eskubide Sozialen Gutuna lantzen ari den taldearena bigarrena. Luxuzko gonbidatuak izan ditugu bietan ere: Adrian Zelaia, Joseba Barandiaran eta Oskar Arantzabal batetik, eta Nekane Jurado bestetik.

Biak euskal ekonomiari buruzkoak izanda ere, oso sentazio ezberdinarekin irten naiz bietatik.

Lehenengo hitzaldian iruditzen zait muinera ez zirela joan. Esan nahi dut, krisiaren aurrean tresna propioak izateak nola lagunduko zuen aipatu zuten, baita ekonomia txikien gaitasuna ere, besteak beste. Ez zuten erantzun nahi izan, berriz, euskal ekonomiaren etorkizunari buruz. Zer nolako ekonomia nahi dugun, zeintzuk diren eredu ekonomikoaren akatsak, erroak eta alternatibak.

Nekane Juradok, berriz, zezenari adarretatik heldu diola uste dut (barka espresioa

ezegokia edo dena delakoa bada), gai hori zentrala ez zen arren. Egungo eredu ekonomikoaren analisia egin ondoren alternatibez hitz egin digu, deskribapen hutsetatik harago. Ekonomia intsumiso bati buruz hitz egin digu, alternatibak eraikitzen joateari buruz. Independentziaren zain ezin garela gelditu, eta "ekonomia paraleloa" eraikitzen joan behar dugula. Eredu ekonomiko zapaltzaile eta desorekatuari aurre egingo diona.

Bat egiten dut Nekanerekin. Uste dut ezin dela, lehenengo hitzaldian hala esan arren, independentzia lortu arte itxaron, eta gero joan erabakitzen zer nolako Euskal Herria nahi dugun.

Irudikatzen eta lantzen joan behar dugu komunitarioa beharko lukeen eredu ekonomiko, demokrazia ekonomikoan oinarritutakoa eta jendartearen ongizatea ziurtatuko duena.

Bestela, Espainia-Frantziaren menpe egonda edo egon gabe, langileriaren eta gizartearen egoera tamalgarriarekin jarraituko dugu. BBVA edo Koop 57/Fiare, Iberdrola edo Goiener, eta beste hamaika hautu egiteko ordua da.

Suizidioa

Anjel Lertxundi Esnal
berria.info/blogak/lertxundi/

Buru-hil, Jainkoari eskua hartu, nor bere eskuz hil, lepo egin, burua xahutu (galdu, bota, zintzilikatu...), burua urari (amildegiari...) eman, Judasen legez hil... Suizidioa erdi gordetzeko formulak, izugarrikeria leuntzeko erak. Eta tabuaren espresio guztien artean, usena, esankorrena: buruaz beste egin. Alienazio guztizkoaren definizio zehatza. Buruaz. Beste. Buruak uko egin dio bere jabetzari.

Azken datuek diote suizidioa dela gurean heriotz-kausa lehena, motibo naturalen ondoren. Errepideko istripuen ginetik, lehen aldiz. Kausak? Camusentzat arazo filosofiko bakarra dago benetan serioa: suizidioa. Zer zentzu du mundualdiak? "Heldu da ordua" izan ziren Sándor Márairen azken hitzak; ondoren, tiro bat lokian. Ordua eta modua, berak erabakiak. Bera, bere buruaren jainko eta esku. "Aski da adore piska bat [...] Apaltasuna behar da, ez harrokeria", idatzi zuen Pavese, lotarako pastila mordo hartu aurretik. Isiltasuna.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA

Lehendakaria Aitor Izagire

Zuzendari nagusia Iban Arantzabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ubane Madera
Sailietako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Disenua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
Argazkilaria Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundifiano, Zortza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia.
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berebizbar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPER A
ARRASATE 20500:
Otalora Lizenziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Legu Gordailua: NA-3329/2000
ISSN: 2174-369X
Tirada: 20.100 ale
Diffusioa: 19.951 ale

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOEusko Jaurlaritza
diruz lagundutako
aldizkariaHEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

GUTUNAK

Birkokapenetan
ere dispertsioa**Josu Arana Garzia**(Bazkideak plataformaren izenean)
Arrasate

Orain arte bezala, Etxetresnetako bazkide kopuru handi batek mehatxuak jasaten ditugu. Azken egunotan, batez ere. Eroskik eskaini dizkigun lanpostuak ez dira gureak! Eta beste arrazoi batzuen artean, ezetz esateak hainbat ondorio ekarri ditu. Neurri gogorrek hartu dituzte, hala, sortu berri den epaiketa taldeko kideek. Hiru hilabeteko diru-zigorra eta falta oso larria espedienteetan. Aski da! Bazkideak plataforma, hitz eginez, akordioak lortzearen alde dago. Ez, ordea, "oficina de empleo" delakoa!

Hona hemen bizi dugun egoeraren olerki bat:

Handik hona, eta hemendik hara / Arrasateko ohitura zaharra! / Etxetresnetako lauhun eta hamazazpi / birkokatu ditu gaurkoak. / Sakabanaketa hasi delarik / besterik ezean. / Denok ditugu gogoan herriarentzat / hainbeste egin dutenak. / Eta baita ere, gehiago ezin

daitekeela / esaten dutenak. Gezurra! / Eroskiko lan duinak eskeiniko digu / Euskal Herriko euskalki desberdinak / ikasteko aukera.

Patinaje azoka?

Jasone Zabala

Bergara

Zapaturo Bergarako azokara jende asko joaten da bertaratzen diren baserriarrei eta bertan dauden postuetan erosketak egitera.

Adinez denetarikoa jendea joaten da, baina adineko jendea da goizean bertan gehien ibiltzen dena; eta hau zergatik diot? Ba eguraldi ona egiten duenean, ez dago arazorik zoruarekin, baina euria egiten duenean bereak eta bi ikusten dituzte bertan erosketak egiten dabilzanek lurrera ez jausteko; bertako lurra baldosazkoa da eta, gainera, lurrean kristala ere badago.

Gainera, Gabonetan, nire aita bertan lurrera jausi zen, eta zorionez ez zitzaion ezer gertatu. Beraz, Udalarari eskatu nahiko nioke herrian zehar irisgarritasun plana kontuan hartu eta aurrera eramaten

duen bezala, kontuan har dezatela arazo hau eta lehenbailehen eman diezaiola irtenbide bat, zerbait larriagoa gertatu aurretik.

Konstituzioa
hautsi, noiz?**Jon Otero Urizarren**

Arrasate

Euskadiko Ezkerrak PSErekin bat eginik PSOE osatzen dute. Baina PSEren eta EEren artean, besteak beste, badago ezberdintasun handi bat.

PSErentzat, Euskadi da Hirurak Bat, hor gara gehiengo abertzaleak, nazio kontzientzia.

Euskadiko Ezkerrarentzat, berriz, nazioa Euskal Herri osoa da. Nik, Sortu-kidea izan arren, onartzen dut Nafarroa eta Iparralde ez direla euskal nazio, Euskadi, zeren abertzaleak gutxiengo baikara.

Euskadiko Ezkerrak matematika xeble batzuk egiten ditu eta ikusten duenez bozkaz ez dutela Hego Euskal Herriko, Nafarroako, abertzaleek irabazten, bada men egin Konstituzioa eta Hego Euskal Herri osoa Espainiartzat

du. Onartezina.

Euskadi, Hirurak Bat, ez baita Espainia. EE apaltzen denean eta onartzen duenean Nafarroa ez dela Euskadi, beste matematika batzuk erabiliko ditu eta onartuko du Euskadi, Hirurak Bat, ez dela Espainia.

Euskadin hautsiko du EEk konstituzioa eta bananduko da PSEtik, eta PSOE izateari utzi. 2015eko Nafarroako hauteskundeetan ea zer dioten nafarrek, abertzaleen lurraldetasun oro sakratua birplanteatu dezagun serioski.

Zuentzako ipuin bat:

Bazen *America*. Gu enteratu ginen geroago. *Santa Maria, Pinta, Niña*, mundua borobila dela zioen Colonek. Eta ume hark ondo pintatu zuen Amerika berria. Jesusitok.

Beno, aurretik, ba omen zegoen han inka imperioa sortu zuen enperadore bat. Manko Capac I.a zuen izena. XI. mendean Manko Capac hau omen zen Eguzki Jainkoaren ondorengoa. Bada, kondairak dio Eguzkia etorri zela lurrera gizakume bihurturik, bi orduz; han Amerikan egunez zen, eta bi orduz ilundu zen. Hemen gaua zen, baina Afrikan ohartu egin ziren hango aztiak, eta esan zuten: "An gaua". Hots,

Amerikan. Beno, bi ordu izan zen gau Amerika osoan bakarrik; gero, Eguzki Jainkoak txotxokan egiten bukatu zuenean Alaska emakume lirainaz, bada, joan zen berriz Eguzkira. Eta etorri zen eguna. Alaskaren semea zen. Gero, capactarrek inka erreinua gobernatu zuten. Azken Capac inka erregea izan zen Manko Capac II.a. Eta espainolek hil zuten 1544an. Ortzi zen Jainkoa; orain dakigula mundua borobila dela, bada, Jainkoa da Unibertsoa.

Eskerrik asko!

Junkal Perez(Dorletako Ama Txirrindulari Eskolaren izenean)
Arrasate

Dorletako Ama Txirrindulari Eskolatik Kanpanzar Harrobiari eta Bañu Etxeri eskerrak eman nahi dizkiegu azken urteotan emandako laguntzagatik, ezinbestekoa izan da-eta guretzako.

Kanpanzar Harrobia-Bañu Etxe afizionatu maila ezingo zen aurrera atera zuen laguntzarik gabe. Eskerrik asko denagatik.

Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakararekin erantzun beharko dio.
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otarora Lizenziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

Zorionak denoi!

Hauek dira Goiena Klubeko urtarileko zozketetako irabazleak

Arrasateko Hiper Eroskik
emandako Lenovo tabletaEsther Merino Madariaga
(Arrasate)**ARRIKRUTZ**
SARRERAK

Arrikruzterako sarrerak
Iñaki Martínez Busteros
(Arrasate)
Maider Mora Garcia
(Arrasate)
Arrate Agirre Agirreurreta
(Arrasate)

**Argia**

Argiak emandako jokoak
Joxe Mentxaka
(Bergara)
Luken Martin Izurategi
(Aretxabaleta)

**Argia**

Argiak emandako liburuak
Mariasun Bengoa Azkargorta
(Arrasate)
Juan Ignacio Biain Urizarren
(Arrasate)
Josu Beitia Ugarte
(Arrasate)

SARIAK JASOTZEKO:

Arrikruzterako sarrerak Goiena klubeko txartela erakutsita, bina sarrera izango dituzue Arrikruzterako txarteldegian. Sarrerak 3 hilabeteko epe muga izango dute. ARRIKRUTZ KOBAK. Araotz Auzoa, OÑATI. 943 08 20 00. Orduetgia: Asteartetik Igandera 10:00 - 17:00

Harreman dendako otarrak. Otarra jasotzeko, jo zuzenean, bazkide txartelarekin, Harreman dendara. Arrasateko Eroski hipermerkatuarensareren duen dendara.

Beste sariak Saria jasotzeko zatuz GOIENAREN Aretxabaletako bulegora.

Saria jasotzeko, BAZKIDEAREN TXARTELA erakutsi edota BAZKIDE ZENBAKIA jakitera eman beharko da. GOIENA. Basabe poligonoa E-0-5 (Araba Ibilbidea) Aretxabaleta. 943 25 05 05

Orduetgia: Astelehenetik eguenera: 09:00 - 18:00. Egubakoitzetan: 08:00 - 14:00.



goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

Inazio Arregi | Baltistan Fundazioako patronatuko kidea

"Baltistanen 600.000 eurotik gora inbertitu ditugu eskoletan eta hainbat azpiegituratan"

- ▶ Hamahiru urte dira Felix Baltistan Fundazioa Debagoiengan sortu zela
- ▶ Kanpaina berezia egiten ari dira une honetan umeendako eskola bat eraikitzeko

ENEKO AZKARATE | ARETXABALETA

Felix Iñurrategi mendizale aretxabaletarra gogoan, Pakistango Baltistan eskualdean hainbat proiektu bultzatzeko sortu zen Baltistan Fundazioa 2001. urtean. Bost lagunen kontua izan zen. Mendiak, Iñurrategi anaien lagunak izateak eta elkartasunerako borondateak batzen zituzten. 13 urteren ostean, pozik daude orain arte egindakoarekin eta ilusio handiarekin heltzen diote esku artean daukaten azken proiektuari: Hushe Ibarreko eskoletako neska eta mutiko behartsuen matrikulak ordaintzeko kanpainari. Dagoeneko 8.000 euro batu dituzte Munawar eskolarako. Horren gainean dihardugu Inazio Arregirekin, Baltistan Fundazioako patronatuko kidearekin.

2001. urtean sortu zenuten Felix Iñurrategi Baltistan Fundazioa. Sorrerako helburuei eusten die?

Debagoieneko bospasei lagunen artean sortu genuen fundazioa eta, bai, esango nuke baietz, helburuei eusten diegula. Sorreran, Hushe ibarreko, eta, zehazki, Machuloko, garapena bultzatzea zen. Bereziki, mendi eskola bat sortzea, zamaketarien artean prestakuntza eskaintzeko. Bestetik, baita hezkuntzan edo nekazaritzan laguntzea edo hainbat azpiegitura lan oinarritzko egiten laguntzea... Hau da, helburu orokor batzuei eutsiz, proiektu konkretuak bultzatzea.

Zenbat mendizale prestatu zenituzten?

60 bat lagun-edo bai. Eta, ondoren, prestatu genituen haiek izan ziren prestatzaileak. Helburua da autonomo izan daitezela.

Espero zenuten honaino ailegatzeara?

Hasieran ez genekien noraino helduko ginen. Azpimarratuko nuke Hushe ibar osora zabaldu dugula laguntza-jarduna, Machulon hasi ginen arren. Horrek erakusten du bagoazela apurka-apurka helburuak lortzen eta fundazioaren eragina geroago eta zabalagoa dela.

Zergatik Machulo?

Hangoekin harreman zuzena geneukalako, batez ere, eta inguruko beste toki batzuetan bazeudelako beste gobernu kanpoko erakunde batzuk, nahiz eta gaur egun Baltistan Fundazioa izan erreferente. Ibar hartan bizimodu ez da samurra: punturik baxuena 2.000 metrotik gora dago eta garaia, 3.400era.

Zelakoa da inguru hura?

Paskistanen eta Indiaren arteko mugan dago, lehengo Katxemiran,



Inazio Arregi, atzean Baltistan eskualdeko emakume talde baten irudia duela. | ENEKO AZKARATE

militarren gunetik gertu. Gatazka tokia da. Hushen bertan ez da horrenbestekorik igartzen, halere. Indiaren eta Pakistanen arteko gerra intentsitate txikikoa da, gainera. Egoera honek guztiak ez du laguntzen.

Zenbat lagun bizi da?

Baltistanek orain dela bost urtera arte ez du administratziarik eduki, baina une honetan probintzia handi baten barruan dago: Gilgit-Baltistan. Orain hasi da administrazioa zerbait inbertitzen. 300.000 lagun inguru dira, baina ibarra oso txikia da. Haiek ere ez dakite zenbat diren ibarrean, eroldarik ere ez dutelako. 11.000-14.000 inguru izango dira. Bizitza esperantza 60 bat urtekoa da; hortaz, populazioaren zatirik handiena gazte samarra da.

Herriak ze tamainatakoak dira?

"Hushe ibarreko, Machulo herriko garapena bultzatzea da helburua"

"Prestakuntza eman diegu Baltistango 60 mendizale eta zamaketariri"

Erroldarik ez dago eta zaila da jakitea, baina Machuluk 3.000 izan ditzake. Hura da eskualdeko herririk handiena.

Proiektuekin jakintza erakutsi eta autonomia bultzatu nahi duzuela diozu. Zelan?

Gauza praktikoen bidez. Esaterako, albertxikoak dituzte han, baina arbolatik jausitakoak ez dituzte momentuan batzen. Lur hareatsua denez, beltz geratzen zitzaizkien albertxikoak eta erabiltzen zituzten olio eta xaboia egiteko bakarrik. Guk erakutsi genien albertxikoak batzen, sikatzen, eta abar. Eta orain, produktioa biderkatu egin dute. Hango terrazak albertxiko horiz beteta daude orain.

Zenbateraino baloratzen dute Baltistan Fundazioak eskaintzen dien laguntza?

Asko. Oso esker onekoak dira eta aitortzen dute bi sasoi daukela: Baltistan Fundazioak han lan egin aurrekoa eta egiten hasi zenetik ondorengo. Aldaketa handia ikusi dute. Duela 11 urte ez zegoen ezer. Jateko, gariz egindako talo moduko bat, besterik ez. Guk erakutsi diegu berotegiak edo mintegiak egiten eta orain beste barazki batzuk ere jaten dituzte. Elikadura ezberdina daukate orain. Eta jabetu dira ur garbia etxera eroatea zein garrantzitsua den. Osasun arloan ere aurreratu da. Esaterako, lehen baino berme handiagoarekin erditzeko aukera daukate orain emakumeek. Edo garbitasuna

zein garrantzitsua den ere azaldu zaie. Bestetik, propio emakumeendako guneak sortu dira.

Hango erakundeek zelan hartu zaituztete?

Ondo. Agintari erlijiosoaren, mula baten, bedeinkapena daukagu, eta baita hango tokiko gobernuarena ere.

2001etik hona, dirutan, zenbat inbertitu da?

13 urtean 600.000 eurotik gora bai. Hemengo erakunde publikoen eta norbanakoen ekarpenei esker. Gehienbat, udalek lagundu dute; batez ere, Debagoienekoek.

Zenbat bazkide ditu fundazioak?

444. Diru ekarpen bat egiten dute urtean, baina, gero, horretaz gain, proiektu konkretuetarako, orain esku artean daukagun Munawar-eko eskolarako, esaterako, ekarpen bereziak egiten dituzte. Edozeinek egin ahal du eta horretara

"3.000 laguneko herri baten, umeen %80 eskolaratzen dira gaur egun"

"Diru ekarpenak egiteko aukera eskaini diegu herritarrei"

rako hiru kontu korrante zenbaki ireki ditugu, gure webgunean ikusi daitezkeenak. Jendeak bonuak eros ditzake 50 euroren truke, nahi dituen beste, egin nahi duen ekarpenaren arabera.

Bazkide gehienak mendizaleak?

Bai, mendizaleak dira edo mendizaleekin harremanak dituztenak. Aitor Zabaleta, Jose Carlos Tamayo, Juanjo San Sebastian, Jon Lazkano, Alex Txikon, Gerlinde Kaltenbrunner, Alberto Iñurrategi... Batzuk bazkideak dira eta besteak fundazioarekin kolaboratu dute sarri.

Esku artean daukazuen proiektu garrantzitsuenak zeintzuk dira?

Batetik, Munawarrek eskola eta emakumeendako zentroak: *Vocational center for women*. Herri bakoitzean bat dago eta zortzi-edo izango dira. Eskola modukoak dira, emakumeak elkartzeko, arazoak konpartitzeko, baina baita ikasteko guneak, josten edo marmeladak egiten ikasteko... Eta, bestetik, umeendako hezkuntza zentroak. Lehen, mutilen artean,

eskolara zihoazenen batez bestekoa %60koa-edo zen; nesketan, %25ekoa. Gaur egunean, Matxulun, %80. Eskolak bazeuden, baina oso egoera kaskarrean eta absentismo handia zegoen irakasleen aldetik. Orain, beka programa bat bultzatu dugu, eskualdeko azkarrenei kanpoan ikasketak ordaintzeko. 54 bat lagun joan dira beka horiekin. Baldintza bat jarri diegu: ikasketa unibertsitarioak edo maila apalagoak egin arren, baktutakoan, urtebetez beren eskualdean erakustea jakintza hori, dohainik. Modu horretan hainbat irakasle lortu ditugu.

Zenbat neska-mutiko ari dira ikasten?

350-400 bat. Neskak eskolaratu daitezten, urteko kuotarik ez diegu kobratzen. Munawar eskolako 2014ko nesken kuota ordaintzeki gertu gaude dagoeneko. Egoera berezian dauden mutikoenak ere geuk ordaintzen ditugu. Une honetan, neskak gehiago dira mutilak baino. 13-14 urte arteko neska-mutikoei bideratzen dizkiegu laguntzak.

Gurasoek zelan hartzen dute fundazioaren laguntza?

Ulertu dute eta baloratzen dute. Ikusi dituzte aurrerapenak. Neska batzuk, gainera, negozio txikiak jartzen ere hasi dira.

Elkarrizketa osoa: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



Zatoz eta probatu!

Herritarren osasuna zaintzera bideratutako punta-puntako kiroldegi berritzailea

- Tarifa murriztua merke merke
- Bailarako ekintzarik merkeenak
- Bizkarreko mina kentzeko David Spine Concept aretoa
- Fitness gela ikusgarria
- Areto bizikleta birtuala
- Kirol taldeak (*nordic walking, running,...*)
- M - Power IbarOsasun *online* esperientzia
- Eta gehiago!



2013ko datuak

- 2.144 abonatu 2013an, biztanlegoaren %31a
- 389 pertsona berri abonatu dira; hau da, %22ko hazkuntza
- Abonatuaren %25ek zuzendutako jardueretan hartu dute parte
- 25 kirol jarduera; 37 talde jardueretan parte hartzen
- Abonatuaren arteko gogobetetasun inkesten balorazio orokorra 8,8 izan da.
- Hoberen baloratutako gaia, kiroldegiko langileen jarrera: 9

Abonatuak
2.144 pertsona



Eskerrik asko zuen konfidantzagatik!

Ibarra kiroldegia | Markole auzoa z/g | 20550 Aretxabaleta, Gipuzkoa |

Tel.: 943 039 842 | info@ibarrakiroldegia.com

www.ibarrakiroldegia.com

ibarra | ...merezi dau!
KIROLDEGIA

DUELA 10 URTE

2004-02-06

Aramaioko asto zaharrena hil zen

Aramaioko eta inguruko asto zaharrena, Erdaide baserriko *Putxiko*, hil egin zen. Jabeek eta albaiariak ez zekiten ziur, baina 35 bat urte hartu zituela uste zuten. Hori oso berezia da asto batendako, asko jota 24 bat urte hartzen dituzte-eta. Hil aurretik 25 urte egin zituen Barajuen auzoan; horietatik 15 bat lanean eta gainerakoak gora begira, bizitzaz gozaten. Akaso, horregatik iraun zuen horrenbeste...



Putxiko, bi gaztetxoren ondoan. | ERDAIDE BASERRIA

2004-02-07

Gazte lokala, buruhauste-iturri

Aramaioko gazteen eta Udalaren artean liskarrak izan ziren gazte lokalaren erabileraz zela-eta. Itxita egon zen zenbait hila-betez; Udalak erabiltzaileen adin-muga 20 urtera artekoa izatea –hasieran 18 urtera artekoa izan behar zuen– eta 01:00etan itxita egotea jarri zituen baldintza moduan. Gazteek ez zituzten baldintza horiek onartu, eta Udalak izena emateko zerrenda pasatu zuenean ez zen gazterik aurkeztu.

DUELA 5 URTE

2009-02-04

Aurrekontua, atzeratuta

Aramaioko Udal Gobernuak azaldu zuenez, 2009ko aurrekontuaren onarpena atzeratu egin zen. Otsail hasieran 2008ko aurrekontuko diruarekin ari ziren lanean oraindik. Aurrekontua onartzeko atzerapenaren arrazoiaren artean Udal Gobernuak nabarmendu zuen Udaleko idazkariak eta arkitektoak Udala utzi zutela.

ARAMAIO


Aitor Zabala Egunerokoa kudeatzen maisua da Cuatrovientos baserriko gaztea, beti hamaika saltsatan sartuta eta herriari "bizipoza" ematen dioten ekimenetan laguntzeko gertu | JOKIN BEREZIARTUA

"Pilatesa egiteko leku egokiagoa eskatuko nuke, baina ziur dirua ez dagoela soberan"

Egunaren 24 orduak motz gertzen zaizkio Aitor Zabalarari (Aramaioko, 1989). Hamaika saltsatan sartuta dabil: pilates irakasle, Aramaioko Gazte Asanbladako kide, areto futboleko taldeko jokalaria, Orixol mendizale elkartearen sartu berri... 2013ko udan sorosle izan zen Usakon eta Dukiena jatetxean ere egiten du lan aste bukaeretan. Ez dago zalantzarik eguna ondo antolatzen duela. Cuatrovientos baserriko semea, AHTko lanen eragozpenetara "ohitu" dela esan digu. **Noiztik zara pilatesko irakasle?** 2013ko irailean hasi nintzen. Aurretik, Arrasateko Zigorrola auzoko Zigagym gimnasioan egin nituen praktikak. Spinning klaseak ere eman nituen han, besteak beste. Aramaion orain bi txanda ditut, 20 bat ikasle. Astero bi ordu egiten ditut talde bakoitzarekin. Udaletxeko osoko bilkuren aretoan elkartzen gara. **Eta leku egokia al da osoko bilkuren aretoa pilatesa egiteko?** Duela hiru urte hasi ziren pilatesa hemen ematen, ez dago beste lekurik. Neguan, berogailua jarrita egon arren, hotz egiten du. Izan ere, pilatesak ez du ariketa fisiko handirik eskatzen. Materialari dagokionez, udaletxean goma eta zinta batzuk uzten

ditut. Baloiak, berriz, kiroldegian uzten ditut, eta, beraz, bueltaka ibiltzen naiz. Larri ibiltzen naiz, egia esan. Kiroldegiko gimnasioa ezin da erabili, inolaz ere. Udalar leku egokiagoa jartzeko eskatuko nioke halako ariketetarako, baina ez dut uste dirua soberan egongo denik. Ulertzen dut Udalak bere mugak izango dituela; azken finean, nik moldatu behar izan dut dagoenera. Pozik nabil, batez ere ikasleak gustura ari direla esaten didatelako. **Emakume helduak dira nagusi. Zeintzuk dira ariketa nagusiak?** Gorputzaren malgutasuna lantzea, bizkarreko arazoak arindu eta prebenitzea, muskuluak indartzea... Denetarik egin daiteke. Jende gazteari ere gomendatuko nioke, edonori datorkio ondo. **Erretiratuekin ere baduzu harremana. Azaliezaguzu.** Martitzenetan eta eguenetan gimnasio saioak egiten ditut eurekin. Jolasak, memoria ariketak... Kiroldegian elkartzen gara; gela txikian berogailua jartzen dugu, eta moldatzen gara. Baina kantxan sekulako hotza egiten du. **Usakon sorosle izan zinen udan. Zelako esperientzia izan da?** Bi urte egin ditut jarraian. Jen-deak, oro har, errespetatzen ditut arauak. Hori bai, batzuk alkohol-

HERRITARRAK



Aitor Zabala udaletxean, pilates saio bat hasi aurretik. | JOKIN BEREZIARTUA

"Pozgarria da Gazte Asanbladan jende berria gogotsu sartu dela ikustea"

"Orixol elkartearen erreleboa eskatu dute eta sartzea erabaki dut"

dun edariekin sartzen dira uretara. Beti atzetik ibili behar. **Zein izan da sorosle moduan bizi izan duzun egoerarik larriena?** Iaz, lehen lanegunean, lagun talde bat koltxoneta gainera ari zen salto egiten. Jauzietako baten euretako batek tibia apurtu zuen; uretatik kamillan atera behar izan genuen, gogorra izan zen. **Aramaioko Gazte Asanbladako beteranoetako bat zara. Zenbat kide zarete?** Orain, 12 bat lagun izango gara. Astero elkartzen gara, ekintza berrien gainean pentsatu, zer hobetu daitekeen ikusi eta betiko ekintzak antolatzen joateko. Herriarendako pare bat sorpresa ditugu, enteratuko zarete. Orain, adibidez, Aratusteak gainean ditugu eta egun horretarako jarrita gaude lanean. Pozgarria da jende berria sartu dela ikustea. Gogotsu sartu dira, gainera. Duela hiru edo lau urte sartu ginen gu.

Era berean, Orixol mendizale elkartearen sartzekotan zabilta, ezta? Bai. Erreleboa eskatu dute eta sartzea erabaki dut. Ea gazte gehiago animatzen den. Mendia gustatzen zait eta bide batez herriari laguntzen badiot, hobe. **Aramaioko taldean ere jokatzeko duzu? Igarri duzue aurten bi maila gorago jokatzeko ari zarete?** Aurtengoa bigarren denboraldia da. Iaz kosta zitzaigun mailari neurri hartzea, baina behin egokitu ostean nahiko erraz irabazi genituen partiduak. Aurten bi maila gorago gaude eta zailtasun berriekin aurkitu gara, taldeak ondo prestatuta doazela ohartu gara. Guretako ere ikasteko balio izan du horrek; entrenamenduetan jokaldiak gehiago lantzea behartu gaitu. Hori bai, esan beharra daukat beste eginbeharrak direla-eta ez dudala nahi beste entrenatzen.

NIRE HERRIAN

HERRI LASAIA BIZI IZATEKO

"Aramaiotik gehien gustatzen zaidana da herri lasaia dela bizi izateko. Oso herri aproposa da niri gustatzen zaidan bizimodu lasaia egiteko. Hemen ez dago hiriko estresik, ez dago auto-zirkulaziorik, ezta hirietan egon ohi den kutsadurarik ere. Naturekin harreman zuzena eta bizimodu lasaia; hori ederra da".

AHT-REN ZUBIA, ETXETIK GERTU

"AHTko zubia da gutxien gustatzen zaidana. Etxe azpian dago, oso gertu. Lur-jausia gertatu zenean zoratzea izan zen, erabateko kaosa. Herrira heltzeko sekulako buelta eman behar izateaz gain, etxeko errepeidea moztuta egon zen eta oinez ibiltzen ginen gora eta behera. Ez gustatu arren, obrekin bizi izatera ohitu egiten da".

HERRIAK

ARETXABALETAKO

Emakume eta gizon, guztiondako Fun Dantz!

Breakdance eta hip-hop erakustaldiak, akrobaziak, rap abeslariak eta DJak Martxoaren 8aren bueltan

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETAKO

Fan dantzara, fan dibertitzera, fan... Fun Dantz! Halaxe, dantzan jarriko dituzte emakume zein gizon aurten Aretxabaletan, Emakumearen Nazioarteko Egunaren bueltan. Musikak, dantzak eta ikuskizunak bat egingo dute Ibarra kiroldegian: breakdance eta hip-hop dantzariak, bizikleta gaineko akrobatek, rap abeslariak, disko jartzaileak... Guztiek dute hitzordua gurean, Martxoaren 8an.

Hip-hop ikastaroa

2012an Udalak martxan jarritako *Martxoak 8 egunero izan dadila* egitasmorekin bat egin du Fun Dantz! jaialdiak. Aurretik genero indarkeria landu zuten, eta iaz, emakumeak kirolean duen presentziaren gainean hausnartu –Emakumeen Biraren etapa bat ekarri zuten–. Aurten, ostera, kaleko kultura espresioak gai hartu eta erakutsiko dute emakumeak baduela hor ere zer esanena. "Emakumearen presentzia espazio publikoetara eraman gura dugu", jakinarazi du Maider Aizkorbe, Berdintasun zinegotziak. Eta Kultura zinegotzi Zigor Quintanillak hau gaineratu: "Guretzat ezaguna ez den arte estilo bat izango dugu eta herritarrek aukera paregabea dute ondo pasatzeko". Hala, gazteei bideratuta dagoela pentsatu arren, herritar guztiak gonbidatu dituzte.

Martxoaren 8ko jaialdiak hiru atal izango ditu: ikastaroa, txapelketak eta ikuskizun nagusia. Hip-hop dantza ikastaroak hasiko du ekitaldia (16:30); Silvia Palacios iruindarrak ondo pasatzeko ez dela aparteko gaitasunik behar erakutsiko die bertaratuei.

Ondoren, txapelketei ekingo die (17:30-18:30); hainbat DJren erakustaldiarekin batera, breakdance txapelketaren finalaurrekoak jokatuko dituzte: neska bikoteen arteko kale dantzak; eta buruz buruko breakdance. Eta ekitaldi nagusia, Fun Dantz! ikuskizuna, hasiko da gero (19:00).

Iraupen laburreko 16 show taularatuko dira, guztira 80 bat artista, eta erakustaldiak eta txapelketa saioak tartekatuko. Batetik, finalak jokatuko dituzte aurretik sailkatutako neska bikoteek, eta buruz buruko breakdance dantzariak; eta bestetik, taldekako kale dantzen txapelketa egingo da.

Break On Stage jaialdiari begira

Martxoaren 29an, Bilbao Arenan (Bilbo) jokatu den Break On Stage jaialdirako puntuagarria izango da Fun Dantz! taldekako kale dantzen txapelketa. Hamai-ka talde hiru sailkatuko dira final hartarako, eta 4.000 ikusle- ren begiradapean eta nazioarte-

ko epaimahai bat aurrez aurre dutela lehiatuko dira orduan. Gurean sailkatu ez baina lan txukuna egindako taldeek diru sariak jasoko dituzte.

Sarrerak dagoeneko salgai

Sarrerak martitzenaz geroztik salgai daude, guztira 600 (100 Bilbora bidaltzeko) Arkupe kultura etxean eta Aretxarteren dendetan –Durana kaleko Kioskoa, Belar Meta jantzi denda eta Jon harategia–, 2 euroren truke. Egunean bertan ere egongo dira 100 sarrera (3 eurotan), baina antolatzaileek lehenbailehen erostea gomendatu dute.

Aretxarte merkatarien elkar- teko kideek ere bat egin dute jaialdiarekin. Hala, 20 euroko 10 bonu zozketatuko dituzte, herriko hainbat tabernatan erabiltzeko.



Elexpuru (Aretxarte), Garaizabal (Break on Stage), Aizkorbe (Berdintasuna), Quintanilla (Kultura) eta Miguel (kultura). | M.A.

Taldekako txapelketa

Talde parte hartzaileak:

- ▶ Banbboo
- ▶ K-conexion
- ▶ Fusion Noise
- ▶ Double X Ladys
- ▶ Alehop
- ▶ Black Diamond Crew
- ▶ Rest-style crew
- ▶ Urban Dölls
- ▶ Golden Funk
- ▶ cLäSS Dance Crew
- ▶ ED Steps

DATUA

600

SARRERA

Salgai daude sarrerak: dendetan (Kioskoa, Belar Meta eta Jon harategia) eta Arkupen.

Momentuko artista onenen ikuskizunak

Txapelketarekin batera ikuskizuna eskainiko duten punta-puntako hiru talde etorriko dira. Batetik, Circle of Trust (Zaragoza) Espainiako breakdance talde onenetakoak –nazioartean ere onenen artean– hiru saio eskainiko ditu. Sei lagunek osatzen dute eta 2002az geroztik hazten joan dira han eta hemen parte hartuta: jaialdietan –Bartzelona, Manchester...–; publizitatean;

dantza konpainia eta koreografoekin elkarlanetan... Bestetik, BMX Flatland bizikleta estiloan jarduten duen Neugma artistak akrobazia ikusgarriak eskainiko ditu musikaren erritmora. Eta bukatzeko, Vento artistak *Cyr Weel* izeneko akrobazia erakustaldia egingo du. Uztai erraldoi batekin egindako akrobaziak breakdance saioarekin bateratuko ditu.

3., 4. EDO 14. PIVEa. BERDIN DA, ONENA FORDen PIVEa

FORD FIESTA
SYNC konektibitatearekin
8.290 €-gatik



FORD FOCUS
EcoBoost motorrarekin
12.790 €-gatik



Ford Fiesta eta Focus gama. Batez besteko kontsumo konbinatua 3,6 l-tik 7,2 l-ra / 100 km. CO2 emisioa 95 g-tik 160 g-ra / km
MUGARRI AUTOAK Araba Etorbidea, z/g. ARRASATE



ford.es



Martitzeneko osoko bilkura. | JOKIN BEREZIARTUA

Emakumeen eskubideekin bat egin du udalbatzak

PPren abortuaren gaineko lege egitasmoaren aurka mozio bateratua bilkuran

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE
Martitzeneko osoko bilkuran Arrasateko udalbatzak bat egin zuen PPrek Gobernuak aurkeztutako "kontzebutuaren eta emakume haurdunen eskubideen babeserako" legearen aurreproiektuaren aurka. Izan ere, bilkuran egon ziren talde guztiek, hau da, Bilduk, EAJK, PSE-EEk eta Aralarrek, aurrez adostutako mozioa onartu zuten. Mozioan hainbat eskaera jasotzen dira; honakoa, esaterako: "Haurdunaldia eteteko erabakiak emakumeen borondatea izan behar du ardatz eta baldintza nagusi".

Idazkariak mozioa irakurri ostean, PSE-EEko bozeramaile

Aritz Arrieta izan zen interbenzioa egin zuen bakarra. Legea indarrean jartzen bada, "sozialistak gobernura heltzen direnean indargabetu" egingo dutela adierazi zuen, besteak beste.

ESANAK

"Erraza izan da akordioa, denok ildo beretik gindoazen-eta"

MAIDER MORRAS | UDAL GOBERNUA

"Pozik" akordioarekin

Osoko bilkura amaitu ostean Udal Gobernuak bozeramaile Maider Morrasedi esan zuen "pozik" daudela talde guztiek bat egiten dutelako: "Oso ondo baloratzen dugu akordioa. Lege egitasmoak ez du erabateko babesa, ezta PP barruan ere. Erraza izan da akordiora heltzea, denok ildo beretik gindoazen-eta gutxi gorabehera. Alde horretatik, pozik gaude; baina kezkatuta ere bai, beste alde batetik". Morrasedi arabera, abortuaren gainean erabakitze-ko eskubidea ezin da Estatuaren edo medikuntzaren "eskuetan" geratu, eta gaineratu zuen "nahi-

ko lan" egin duela mugimendu feministak emakumeek haurra "noiz izan edo noiz ez" erabakitze-ko eskubidea izan dezaten.

"Atzerakada handia"

Morrasedi bozeramaileak adierazi zuen, era berean, lege egitasmo hori "atzerakada handia" dela, aurrez aipatutako moduan, Estatuaren lege baten edota medikuntzaren "eskuetan" uzten duelako emakumearen erabakitze-ko eskubidea. "Eta horrek dakarrenarekin emakumearen bizitzan", esan zuen.

Era berean, Udal Gobernuak uste du lege proposamenak "albo batera" uzten duela haur eta gazteen ugalketa eta sexualitatearen heziketa: "Heziketa oso garrantzitsua da, batez ere erabakitze-ko eskubidea eta askatasuna euren dela ulertarazteko". PPko Gobernuari abortuaren erreforma delakoa bertan behera uzteko eskatzeaz aparte, Udalak herritarrei dei egin die jardun daitezen emakumeen eskubideen eta autonomiaren alde: "Eta zehazki, emakumeen haurdunaldia borondatez eteteko eskubidean atzerakada dakarten ekimenen kontra", diote.

Amaitzeko, bilkuran adostutakoaren berri emango diote Eusko Jaurlaritzari, Espainiako Justizia Ministerioari, Espainiako Gobernuari, Gorte Nagusiei eta Europako Bata-suneko Parlamentuari eta Kontseiluari.

Gesalibar auzoa jaietan murgilduko da aste bukaeran

J.B. | ARRASATE

Gesalibar auzoko jaiak ofizialki eguaztenean hasi bazi- ren ere, aste bukaeran izango dira egitarauko ekintza potoloenak: gaur, Toka txapelketaren hirugarren edizioa (19:30) eta 21:00etan bertso afaria auzoko Jentil-Ola elkartearen hain zuzen ere. Sebastian Lizaso eta Aitor Mendiluze bertsolariak hartuko dute parte. Izen-ematea eguaztene- rako itxi behar izan zuten, ia 80 lagunek eman dute-eta ize- na: "Elkartean ez gara gehi- go sartzen", adierazi dute. Bihar umeendako jolasak egongo dira Txatxilipurdi elkartearen eskutik (11:00). Gero, Gesalibarko III. patata- tortilla lehiaketa egingo dute. Tortillak aldeztu aurretik egin beharko dira. 12:00etan, urte- ro moduan, meza egingo da auzoko hildakoen alde eta 14:30ean Santa Ageda eskean irtengo dira.

Domekan, auzoko zaindaria- riaren aldeko meza egingo dute (11:00), eta, egitaraua amaitzeko, auzotarrendako luntxa egongo da Jentil-Ola elkartearen (12:00).

ARRASATEKO UDAL HAUR ESKOLA



matrikula
epea zabalik
otsailaren 3tik 14ra

UMEZAINNTZA

0-3 URTE

San Andres, 8

URIBARRI

JOKIN ZAITEGI 0-3 URTE

Uribarri etorbidea, z/g.

Instalazioak ikusi edo elkarrizketa egin nahi izanez gero,
aurrez telefonoz abisatu

943 77 20 25 www.arizmendi.eu



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Arizmendi ikastolak kudeatutako Udal Zerbitzua

ai arizmendi
ikastola

Andoni Altzelai | SUDC elkarteko kidea

"Sardina pixkanaka erretzeko, kerosenoa erabiliko dugu aurten"

- ▶ Gasolinak "sekulako eztrandak" eragin zituen iaz; horregatik aldatuko dute
- ▶ Gainera, askoz arinagoa izango da oinarria aluminiozkoa jarriko diotelako

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Arrasateko Aratusteetako ikur nagusia den sardina forma hartzen dabil. Mikel Sanzberoren, Jose Luis Albesen eta Andoni Altzelairen trebetasunari eta dedikazioari esker, hiru aste barru amaituta egongo da. Altzelaik gustura erantzun ditu gure galderak, Aratusteak odolean daratzala argi utzita beste behin. **Noiz hasi zineten aurtengo Aratusteetarako sardina egiten?**

Duela hiru bat aste hasi ginen. Ia egunero elkartzen gara, goizean. Hiru lagun ari gara lanean eta Aratusteetan, martitzenean, 12 lagun artean eramango dugu, sei lagun alde bakoitzean.

Aurtengo sardina arinagoa izango da. Zer dela eta?

Bai, iazkoa baino askoz arinagoa izango da. Aldaketa nagusia izango da sardinaren oinarriko material berria erabiliko dugula. Iaz burdinazko oinarria zuen eta pisu handia hartzen zuen. Aurten, berriz, aluminiozkoa izango da oinarria eta horrek esan gura du pisua erdira-edo



Andoni Altzelai aurtengo sardinaren eskeletoa atzan duela. | JOKIN BEREZIARTUA

jaitsiko dela. Orain arte atera dugun sardinak 150 bat kilo izango zituen... Aurtengoa amaitzen dugunean pisatu egingo dugu, ea zenbateraino den arinagoa.

Nola beteko duzue?

Urtero moduan, GOIENA paperak erabiliko ditugu. Astelehenean hainbat ale heldu zitzaizkigun eta iaztik ere baditugu beste hainbat. Laster hasiko gara betetzen; izan ere, dagoeneko hasi gara kartoizko ezkatat egiten. Hiru astean amaituta egongo da.

lazko erreketak ez zitzaizun askorik gustatu. Zergatik? Nola erreko duzue sardina aurten?

Iaz sekulako eztrandak egin zituen, gasolinarekin erre genuelako. Iaz su garrak handiegiak izan ziren, eta aurten aldatzea erabaki dugu. Kerosenoa erabiliko dugu, berogailuetan erabiltzen dena. Kerosenoak sua behar du erretzeko eta horregatik espero dugu modu lasaigoan erreko dela sardina, pixkanaka. Proba batzuk egin ditugu, eta askoz hobeto. Gainera, Mikel Sanzberro artistari esker erreketaren unerako sistema berri bat jarriko diogu.

Herri bazkaririk ez, baina egitarau "txukuna eta herrikoia" bai

Aratusteetako Jai batzordeak erabaki du zapatuko herri bazkaria bertan behera uztea: "Herri bazkaria ehunka lagunendako alaitasun topagunea izan arren, azken urteetan herritar kopurua jaitsiz joan da. Era berean, ez da erraza orain arteko formatuari eutsita prezio herrikoiak eskaintzea.

Hortaz, ikusi dugu hobe izango dela herri bazkariari uko egin eta, bide batez, herriko taberna eta jatetxeei bultzadaxo bat ematea", adierazi dute ohar bidez. Hala ere, egitarau "txukun eta herrikoia" antolatzeke lanean dihardutela jakinarazi dute: "Ederto pasatuko dugu!".

Garagartzako Ortu Ekologikoak Elkartearen batzarra

Otsailaren 12an, eguaztena, izango da Garagartzako Ortu Ekologikoak Elkartearen batzarra, Kultureteko Jokin Zaitegi aretoan. 18:15erako egin dute lehen deialdia eta 18:30erako bigarrena. 2013ko diru kontuen laburpena eta 2014ko aurrekontuaren aurkezpena, urteko memoriaren laburpena eta zuzendaritza talde berriaren osaketa –boluntariorik ez bada aurkezten dozketa egingo da– izango dituzte mahai gainean, besteak beste.

Arrasate Zero Zabor taldeak argazki lehiaketa antolatu du

Arrasate Zero Zabor taldeak argazki lehiaketa antolatu du kontsumismoaren gainean. Gaiarekin lotura duen argazki bat bidaltzeaz gain, izenburu bat proposatu beharra dago. Bi sari egongo dira, epaimahaiarena –asteburu bat landetxe baten– eta publikoarena –Zuberoako ikastolek eskainitako otarra–. Lanak aurkezteko edo bozkatzeko arrasatezerozabor@gmail.com helbide elektronikoa eman dute. Lanak entregatzeko azken eguna da otsailaren 23a.



Matrikulazio epea zabalik
haur hezkuntzan eta lehen hezkuntzan
otsailaren 3tik 14ra

arrasate
Gurasoen Elkarte Herri Eskola



baikara
Gipuzkoako Ikasleen Gurasoen Federazioa

**Guk bezala,
egin apustu, egin kiñu
Euskal Eskola
Publikoaren alde!**



BEDOÑABE • Tel.: 943 79 20 69



MUSAKOLA • Tel.: 943 79 04 49



ERGUIN • Tel.: 943 79 77 74

Urrezko dominaren bila joango da Maialen Axpe Malaga aldera

Iñigo Uribarren ere egongo da han, Espainiako promes mailako txapelketan

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Maialen Axpe eta Iñigo Uribarren atleta arrasatearrak Antequeran (Malaga, Espainia) lehiatuko dira aste bukaeran, promes mailako Espainiako txapelketan. Axpe pertika-jauzian ariko da eta Uribarren, berriz, jauzi hirukoitzean.

Axpe eta haren entrenatzaile Jonathan Perez gaur irtengo dira hegazkinean eta domeka iluntzera arte ez dira bueltatuko. Perezek uste du Axpek urrezko domina ekarriko duela: "Bere maila erakutsiko duela uste dut. Oso ondo entrenatu da aurten; azken asteetan gaixorik egon da, hori da txarrena. Hala ere, aste honetan ondo entrenatu da; esan diot marka berdin zaidala, irabazi egin behar duela". Axpek erdi gaixorik hartu zuen parte joan den aste bukaeran Donostian jokatuak Euskadiko Kopan. Ez zuen bere maila erakutsi.

Ruiz de Azua makal Donostian

Gauza bera gertatu zitzaion Malen Ruiz de Azuari; haren hiru jauziak baliogabeak izan ziren: "Pertika-jauzietan gerta daiteke Maleni gertatu zitzaiona. Lehen saiakeran 3,60 metroko langa gainditu zuen, baina erortzerakoan listoia jo eta jauzia balio gabetu zioten. Azken bi saiakeretan oso urduri jarri zen", esan du Perezek.



Jonathan Perez eta Maialen Axpe, Donostiako belodromoan, ia. | GOIENA

Axpe, urrezko dominaren bila
Maialen Axpe Malagatik urrezko dominarekin etorriko dela espero dute Arrasate Atletiko Taldekoek. Izan ere, Axpe da bere mailan markarik onena duena (3,90 metro): "Lau metroko jauzia egiten badu, ziur irabaziko duela. Bere marka onena 4,10 metro da, uda sasoiaren lortutakoa", uste du haren entrenatzaileak. Espainiakoaz gain, Gipuzkoako txapelketan parte hartuko dute bukaera honetan Malen Ruiz de Azuak eta Istar Dapenak.

Perez, sasoiaren oraindik
Jonathan Perez pertika jauzilaria, 32 urte eta erdierekin, 4,85 metroko salto egin zuen joan den asteburuan Donostian. Sasoiaren dago oraindik; denboraldiko bere markarik onena da eta horrek denboraldi honetako Estatuko hamar onenen artean kokatzen du. Egindako jauziarekin "oso pozik" dago, aitortu duenez: "Aurten lehentasun moduan hartu dut Maialenen eta Malenen lana, baina eurekin entrenatzen naiz eta sasoi onen nago. Gainera, fin jarri naiz, zenbait kilo kendu ditut". Neguan ez da udan beste entrenatzen, baina oraindik ere onenen artean egoteko gai dela erakutsi du Arrasateko atleta beteranoak.

ZALDIBAR

EMAITZAK

Jibaro F.C.-Sonografos	2-11
Iluntz - Lasagabaster	8-0
Birigarruak - Sport in tus bragas	1-7
Abokajarro - Dribling	2-4
Cantauri - Aldatz	4-12
Ostantz - Fidel & Discipulos	3-3
Haizea's Weah - Betraye	3-1

SAILKAPENA

TALDEA	J	P
1 Dribling	9	27
2 Aldatz	9	22
3 Haizea's Weah	9	18
4 Lasagabaster	9	18
5 Iluntz	9	17
6 Betraye	9	16
7 Sonografos	9	16
8 Sport in tus bragas	9	13
9 Abokajarro	9	9
10 Fidel & Discipulos	9	8
11 Ostantz	9	7
12 Jibaros F.C.	9	6
13 Cantauri	9	5
14 Birigarruak	9	0

PARTIDUAK

HILAK 8, ZAPATUA
09:30 Abokajarro - Lasagabaster
Aldatz
10:30 Iluntz - Aldatz
Abokajarro
11:30 Cantauri - Betraye
Iluntz
12:30 Haizea's Weah - Jibaros F.C.
Cantauri
HILAK 9, DOMEKA
10:30 Birigarruak - Fidel & Discipulos
Sport in tus bragas
11:30 Dribling - Sport in tus bragas
Fidel & Discipulos
12:30 Ostantz - Sonografos
Dribling

Oharra

Partiduen atzerapena edo ordutegi aldaketa aurreko domekan egin behar da nahitaez.

Getxon jokatu du bihar Arrasate Rugby Taldeak, 16:00etan

Arrasate Rugby Taldeak bihar jokatu du Euskadiko Txapelketako laugarren jardunaldia. Igor Isasiren mutilek Getxon jokatu dute, Getxo B taldearen aurka. Ez da partidu erraza izango, baina azken boladur eusten saiatuko dira arrasatearrak. Dena den, errugbirik ez da faltako bihar Mojategiko zelaian: kadete mailako taldeak -Kanpazar ART Ordizia da taldearen izen ofiziala- Zarautzen aurka jokatu du bihar, 16:00etan hasita.

Arrasate Dragoi gimnasia taldea bihar Bergaran egongo da

Bihar Gipuzkoako Eskolarteko A mailako lehen fasea jokatu da Bergarako Labe-garaieta kiroldegian. Arrasate Dragoi gimnasia taldetik hamaika kide jongo dira, kadete, gazte eta senior mailetan, bakarka zein taldeka. Kadetetan: Maite Oliden, Maitane Ugarte, Eneritz Lage, Andrea Hernandez, Alba Revuelta, Amaur Mendizabal, Ane Fernandez eta Maialen Gallardo. Gazte mailan, Eider Altube eta senior mailan, Olatz Fernandez eta Ainhoa Delgado.

Aukera ederra du Mondrak sailkapenean gora egiteko

J.B. | ARRASATE

Erregional Preferente mailan dagoen lehia ikusgarria da, ederra dago liga. Urola lehen sailkatuaren (36 puntu) eta bederatzigarrena den Zestoaren artean (30) sei puntu eskas daude. Zazpigarrena da Mondra, 33 punturekin. Hortaz, mailaz igotzea bermatzen duen lehen posturako lehia itzela izango da denboraldiari geratzen zaizkion bederatz jardunaldietan. Bi partidu jarraian irabazteak sailkapenean sekulako jauzia ematea esan gura du eta orain aprobetxatu behar dira bolada onak, azken unera arte mailaz igotzeko aukera egon dadin.

Gotzon Urzelaireren mutilek domekan jokatu dute 20. jardunaldia (16:30), Legazpin. Ilintxa taldea beheko postuetan dago, baina horrek ez du esan nahi lehia erraza izango denik. Arrasatearrak azken partiduetan erakutsi duten jarrera eta kontzentrazioa mantendu beharko dute Legazpitik hiru puntuekin bueltatzeko.

Udaberriko Txapelketa dela-eta hiru pilota partidu gaur Uarkapen

J.B. | ARRASATE

Udaberriko Pilota Txapelketa dela-eta hiru pilota partidu izango dira gaur. Gaztetxoekin koordinatzaile Ibai Bolinagak jakinarazi du gaur alebinak, gazte mailakoak eta seniorrak lehiatuko direla, 20:30ean hasita.

Alebinetan, Perez de Albeniz eta Elkorobarrutia Alegiako Intxurre taldearen kontra lehiatuko dira, gazte mailako Garate eta Salegi Gailurrerantz taldearen aurka eta senior mailako Zuazua eta Lazkano Legazpiko taldearen

aurka: "Orain, ligaxka ari dira jokatzeko. Gero, lau bikote onenak finalerdietara pasako dira zuzenean", dio Bolinagak.

Bihar ere pilota protagonista

Bihar ere ez da pilotarik faltako Uarkapen. Euskadiko Txapelketaren barruan, kadete mailako partidua jokatu dute Moron eta Zeziaga arrasatearrek Berako (Nafarroa) Bortziririk pilotari taldekoen aurka (12:00). Arratsaldean, bestalde, pilota eskolako partiduak jokatu dira (15:30).



Joan den aste bukaeran Uarkapen jokatuak pilota partidu bat. | IMANOL SORIANO

Ford Mugarrik Leioan jokatu du bihar (19:30)

J.B. | ARRASATE

Ford Mugarrik Quiron Askartza taldearen aurka jokatu du bihar Leioan (19:30). Azken jardunaldian Santoñaren aurka ondo merezitako garaipena lortu zuten Pablo Gartzia- ren mutilek. Bi taldeen artean lehia berezia dago eta hori lehen unetik igarri zen Iturripen. Tentsioak tentsio eta protestak protesta, Arrasateko taldea gaurko egunez hobe da kantxaren gainean.

Santoñaren aurkako *derbiaren* ostean, lehen bi sailkatuengana hurbiltzen saiatuko dira jokalariek arrasatearrek bihar. Leioa ez da kantxa erraza, baina, sailkapenari begiratuta, talde arrasatearra da faboritoa. Ford Mugarrik hirugarren sailkatua da eta Quiron Askartza, hamaikagarren.

Bestalde, Bigarren Terri-torialeko taldeak Iturripen jokatu du domekan, 11:30ean. Ordiziaren aurka jokatu dute; talde arrasatearra bigarrena da sailkapenean eta Ordiziakoa, berriz, azken-aurrekoa.

Bi mundu kontrajarriren talkak eragindako komedia jostagarria

'Ondoko hilobiko tipoa' antzezlanak kritika eta publikoa bereganatu ditu

IMANOL GALLEGU | ARRASATE

Txalo Produksioak konpainiak, Begoña Bilbao Legarzegiren zuzendaritzapean, Katarina Mazetik idatzitako *Ondoko hilobiko tipoa* antzezlan eskainiko du, euskarazko bertsioan, domekan, Amaia antzokian, 19:30ean.

Beti bezala, sarrerak antzokiko txartel-leihatilan erosi ahal izango dira. Nahi duenak, baina, aurreko astean aurkeztu zen *home ticket* zerbitzu berriari esker, www.arrasate-mondragon.net atarian txartelak erosteko aukera izateaz gain, etxean bertan jasotzeko aukera ere badu. Zerbitzu horrek, gainera, %15eko deskontua eskaintzen du.

Istori originala

Neskatila pinpirin bat baserrian eta baserriar bat operan; horrenbestez, ezberdinak diren bi mundu elkarren alboan, maila sozio-kultural ezberdineko bi lagun aurrez aurre.

Aiora da protagonistetako bat eta Pablo da bestea. Liraina, goxoa eta alarguna da Aiora; eta berekoia, burugorria eta ezkongabea Pablo.

Bi mundu ezberdin leku berean. Bata bestearen ondoan,



Elkar ezagutzen ez duten bi protagonisten artean sua piztuko da. | TXALO PRODUKZIOAK

kanposantuan. Aiora eta ondoko tipoa... Pablo. Irribarre leun bat, ordea, nahikoa izango da bi protagonisten arteko sua pizteko. "Amodioa da istorioaren muina, baina umoretik aldendu gabe", aipatu du Aitziber Garmendia aktoreak.

Bada, istorio simple hori irudikatzeke, eszenografiak garrantzi handia dauka. "Bi pertsonaien barne unibertso eta sentipenak irudikatzeke, argiarekin jolasten dugu", azaldu du Garmendiak. Hala ere, pertsonaien sakonta-

sunak aktoreen lan bikainari esker igartzen da.

Gertuko aurpegiak

Ezagunak diren bi aktore izango dira taula gainean: Iker Galartza eta Aitziber Garmendia. "Iker komedian primeran moldatzen da", dio Garmendiak. Bere ibilbidean zehar egindako lanak ikusita, baita Garmendia bera ere.

Istori horretako bi pertsonaien arteko suak ze tenperatura hartuko du?

Manu Gallardo | Ozenki elkarte lirikoko presidentea

"Sarrera gehienak horren azkar saldu izana ez da ezustekoa izan"

ZURIÑE V.D.M. | ARRASATE

Madama Butterfly opera eskainiko dute Amaia antzokian martxoaren 18an, 20:00etan. Ikusmina piztu du lanak; horren erakusgarri da sarrera gehienak saldu direla dagoeneko.

Salgai ipini eta aurreneko 24 orduetan 500 sarrera saltzeak operaren arrakasta aurreikusten al du?

Ez da ezustekoa izan, jendea opera noiz etorriko zain egoten dela baitakigu. Gainera, *Madama Butterfly* ekarri dugu Luis Mariano elkarte lirikoko eskutik. Hain zuzen, 100 urte betetzen dira Luis Mariano jaio zela eta Pucciniren obra interpretatzen ari dira; ez genuen omenaldiarekin bat egiteko aukera galdu nahi.

Ez dela ezustekoa izan diozu.

Hala da. Hiru urte igaro dira opera emanaldiak antolatzen hasi ginenetik eta herritarren artean finkatzen ari den ohitura dela esango nuke. Martxan ipini genuenean afizioa bazezgoela ikusten genuen, opera eta kantua gustuko duen publiko jakin bat zegoela bagenekien, eta horregatik hasi ginen antolatzen. Oso pozik gaude.

Luis Mariano Elkarte Lirikoia izango da aurtengo gonbidatua.



Manu Gallardo. | GOIENA

Bai, baina, berez, produkzio italiarra da, eta, esan bezala, Irungo taldea omenaldi gisa ari da interpretatzen. Baina, gainera, euren 10. urteurrena ere bada. Victoria Eugenia, Printzipal antzokian, Irunen eta Arrasaten aritu ostean, Euskal Herrikan kanpoko bira egingo du Italia aldean.

Maitasuna da *Madama Butterfly*-ren ildo nagusia, ezta?

Bai, eta Puccinik errealismo handiz irudikatu zuen gerra garaian benetan gertatzen zena. Hain zuzen, AEBetako marina Asia aldera joan, bertako emakumeekin harremanetan hasi, alde egin eta emakumeak bertan uzten zituzten bakarrik.



Herri Eskolako Erguingo ikasleek jolastokian egindako saioa. | ARRASATE HERRI ESKOLA



Santa Ageda Abesbatzako kideek parrokian egin zuten lehen kantaldia, auzoetara joan aurretik. | GOIATZ ARANA

Ohitura zaharra aurten berritzeko asmoz

Santa Ageda bezperan herriko hainbat tokitan koplak zaharrak entzun ziren

I.G. | ARRASATE

Goiztiar ibili ziren Santa Ageda bezperan koplak abesteko ohiturarekin bat egindako herritar asko eta asko. Horixe izan zen, batez ere, kintoen kasua eta baita Arrasateko Santa Ageda Abesbatzarena ere.

Martitzen goizean, 08:00etan, San Juan Bataiatzailea parrokian elkartu ziren. David Artzamendiren omenezko mezan abestu eta gero, bi taldetan banatuta Bedoñarako bidea hartu zuten batzuek eta Zigorrolara joan ziren

besteak. Eguraldi hotzari aurre eginez, ohiturari eutsi eta umore onez abiatu ziren abeslariak.

Gazteak ere irten ziren

Arrasate Herri Eskolako eta Arizmendi Ikastolako hainbat gunetako gaztetxoek makila eskuan hartu, eta egun berezi hori ospatzeko Santa eskean ibili ziren herriko kale eta plazetan.

Arizmendi Ikastolako Olarteko haurrak Iturbide egoitzan izan ziren egoiliarrekin abesten, eta ondoren, Seber Altube plazan

egin zuten eguneko kantaldieta-bat. Arratsaldean, Arizmendi Ikastolako Gazteluondoko ikasleek, Arrasateko koruarekin batera, Herriko Plaza kantuz eta makila hotsez bete zuten.

Arrasate Herri Eskolako Erguingo ikasleek, aldiz, patioan abestu eta gero, auzoko kaleetan zehar abestu zuten. Amaitzeko, Herriko Plazan ere egin zuten saioa. Bedoñabe eskolako 4 eta 5 urteko txikiak, berriz, gogotsu abestu arren, ez ziren eskolako jolastokitik irten.



Arizmendiko Olarte gunekoek Seber Altuben abestu zuten. | ARIZMENDI IKASTOLA



Aretxabaletako etapa amaiera, iaz. | IMANOL SORIANO

Emakumeen Birako etapa hartuko du aurten herriak

Goi mailako txirrindularitza izango da berriz ere Oñatin ekainaren 13an, Birako bigarrenarekin

JULEN IRIONDO | OÑATI

Emakumezkoen txirrindularitza UCIn maila gorenekoa den eta munduan sona handiena duten lasterketen artean dagoen Emakumeen Birako etapa bat Oñatin amaituko da aurten. Profesional mailako tropeleko txirrindulari onenek emandako ikuskizunarekin gozatzeko aukera izango da, beraz, ekainean.

Ibilbidea zehaztu gabe dago oraindik, baina gauza jakina da dagoeneko Birako bigarren etapa –lau dira denera– hasi eta amaituko dela Oñatin, txirrindulariak hiru aldiz pasako direla herriatik eta bi mendate igo beharko dituztela. Aloña Mendiren Txirrindularitza sailaren bueltako taldetxo

bat ari da ibilbidea prestatzeko lanetan.

Oraingoan etapa antolatzeke ardua Oñatik hartuko duen arren, lasterketa Debagoienara ekartzeara bailara mailako erabakia da, hein batean. Honela, zatirik handiena Oñatik jarriko duen, baina beste udaletan gehienek ere jarriko dute dirutxo bat; iaz Aretxabaletak hartu zuen Birako egubakoitzeko etapa, eta asmoa da 2015ean Debagoieneko beste herri batek egitea gauza bera. Lasterketa Gipuzkoara ekarrita, gainera, Emakumeen Biraren antolatzaileen beste helburu bat lortzeko ere ari dira laguntzen, ia erabat Bizkaiarekin lotzen den proba beste herrialdeetara ere

zabaldur nahi dute eta, Euskal Herriko izaera izan dezan.

Askok kostu txikiagoa

Maila goreneko lasterketa izan arren, emakumezkoen proba antolatzeak alde nabarmenak ditu gizonezko profesionalena antolatzearekin alderatuta; hala azaldu digu Udaleko Kirol batzordeburu Ainhoa Martinek: kostu ekonomikotik hasita, 8.000 euro kostako da-eta etapa herrira ekartzeara. Alderdi ekonomikotik eta oro har antolakuntza aldetik ere errazago, aurreko lanetarako jende askoren beharrik ez dute ikusten, eta "deialdi zabalik" ez egitea erabaki dute: "Egunerako egingo dugu deialdia ikusten

bada beharra bidegurutzeak zainatzeko edo muntaia lanetarako".

Ibilbidea prestatzen ari den taldeaz gain, baina, beste talde bat ere ari da antolaketa lanetan. Hauek gehiago lasterketaren ingurukoak prestatzen, ekainaren 13an edo aste horretan egingo diren ekintza osagarrietarako lanean. Kasu honetan, Oñatiko emakume taldeak ari dira.

Izan ere, Emakumeen Bira herrira ekartzearekin ikuskizun polit bat ikusteko aukera ematearekin batera emakumeen kirola bultzatu nahi da: "Aretxabaletak proiektu hau Mankomunitatean aurkeztu zuenean asko gustatu zitzaigun ideia. Txirrindularitza, emakumeen lasterketak ez dira ikusten, eta iruditu zitzaigun ideia ona ohartu dadin jendea ze desberdintasun dauden emakume profesionalen etapa baten antolakuntzaren eta, adibidez, Euskal Herriko Itzuliko baten artean. Emakumeen kirola sustatu eta indartu nahi dugu", dio Martinek.

Neska txirrindulari gutxi

Eta helburu hori lortzeko txirrindularitza kirol aproposa delakoan dago Udala, dagoen zaletasuna kontuan izanda: "Ez du erakarriko Itzuliko etapa batek erakartzen duen jende kopurua, baina herriak lagunduko du eta irtengo da etapa ikustera, eta herriarentzat ere polita izango da".

Txirrindularitza diharduten edo hasiko lirakekeen neskatilentzat ere zita polita izan daiteke ekainekoa: "Beheko kategorietan gutxi ikusten dira. Egia da gurasoek beldurra izaten diotela errepideari, baina esango nuke joera aldatzen ari dela. Gero eta emakume zikloturista gehiago ikusten dira, eta hori poztekoa da niretzat. Baina egia da beheko kategorietan ohikoagoa dela neskak beste kirol batzuetan ikustea ziklismoan baino gehiago. Kontuan izan behar da, baita ere, nesken ziklo bakarririk diren lasterketak ez direla egoten, mutilekin lehiatu behar izaten dutela, eta hori beste zailtasun bat da parte hartzeko", dio batzordeburuak.

Lizargarate aurrera, nahiz eta lapurreta handia jasan

J.I. | OÑATI

Astean batu da Lizargarateko zuzendaritza, eta erabaki du elkartearekin aurrera jarraitzea, nahiz eta jakin nahikoa gastu handia egin beharko dutela, aurreko asteko lapurretaren ostean, gauzak berriro gutxieneko baldintza batzuetara itzultzeko.

Eguena eta egubakoitza artean sartu ziren Oñatiko, Antzuolako eta beste zenbait herritako bazkideak dituen mendiko elkarteak. Ateak bortxatu eta eraman zituzten topatu zituzten kontsumorako gauzak –edari, kafe, azukre...– eta, zuzendaritzakoen esanetan, txatarretarako balioko dutela uste zuten guztia: aluminiozkoak, eguzki plaken bateriak, berogailu bat... 15.000 euro inguruko kaltea eragin zuten lapurrek.

11.294 lagunekin, biztanle kopuruak gora jarraitzen du

J.I. | OÑATI

2014ko urtarrilaren lehen urtebeteko lehenago baino 92 lagun gehiago zeuden Oñatin erroldatuta. 133 jaioberri erroldatu ziren iaz herrian –100etik gora izatea da joera 2004tik; 2012an 121 izan ziren–; hil, berriz, erroldatuta zeuden 102 pertsona hil ziren. Jaiotako eta hildako arteko 31 laguneko aldeak erakusten du biztanleriaren hazkunderen bi heren kanpotik jendea etorri izanari zor zaiola. 2005etik, apurka-apurka, hazten ari da biztanleria Oñatin.

'Eltzia' egitasmoaren 2. fasea aurkeztuko dute

Martitzenean egingo dute herri aurkezpena, 19:00etan ETEOn, proiektua diseinatzen hasteko

J.I. | OÑATI

Bagararen gidaritzapean, irailean hasi ziren Eltzia egitasmoarekin; lehenengo fasean "gizarteratze eta erradiografia lana" egin zuten, herriko mugimendu desberdinekin elkarrizketa saioak eginez eta baita lansaioak ere. Hortik nahi izan dute "herriko kultura mugimenduaren eta sortzaileen errealtateari buruzko erradiografia atara". Bigarren fasean sartu nahi dute proiektuaren muinean, eta aztertu zer egon behar duen ETEOko espazio

horretan, "eta baita ere nola", Bagarako Johana Olabarriaren hitzetan: "Nola antolatu, funtzionamenduak eta egiturak nolakoak izan behar duten, eta baita proiektuaren ezaugarriak nolakoak izan behar diren; bigarren fasean proiektua diseinatzera sartuko gara".

Aspalditxoan erabiltzen

Datorren asteko herri aurkezpenaren lehenengo fasearen ondorio nagusiak aurkeztuko dituzte, eta egingo dute, baita ere, bigarren



ETEoko eraikina. | TXOMIN MADINA

faserako planteamendua, metodologiari dagokionez.

Bestetik, ETEOko eraikina hutsik egonda eta herriko hainbat taldek leku beharra edukita, azken hilabeteetan bat baino

gehiago hasi dira espazio hura erabiltzen: "Haiekin ere barne funtzionamendurako arautegi bat lantzen ibili gara, eta talde horiek espazio komun hori erabiltzeko koordinazio lanetan".

Bi enpresa lehian, turismo arlokoak kudeatzeko

J.I. | OÑATI

Turismo bulegoa eta Arrikrutz-Oñatiko Kobak kudeatuko dituen enpresa bat eta bera izatea erabaki du Udalak, eta lehiaketara aurkeztu dira Oñatur –gaur egun turismo bulegoa kudeatzen duena–, batetik, eta Tantai Naturlanak enpresak –Arrikrutz daramana– eta Nerea Tauschke Lanberrik –Zegamako turismo bulegoa daramana– osatutako aldi baterako enpresa-elkartea, bestetik. Asmoa da esleipena martxorako egitea; bitartean, Arrikrutzeko kobak itxita egongo dira.

"Hiri bizigarria" helburu, lehen tailer emankorra

JULEN IRIONDO | OÑATI

Udaleko Berdintasun sailaren ekimenez eta Farapi aholkularitza enpresak gidatuta, astelehenean egin zuten hirigintza eta herria emakumeen ikuspuntutik aztertzea eta genero ikuspegia hirigintzan txertatzea helburu izango duten tailerretan aurrenekoa.

Duela aste batzuk, herriko hainbat sektoretako eragile eta emakumeekin erronda egin zuten Farapikoek, prozesua aurkezteko eta bakoitzaren beharrak aztertzen hasteko. Asteleheneko saioan, guztien ekarpenak bateratu zituzten.

Tailerraren hasieran "bizigarriak izateko hiriak" kontzeptuaren gainean jardun zuten, besteak beste. "Emakumeen beharretara, bai irisgarritasun, bai segurtasun eta zerbitzu aldetik egokitutako hiria" litzateke "hiri bizigarria", Berdintasun sailako batzorde buru Maialen Urzelaireren arabera.

Hirigintzan eragiten duten aspektu horien gainean jarduteko, lau lantaldetan banatu ziren ondoren tailerreko parte-hartzaileak, herriko planoak eskuan. Talde bakoitzak bere ondorioak azaldu zituen eta eztabaidari ekin zioten ostean. Azkenik, ondorio horiek bere garaian eragileekin egindako errondan ateratakoekin alderatu zituzten.

Tailerrak emandakoarekin gustura geratu ziren: "Hogei bat lagun elkartu ginen lanke-ta egiteko. Tartean, Berdintasunerako teknikaria eta baita udal arkitektoa ere. Oso giro onean lan egin genuen eta azpimarratzekoa da elkartu ginen taldearen aniztasuna: gazteena 20 urteren bueltan, nagusia 80ren bueltan... Etorकिनak, bai Ameriketakoak baita herrialde arabiarretakoak... EAJko eta Bilduko zinegotziak, herriko bi eragile feministetako militantek...". Martxoaren 31n egingo dute hurrengo tailerra, 18:00etan Bidebarrietan.



Emakumea erosketetarako orgarekin. | IRATI GOITIA

Irati Ugarte | Ikastaroa emango duena

"Norberak egindako gauzek balio handiagoa izaten dute"

- ▶ 'DIY: Egin zuk zeuk!' ikastaroa emango du hilaren 14tik, egubakoitzetan
- ▶ Etxean ditugun ohiko gauzak pertsonalizatzen ikasteko saioak izango dira

J.I. | OÑATI

Aurretik ere bitxigintza ikastaroa emandakoa da Irati Ugarte, hiru urtez. Oraingo honetarako izena eguaztenera arte eman daiteke, kultura etxean edo kultura.idazkaritza@oinati.net helbidean. Bost saio izango dira, hamar ordu denera, eta 40 euro kostako da –langabeen kasuan materialetarako 15 bakarrik.

Ze egiten ikasiko dute ikastaroan izena ematen dutenek?

Ingelesezko *Do it yourself* horri jarraituz, ikasiko dugu norberak gauzak pertsonalizatzen. Agian, badugu agenda bat, eta haren tapa ez dugu gustuko; ba, beste paper batekin forratuko dugu. Bestalde, berrerabilpena dago: zereal kaxa batzuekin aldizkariak artxibatzea egin, zapatenekin gauzak gordetzeko kaxak...

Dekoraziorako, beraz, bai, baina baita gauza praktikoak ere, egunerokoan erabilgarri direnak.

Bai; agian, baduzu kaxa bat duela hamabost urteko koloreekin, gaur egun eramaten ez direnekin. Paper polit batekin forratuta, apaingarri izaten jarrai dezake. Norberak egitean balio handiagoa du; beraz, oparitarako ere gauza aproposak izaten dira.

Sarri, eroatera jotzen dugu, irudimen apur batekin geuk egin dezakegula konturatu gabe.

Bai, horrela da. Errazena da zerbait falta badugu erostea. Gero konturatzen gara ze simplea den sortzea; kontuan izanda, gainera, gaur egun dena datorrela kaxetan –eta bilduta, horiek erabiltzea. Irudimena lantzeko egokia da.

Sormena, dena den, ez da irakats daitekeen zerbait, berezkoa behar du, ala?



Irati Ugarte. | IRATI UGARTE

"Gustuko ez dugun tapa duen agenda bati paper polit bat jar diezaiogeku"

Bai. Horregatik, alde batetik, ez zait askorik gustatzen *ikastaro* hitza. Ni ez noa ezer irakastera. Tailer bat izango da, gauza desberdinak egingo ditugu, partekatuko ditugu ideiak eta azalduko ditut, nireak edo Interneten iku-

"Kola, guraizeak, kuterra, papera... erabiliko ditugu, edonorentzat da"

sitakoak, adibidez. Arratsaldea pasatu eta handik gauza polit batzuekin irtetea da asmoa. **Gauza errazak izango dira, beraz.** Bai, bai. Kola, guraizeak, kuterra, papera, oihalak... erabiliko ditugu. Edonorentzat da.

Txotx egingo dute gaztetxean hilaren 15ean

J.I. | OÑATI

Herriko sagardoa dastatzeko aukera egongo da hurrengo zapatuan gaztetxean. Bazkaria egingo dute –15:00etarako jarri dute ordua–, eta sagardoarekin batera ondorengo izango da menua: txistorra, txerri txuleta, bakailao tortilla, gazta eta intxaurrak. 15 euroren truke eman daiteke izena –gaztetxean bertan– bazkari-rako, eta antolakuntzatik aholkatu dute denboraz ibiltzeko, lekua mugatua delako: "Animatu eta ez geratu leku barik", diote bidalitako oharrean.

Kintoak, oraingoan, auzotik auzora

Santa Ageda egun aurreko eta osteko asteburuetan ohi legez, joandakoan bezala oraingoan ere herrian ibiliko dira kintoak, kantuan eta eskean. Kalerik kale ibili ziren aurreko domekan neska zein mutil, soinu eta makilak lagun, eta auzoetan ibiliko dira bihar, zapatua. 1996ko kintoak dira aurtengoak.



JOSETXO ARANTZABAL

Aloñako atletismo saila bigarren, Euskadiko kros motzean

I.G. | OÑATI

Aloña Mendiko atletismo saileko korrikalariak emaitza bikainak lortu zituzten domekan Amurrion jokatu zen Euskadiko Kros Motzeko Txapelketan. Senior eta beterano mailetako txapelketa izan zen.

Taldeka bigarren

Aloña Mendiko korrikalariak bigarren postua lortu zuten taldeka. Horrenbestez, Espainiako txapelketan lehiatzeko sailkatu ziren oñatiarrak. Izan ere, lehen postuan iritsi zen taldea marokoarrek osatzen zuten. Martxoaren 2an jokatu da Espainiako norgehiagoka hori Oropesa del Marren.

Sergio Gartzia, onena

Bestalde, lan indibidualari dagokionez, Sergio Gartzia izan zen oñatiarren artean azkarrena. Laugarren postuan helmugaratu zen, baina kaxara igotzeko aukera izan zuen, kasu horretan ere, bigarren postuan iritsi zen korrikalaria marokoarra izan zen-eta.

Amurrion ordezkari zabalak izan zuten oñatiarrak. Hemen sailkapena: Alberto Revuelta (7.a), Tasio Gomez (16.a), Yeray Varela (19.a), Unai Hernandez (21.a), Kike Cecilia (25.a) eta Andoni Correas (61.a).

Beteranoetan ere fin ibili ziren oñatiarrak. Jose Luis Gartzia garaipena lortu zuen V-55

mailan. Kategoria berean Ramon Varela hirugarren helmugaratu zen. Emakumezkoetan, berriz, Mari Sol Ramos bigarren izan zen bere kategorian.

Oso zirkuitu gogorra izan zela adierazi du Yeray Valera korrikalariak: "Bihurgune asko zituen ibilbideak eta lokatz asko zegoen. Horrek asko zaildu zuen lasterketa. Gainera, motza zen eta itzuli dezente egin behar ziren. Ausartentzako zirkuitua zela esan daiteke". Hala ere, emaitza onak lortu zituzten txantxikuarrek.

Kros luzeko lehia domekan

Domekan, berriz, Euskadiko Kros Luzeko Txapelketa jokatu da Laudion, Ellakuriko zelaietan. Kadete mailako gizonzkoek 09:45ean ekingo diote lehiari; azkenak senior mailako emakumeak izango dira, 13:10ean.

Eskubaloiko gazte mailako neskak, Euskal Ligara

Joan den asteburuan jokatu zuten igoera fasea Erreterian; jokatuak bi lehiak irabazi zituzten

IRATI GOITIA | OÑATI

"Oso pozik gaude lortutakoarekin", adierazi du Jon Ander Osinagak, Aloña Mendiko eskubaloiko saileko gazte mailako nesken entrenatzaileetako batek. Badituzte pozik izateko arrazoiak. Izan ere, Gipuzkoa mailako txapelketatik Euskal Ligara igotzea lortu du taldeak. "Denboraldi hasieran ez genuen pentsatzen igoera fasea jokatu genuenik, baina aurrera egin ahala eta goian jarraitzen gurela ikusita, sinesten hasi ginen".

Igoera fasea

Asteburuan jokatu zuten igoera fasea Erreterian. Bizkaiko talde bat eta Gipuzkoako bi aritu ziren nor baino nor gehiago, Euskal Ligara igotzeko txartela lortu nahian (Urdaibai, Ereintza eta Aloña Mendi).

Bi partidu jokatu eta biak irabazi zituzten oñatiarrak. Lehen Ereintzaren aurka jokatu zuten, 22-20 nagusitu ziren. "Oso ondo hasi genuen norgehiagoka eta irabazten joan ginen denbora

guztitan. Amaieran, baina, nahiko larri ibili ginen. Azken minutuetan ez ginen fin ibili erasoan eta hainbat jokalarik kanporatuak izan ziren, asko igarri genuen hori defentsan", dio Osinagak. Bigarren lehia askoz konplikatua izan zela esan du: "Partida amaitzeko hamar minutu falta zirenean hasi ginen norgehiagokari buelta ematen, ordu arte galtzen joan ginen. Erasoan hobeto jokatzeko hasi ginen eta gure atezainak -Olatz Anduagadena gelditu zuen". Bi lehiak irabazita, igoera lortu zuten oñatiarrak eta "oso pozik" daude lortutakoarekin.

Euskal Liga

Beraz, Euskal Ligan jokatu dute aurrerantzean. Lehen partidua hilaren 15-16ko asteburuan izango dute. "Ez dakit nola moldatuko garen maila berrian, baina, igoera lortuta, oso motibatuta gaude. Hala ere, zaila izango da ligako txapelketa izatea, oso talde onak daude."



Aloña Mendiko gazte mailako neska. | IBIS UGARTE


Aurreztu.com
Debagoieneko eskaintza onenak

Debagoieneko eskaintza onenak Aurreztu.com-en dituzu.
 Ezagut itzazu eskaintza hauek eta beste batzuk Aurreztu.com webgunean!

LILURA ESTETIKA ZENTROA
Besape eta izartearen laser depilazioa

292€

LEHEN:	DESKONTUA:
448€	% 35



BEGIRA ARGAZKILARITZA
Bikotekidearekin estudioko argazkiak

27€

LEHEN:	DESKONTUA:
45€	% 40



GERTU JANARIAK
Lagunekin edo familiarekin gozatzeko moduko menua!

15€

LEHEN:	DESKONTUA:
22€	% 32



GOROSTI LORADENDA
Opari egizu San Valentin perfektua izateko lore-sorta

29€

LEHEN:	DESKONTUA:
49€	% 41



Negozio baten jabea zara eta Aurreztu.com-en agertu nahi duzu?
 Jarri gurekin harremanetan: 943 25 05 05



Beteranoek zazpigarren jardunaldia jokatu dute asteburu honetan

Herriko Futbol Txapelketak aurrera jarraitzen du eta zazpigarren jardunaldia jokatu dute asteburu honetan betaranoek. A taldearen txanda izango da oraingoan. Taldeko liderak, Kili-Kolok, Bundeswehr taldearen aurka jokatu du zapatuan, 18:30ean. Haien aurretik, Albok eta Dollygan's arituko dira nor baino nor gehiago, 14:00etan. Hirugarren eta laugarren postuetan daude, hurrenez hurren; lehia polita izango da. Azkenik, Paketinaikosek eta Zorroberok neurtuko dituzte indarrak, 20:00etan. Indar 85 eta Xaguxar taldeen arteko partidua atzeratu egin da, Azkoagaingo ordutegia beteta dagoelako.

Azken sailkatuaren etxean jokatu du bihar Natra-Oñatik

Natra-Oñati taldeak etxetik kanpo jokatu du asteburu honetan. Sailkapeneko azkenaren etxera joango da, Leioara. Norghegiagoka zapatuan izango da, 16:30ean. "Lehen itzulian, hasieran kostatu zitzaigun arren, erraz nagusitu ginen; 30 puntuko aldeaz irabazi genuen. Oraingoan, baina, zailagoa izango da; izan ere, ezagutzen dute gure jokoa. Hala ere, ez dut uste irabazteko arazorik izango dugunik", adierazi du Zuhaitz Gonzalez entrenatzaileak. Azken lehia irabaztetik dator Natra. "Hiru norghegiagoka galtzetik gentozen eta irabazteak on egin digu. Taldeak gogoa berreskuratu du".

Gazteentzako sexu eta genero aholkularitza

Udalak abiatu du eta kultura etxean egingo dira saioak; baita 'on line' ere

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Gazteek euren sexualitatearen inguruan dituzten zalantza eta egoera ezberdinak kudeatu eta argitzeko espazio bat eskaini nahi izan du Udalak. Horretarako, *Biluzik mundura* zerbitzua martxan jarri dute Ongizate Sailetik.

Zerbitzu hori sexualitate eta generoaren inguruko informazio, aholkularitza, detekzio, deribazio eta laguntza zerbitzu bat da eta helburu nagusia da gazteei sexua-

litatea era positiboan bizi izateko behar dituzten baliabideak eskaintzea.

Gazteen gertukoentzat ere bai Nahiz eta zerbitzua gazteei zuzenduta egon, gazteekin kontaktuan dagoen edozein pertsona -fami-liakoak, irakasleak, hezitzaileak...- gerturatu daiteke zerbitzura aholku eske.

Horrez gain, *on line* bidea ere erabiliko da eta horretarako hiru bide daude: e-postaz *biluzikzer-*

DATUA

1

EGUN

Hilean behin eskainiko da zerbitzua modu presentzian kultura etxean. Hileko lehen eguaztenetan, 17:30etik 19:30era.

bitzua@hotmail.com helbidera idatzita eta Tuenti -*Biluzik Zerbitzua*- eta Twitter -*@BiluzikMundura*- bidez.

Hilean behin emango da

Zerbitzu hori, besteak beste, eskoletan lantzen den heziketa afektibo sexuala eta gazteen artean genero indarkeriari aurre egiteko programen osagarria da, eta Lahia-Nahia sexologia elkar-teak emango du.

Zerbitzua hilean behin eskainiko da modu presentzian kultura etxean: "Ez dago txandarik hartu beharrik, etorri eta listo!", azpimarratu dute Udaletik.

Hileko lehen eguaztenetan izango da hitzordua, 17:30etik 19:30era, kultura etxeko bigarren solairuan. Lehenengo saioa asteon izan da eta hurrengo, berriz, martxoaren 5ean izango da.

Berbaldia Kataluniaz, Gure Esku Dagok deituta

M.B. | BERGARA

Herriko Gure Esku Dago dinamika antolatuta, mahai-ingurua egongo da datorren eguaztenean, hilaren 12an, 19:00etan, Irizar jauregian.

1714-2014: 300 urte ostean Katalunia bidegurutzan delako gaiaren gaineko azalpenak emango dituzte gurean bizi diren edo bizi izan diren hiru katalanek: Miquel Beneit-ek, Gizarte Langintzan diplomatutako irakasleak; Jordi Ferrons-ek, Fisikan lizentziatutako irakasleak; eta Josu Tornayk, Historian lizentziadun eta Asmblea Nacional de Catalunya kideak.

Bestalde, gaur, egubakoitza, *Gazta zati bat* dokumentala eskainiko du Gure Esku Dago ekimenak. Interesa duten guztiak 18:30ean joan daitezke Irizarrera.

Herriko auzipetuekin tertulia egongo da gaur gaztetxean

Ernai gazte antolakundeak antolatu du eta luntxa ere egongo da. 20:00etan izango da, kartzela zaharrean. Aurretik, 19:00etan, Gazte Asanbladaren asteroko batzarra egongo da gaztetxean. Bestalde, Gazte Asanbladak gogora ekarri du hilaren 12an, 21:30ean, gitarra ikastaroa dagoela.

Ndiaye senegaldarra gogoan

Mbaye Ndiaye senegaldarra gaur duela urtebete hil zela izango du gogoan Ndand Ndank elkarteak ekitaldi batekin. Gaur, barikua, Enekora taldeak kontzertua egingo du, 20:00etan, Soroluzeko antzokian. Kale-saltzailea Eibarren bizi zen arren, oso ezaguna zen bailaran.



NDANK NDANK

PREZIOAK

HANKAZ GORA

JARTZEN DITUGU

OBRA BERRIA BUKATUTA "SAN LORENTZON"

Informazioa eta salmenta

943 424 430 • 637 726 522

Ormak

www.ormak.es



Euskal mitologiako pertsonaiak itzalen bidez irudikatuta. | A-TEATRAL

Itzalak baliatuz euskal mitologiako istorioak

'Sutondoan' lana haurrei zuzenduta dago eta A-Teatral taldearen eskutik iritsiko da Bergarara

ZURIÑE V.D.M. | BERGARA

Domeka honetan, otsailak 9, Bilboko A-Teatral taldeak haurrentzako ikuskizun berezia eskainiko du Zabalotegin, 17:00etan hasita. Hain zuzen ere, 3 eta 9 urte bitarteko gaztetxoentzako *Sutondoan* deitutako antzezlanaren taularatuko dute antzerki taldeko kideek eta sarrera 4 euro ordaindu behar da.

Itzalak, musika, kolorea...

Euskal mitologia oinarri duen antzezlanaren da *Sutondoan*. Baina ohiko bideak baliatu barik, modu berezian eszenaratuak lana ere bada talde bizkaitarrak dakarren proposamena. Izan ere, itzalak eta koloreak dira protagonista, baita txotxongioloak, hezur eta haragizko aktoerak eta musika ere. Alor uga-

ri batzen dituen ikuskizuna da, horrenbestez.

Antzezlanean amama bat agertuko da ipuin bat kontatzen. Eta kontakizunean zehar agertzen doazen pertsonaiak itzalen bidez azalduko dira ikus-entzuleen aurrean: erraldoiak daude, baita sorginak, galtzagorriak eta laminak ere.

Familia osoari zuzenduta

Haurrentzako emanaldia izanda, A-Teatral taldeko kideek ikuskizun bizia dela diote. Baina, gainera, helduei begira sortutako lana ere bada, haien esanetan.

Aktoreei dagokienez, berriz, hiru lagun igoko dira domekan Zabalotegiko oholtzara: Maria Ramirez, Maria Guimarey eta Iñaki Mayor; azken hori arratsatearra da.

"Normaltasunez" estreinatu dute hondakin bilketa sistema mistoa

Leire Iruin zinegotziak lehen egun hauetako "balorazio positiboa" egin du

IMANOL GALLEGO | BERGARA

Bergararrek asteon estreinatu dute hondakin batzeko sistema misto berria. Martitzenean merkataria izan ziren sistema berria probatzen lehenak eta gauean gainerako herritarren txanda izan zen. Ingurumen zinegotzi Leire Iruinek balorazio positiboa egin zuen: "Ez da inongo gertakari berezirik izan eta pozik gaude. Egunerokoak erakutsiko digu zer hobe daitekeen".

Sistema, baina, ez da guztien gustukoa, eta, protesta gisa, ontzietan beharrean hondakinak poltsetan atera dituzte esekitokietara zenbait herritarrek.

Poltsak, kuboak beharrean

Bergara Garbiak deitutako protestari eutsiz, herritar batzuek ontzietan beharrean esekitokien alboan poltsetan atera dituzte hondakinak. Iruin zinegotziak, protestarekin bat ez etortzeaz gainera, zera azaldu nahi izan du: "Zoritxarrez, atera dituzten poltsa gehienetan bereiztu gabe-



Ibargari kaleko esekitoki bat sistema berriaren lehen gauean. | JAGOBA DOMINGO

ko zaborra zegoen". Lehen egun hauetan, "errespetuagatik errefusarekin batera beste poltsak ere jasoko dira, nahiz eta hondakinak ontzietan bereizita atera behar diren", dio zinegotziak.

Oraingoan, ordenantza horrela ageri arren, ez da isunik jarri-

ko. Horren aurretik informazio gehiago emango zaio herritarri. "Gai guztiak bereiztu gabe botatzeko garaia amaitu da", azaldu du Iruinek. Hala ere, jendeak sistema berria "nahi duen moduan" erabiltzen jarraitzen badu, ordenantza beteko dute.

Poltsa konpostagarriak

Ontzi marroian jar daitekeen poltsa konpostagarriekin sortutako polemikaren ostean, gobernu taldeak zera argitu nahi du:

"Ez da derrigorrezkoa poltsa konpostagarriak erabiltzea. Erosi aurretik ea balio duten galdetzea gomendatzen dugu; ez baitute denek balio. Herriko hainbat komertziotan salgai daudenean Mankomunitatearen bermea dute eta balio duten segurtasuna dugu. Herriko komertzio guztiei gutun bat bidali zitzaizkien poltsak saltzeko aukera emanez, eta batzuek erakutsi zuten interesa; orain, komertzio gehiago apuntatu dira eta guztiei aukera emango zaie. Zenbat eta leku gehiagotan saldu, orduan eta erosoagoa herritarrentzat".

'Litus' lana ikusteko aukera gaur Ipintza Institutuan (19:30)

Ipintza Institutuko antzerki taldeak *Litus* antzezlanaren eskainiko du gaur institutuan bertan; sarrera 3 euro da. Pello Lezertua zuzendariaren gidaritzapean, zortzi ikasle igoko dira oholtzara. Bere buruaz beste egin aurretik anaiari gutuna idazten dion gaztearen istorioa da.

Martitzenean izango da Gutun Soziala lantzeko lehen bilera

Euskal Herriko Gutun Soziala lantzeko taldeak lehenengo bilera deitu du otsailaren 11rako, martitzena. Migel Altuna Institutuan elkartuko dira, 19:00etan, eta askotariko gaiak landuko dituzte: lanari, jatorri aniztasunari eta parte hartzeari loturiko eskubideak izango dituzte hizpide.

Humberto DJaren saioa gaztetxoentzako bihar, zapatua, Zabalotegin

Urtarrilean bezalaxe, otsailean ere DJ emanaldiak egongo dira zapatuetan, gaztetxoentzako, Zabalotegin. Humberto DJaren txanda izango da bihar, 18:30ean hasita; doako saioa izango da. Hurrengo emanaldia otsailaren 22an izango da, eta, kasu horretan, DJ Amaia Txintxurretak jarriko ditu gazteak dantzan.



MIGUEL ALTUNA INSTITUTUA

San Juan Bosco egun polita

Egun ederra pasatu zuten urtarrilaren 31n Miguel Altuna institutuko ikasleek eta irakasleek; San Juan Bosco ospatu zuten. Mus, partxis eta ping-pong txapelketak egin zituzten eta sari banaketaren ostean eta trikitilarien laguntzarekin txikiteoa egin zuten 150 lagunek. Bazkaldu eta gero, The Teachers eta The Students musika taldeek kontzertua eskaini zuten eta arratsaldea borobiltzeko kalejira egin zuten txarangarekin.

altube Talleres Altube doitasun mekanizazioan eta buru eta elektromandrinoen fabrikazioan/konponketan diharduen enpresa hau behar du bere lantalderako:

CNC TORNURAKO TORNULARIA

(ERREF: 03/14)

Egitokia: FANUC kontrolleko CNC tornuan altzairuzko (eta, neurri txikiagoan, beste material batzuetako) piezak lantzea. Banaka egin behar dira piezak, edo serie oso txikietan. Piezen tamaina (diametroa): 5 eta 300 mm bitartekoak, gutxi gorabehera. Behar besteko ezagutza eta esperientzia izan behar ditu langileak materiala berak ebakitzeko eta piezak fabrikatzeko erabiliko duen tornua programatzeko.

ESKAKIZUNAK:

- Goi-mailako heziketa- zikloa,
- Gubkienez, 5-10 urteko esperientzia (frogagarria) FANUC kontrola duten CNC tornuak programatzen eta erabiltzen eta antzeko eginkizunetan. Baliotsiko da tornu konbentzionaletan eta lantzeko makinatan esperientzia izatea ere.
- GOIZEKO eta ARRATSALDEKO txandetan lan egiteko prest egotea.
- Bergaran edo Bergara inguruan bizitzea.

Ordainsari ona eta kontratu egonkorra eskaintzen dira.

Lehen hautaketan aukeratutako hautagaiak bakarrik erantzun zale, 15 eguneko epean. Ematen diren datuak behar duten konfidentziaz tratatuko dira. Datu Pertsonalik Babesteko 15/1999 Legeak (1999ko abenduaren 13koa) ezartzen dituen inbepideei jarraituz.

Interesa dutenak helbide honetara bidali behar dute curriculum, gailu lanpostuaren erreferentzia jarrita: seleccion@lks.es

LKS **MONDRAGON** www.lks.es

Sugoi

ERLOJUAK, ARTIKULU ELEKTRONIKOAK, KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

Labegaraietako kiroldegia, gimnasia erritmikoaren bilgune

Bihar izango da eta Gipuzkoako txoko ugaritako gimnastak arituko dira

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Gimnasia erritmikoko norgehiagoka egongo da bihar, zapatua, Labegaraietako kiroldegian. Hain zuzen ere, Eskolarteko A maila eta Amateur Txapelketako lehenengo fasearen gune bilakatuko da Bergara. Gipuzkoa osotik bertaratutako taldeak arituko dira; Bergaratik, Arrasatetik, Eibartik, Azkoititik, Tolosatik, Hernanitik, Zarautzik eta Donostiatik, besteak beste.

Goizez eta arratsaldez

Labegaraietako saioak goizean eta arratsaldean izango dira. Hala, erritmikoko taldeek 10:15ean hasiko dute erakustaldia eta hasiberriak, infantilak eta kadeteak arituko dira aurrena lehian. Arratsaldean, oster, gazteen eta seniorren txanda izango da, 17:15ean.

"Ariznoa elkarteko gimnastei dagokienez, bihar hasiberri, infantil, kadete eta gazte mailetakoei hartuko dute parte. Seniorrek, oster, ez". Hala eman du aditzera taldeko Lorea Alberdik.

Dena dela, taldeez gainera, Arianna Burdos, Marianna Nunes, Irati Gardoki eta Irene Azkar-



Ariznoa taldeko gimnasta bat. | ARIZNOA ELKARTEA

gora ere arituko dira; horiek guztiak, bakarka.

"Txapelketaren lehenengo fasea da biharkoa, hiru baitira guztira; batzuek soilik jarraituko dute aurrera". Bada, ikasturte hasiera ez dela izan gura bezain ona azaldu du Alberdik, baina hemendik eta maiatzera bitartean herriko gimnastek asko hobetuko duten zalantzarik ez du.

Datorren astean Arrasaten

Otsailaren 15ean Arrasatera joango dira Bergarako B kategoriako infantil eta hasiberri mailetakoko gimnastak eta benjaminak; Urtarabean egingo den topaketan parte hartuko dute. "Azken horiek ez dute lehiatzeko aukerarik, baina erakustaldi moduan eta epaile aurrean lehenengoz aritzeko aukera bat da".

San Blas jaien azken txanpa asteburuan Buruñao auzoan

Z.V.D.M | BERGARA

Buruñaoko bizilagunek San Blas jaietan murgilduta segitzen dute. Gaur, auzo-afaria egingo dute, 20:30ean hasita. Horren ostean, erromeriaz gozatzeko aukera izango dute.

Biharko, zapatua, 26. Mus Txapelketa antolatuko dute; 16:00etan hasiko da -izen-ematea ordu erdi lehenago egin behar da, 15 euro bikoteko-. Zortzi erregetara jokatu dituzte partidak, eta lau sari egongo direla eman dute aditzera antolatzaileek: garaikurrak eta 120 euro jasoko ditu lehenengo bikoteak, 80 euro bigarrenak, 50 euro hirugarrenak eta sari berezia egongo da laugarren bikotearentzat.

San Blas Txiki domekan

Domekan San Blas Txiki ospatuko dute. 11:00etan etxafuegoak bota ostean, meza nagusia izango dute. Segidan, auzo-elkartera joan eta salda hartuko dute. 11:30ean, oster, Aranzadi Ikastolako Moises Azpiazu dantza taldearen saioa ikusteko aukera egongo da.

Herri kirolak ere antolatu dituzte. Mugertza anaiak aizkolariak dira eta erakustaldi polita eskainiko dute. Jarraian, Landarbide harri-jasotzailea arituko da; azkenik, gazteen txako kukainak egongo dira.

Autobus zerbitzua egongo da Bergaratik ermitara, 10:30ean azokako geltokian; 13:30ean izango da itzulera.



Mugertza anaiak, lanean. | KALBAIXOKOKOFRA DIA

3. fasea hastera goaz! ARETXABAleta

165.000 €-tik aurrera (BEZ kanpo)

- 2 eta 3 logelako etxebizitzak
- Sukalde hornitua
- Trastelekua barne
- Horma-armairua

Iturrizar plaza



Informa zaitez, konpromisorik gabe:

ORTUZAL PROMOCIONES S.L Ibargarai 36 behea - BERGARA

Tel.: 943 79 40 00 - 943 76 11 18 - 619 71 82 78

www.grupoortuibar.com

Hondakinen bilketa sistema eztabaidatu dute

EAJk dio bilketa sistema aldatzen hasi aurretik "zeregin handia" dagoela

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Gaikako hondakin bilketa sistemen gaineko mozioa eztabaidatu zuen udalbatzak astelehenean egindako ezohiko osoko bilkuran. Joan den astean iragarri zuen Udal Gobernuak atez ateko hondakin bilketa sistema jarriko duela abian ekainean, eta EAJko zinegotziak ez datoz bat erabaki horrekin. Hala, mozio bidez hau jakinarazi gura izan zuten: "Eguno bilketa sistema guztiz aldatu aurretik badago zeregina".

Bultzadarik ez

Oraingo sistema aldatzen hasi aurretik lortu gura diren bilketa tasetara iristeko ez dela "behar besteko ahalegina" egin uste dute EAJkoek. "Sentsibilizazio, informazio eta formazio kanpaina eraginkorrek garatu eta bultzatu behar dira. Herritarrek motibatu, erantzule sentitu eta euren borondatez hondakinen kudeaketaren erantzukizunean parte hartzeko", zioen Haritz Solupe zinegotziak.

Lore Martinez Axpe -Ingurumen zinegotzia- ez zen bat etorri horrekin: "2012ko maiatzaz geroz-



Udalbatzako kideak osoko bilkuren aretoko mahaiaren bueltan. | M.A.

tik gabiltza informatzen eta sentsibilizazio kanpainak egiten". Eta hau gaineratu zuen: "Borondate onarekin ez goaz inora, derrigortuta bakarrik lortuko ditugu emaitzak". Gai organikoa jasotzeko bosgarren edukiontzia 2008az gero dagoela gurean aipatu zuen, baina "sei urtean ez dela lortu atez atekoarekin lor daitekeen tasarik".

EAJko zinegotzien iritziz, ez da behar beste bultzatu bosgarren edukiontzi horren erabilera:

"Esperientzia pilotu bezala jaio zen eta hala jarraitzen du". Eta horren adibide jarri zuten bosgarren edukiontziak 23 direla herrian eta berdeak, oster, 86.

Hondakinen kontuari "adarretatik heltzeko" eskatu zieten herritarrek

"Urkulun zabor zuloa?"

Aralarko zinegotziek, oster, Arrasateko konponbidearen alde egin zuten, 9 hilabeteko probaldia %70eko tasak lortzeko bosgarren edukiontziaekin eta errefusa jasotzen duenarekin. Bildukoek erantzun zioten "negoziatzeko gertu" azaldu zirela eta edukiontziei txipa jartzea ere onartu eskatutako moduan, baina Aralarrek ezetza eman ziola azkenean proposatu zitzaizen guztiari. EAJkoak, oster, "maximoekin" joan zirela negoziatzera gaineratu zuen Bilduko Iñigo Louvellik: "Eskatzen zenuten egungo sistema mantentzea eta hortik ez zenuten aldendu gura".

Herritarrek ere elkartu ziren osoko bilkurako aretoan; hondakinen kontuari "adarretatik heltzeko" eskatu zioten EAJri eta Aralarri "Bilduk egin duen moduan", eta alternatiba errealak planteatzeko eskatu. Eta galdetu zieten: "Urkulun zabor zulo bat gura duzue?".

Bada, eztabaida luzearen ostean ez zuten onartu mozioa, Bilduko sei zinegotziek aurka bozkatu zutelako, Aralarko hirurak abstenitu eta EAJko biek bakarrik babestu.

Beste bi mozio

Horrez gain, beste bi mozio aurkeztu zituen Bilduk osoko bilkuran: *Emakumeen autonomiaren eta erabakitze eskubidearen defentsan* bata eta atxiloketen gainekoa bestea. Biak aho batez onartu zituzten.

Odei Vazquez karateko Euskadiko txapelduna


M.A. | ARETXABALETA

Kumite modalitateko 67 kiloz azpiko Euskadiko karate txapelduna da Odei Vazquez gaztea. Joan den zapatuan jokatu zuten txapelketa Gasteizen eta bertan gailendu zitzaizen gainerako aurkariei. Aurretik, urtarrilaren 26an, Gipuzkoako txapelketa eskuratu zuen.

Aste bukaeran Euskadiko selekzioarekin joango da Fadura (Getxo) eta aurrez aurre izango dute estatuko taldea; Europako txapelketa gertatzen dabil hori eta Euskadikoarekin entrenatzera dator.



Vazquez dominarekin. | O. VAZQUEZ



Arrasate

EZ GALDU AUKERA

Aprobetxatu gure salneurriak igo aurretik

(erreserbatu otsailaren 28a baino lehen)

15 etxebizitza **SALDUTA** urtarrilean

saltzeko **AZKEN 30** etxebizitzak

ZURE ETXEBIZITZA SALDU BEHAR DUZU?

Erreserbatu etxebizitza bat eta zurea saldu arte ez dugu eskrituratuko (erreserbatu otsailaren 28a baino lehen)



Tel 943 25 38 21 E-mail info@inmobibai.com

Deba Kalea 3 - 20500 Arrasate (Gipuzkoa) www.inmobibai.com



Ipuin kontalaria Antzuolako herritarren aurrean. | GOIENA

Ipuinak kontatzen ikasteko lau saio egingo dituzte

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Ipuinak zelan kontatu argibideak emateko ikastaroa antolatu du Loramendi Elkarteak. Otsailaren 18an hasiko dute eta lau saio izango dira, martitzenetan guztiak (17:30-19:00). Izena emateko epea dagoeneko zabalik dago; hona bideak: loramendielkartea@gmail.com helbidera idatzita; 685 75 67 29 telefono zenbakira deituta; edo Loramendiren bulegora joanda. Azken eguna otsailaren 14a da. Elkarteak bazkideek 10 euro ordaindu beharko dute eta gainerakoek, 12 euro.

Vanessa Gonzalez arrasatearrek gidatuko du ikastaro hori, umeei eskarmentu handia

duen gazteak, eta ipuinak kontatzerakoan –batez ere umeei– jakin beharreko pauso eta gako guztiak irakatsiko dizkie bertaratutakoek.

Bertso afarirako sarrerarik ez

Bestalde, otsailaren 14an, egubakoitza, bertso afaria izango da Hibi-Gain elkartearen, Loramendik eta Lekaixoka bertso eskolak antolatuta. Afari horretarako sarrerak dagoeneko agortu direla jakinarazi dute Loramendiko kideek.

Alaia Martin eta Unai Iturriaga bertsolari ezagunak izango dituzte lagun bertaratuko diren 80 bat herritarrek.

'Laborategia' dantza ikuskizuna gaur, Jaiki elkartearen eskutik

Jaiki elkarteak *Laborategia* dantza ikuskizuna eskainiko du gaur, egubakoitza, Arkupe kultura etxean (19:00). Sarre-
ra, debalde.

Jaikiko kideek herritar guztiak gonbidatu gura dituzte dantza ikuskizun horretara, beste espresio bide batzuk ezagutu eta ondo pasatzeko aukera paregabea dutelakoan. Izan ere, eskarmentu handia dute dantza, kontakt eta inprobisazio kontuetan Jaikikoek, eta beti dituzte elkarteak atek zabalik antolatutako ikastaroetarako.

'Asier eta biok' filma emango dute Arkupen aste bukaeran

Aitor Merino eta haren arreba Amaia Merino donostiarrek zuzendutako dokumentala da *Asier eta biok* (93 minutu). Egun atxilotuta dagoen Asier Aranguren eta Aitor Merinoren arteko adiskidetasuna du ardatz filmak. Arkupen emango dute gaur eta bihar (22:00), domekan (19:30) eta astelehenean (16:00).

Bada, umeei ere euskaraz izango dute filma bihar eta etzi, 17:00etan: *Ernest & Celestine* (marrazki bizidunak, 80 minutu).

EMAKUMEEN FRONTENIS TXAPELKETA

Giro onean jarraitzen du txapelketak

BIGARREN JARDUNALDIKO EMAITZAK

Marina Garmendia - Ane Benito / Marijo Bastardo - Oihana Irazu	25-20
Lore Martinez - Rosa Ojuel / Maider Osa - Idoia Elkoro	25-18
Ane Miren Zabala - Olatz Manuel / Ainhoa Galfarsoro - Urri Urizar	14-25
Larraitz Iñurrategi - Olatz Pagaldai / Marina Garmendia - Ane Benito	24-25
Aitziber Kintanilla - Irati Urzelai / Marijo Bastardo - Oihana Irazu	18-25


BIHARKO PARTIDUAK, OTSAILAK 8

09:00 Ane Miren Zabala - Olatz Manuel / Maite Fraile - Maite Otxoa
09:30 Lur Delgado - Lierni Zangitu / Ainhoa Galfarsoro - Urri Urizar
10:00 Lur Delgado - Lierni Zangitu / Maite Fraile - Maite Otxoa
10:30 Lore Martinez - Rosa Ojuel / Dorleta Elkorobarrutia - Ainhoa Gallastegi
11:00 Larraitz Iñurrategi - Olatz Pagaldai / Marijo Bastardo - Oihana Irazu
11:30 Aitziber Kintanilla - Irati Urzelai / Marina Garmendia - Ane Benito
z.g. Leire Valle - Leire Langaran / Mider Osa - Idoia Elkoro



Santa Ageda kantuan eta eskean

Kintoez gain, herritar askok izan dute gogoan Santa Ageda, eta kopia kantuan ibili dira astean. Bezperan, musika eskolako ikasleak Aretxabaleta Abesbatzakoekin ibili ziren, baita Basotxo erretiratuen elkarteak ere. Eta eguaztenean, Kurtzebarriko eskolako txikienek alaitu zituzten bazterrak (argazkian).



Pausoka
haur eskola

0-3
urte

943 77 03 77
pausoka@euskalnet.net
www.pausoka.eu

Belorrieta 8
20550 Aretxabaleta

Etorri eta ezagutu!

Izen-emate epea: Otsailaren 3tik 14ra

Bulego ordutegia: 09:00-14:00 / 16:00-18:00

zeuria
zeuena
geuria



Aurtengo kintoak Santa Ageda egunean. | ITSASO ALDAI

Santa Ageda ondoren Kinttada Eguna dator

Etzi dantzaldia egingo dute aurtengo kintoek

M.B. | ESKORIATZA

Martitzenean eta eguaztenean Santa Ageda koplak bazter guztietan entzun ziren Eskoriatzan. Bezperan, 07:00etan, plazan elkartu ziren 1996. urtean jaiotakoak, elizateetan kantuan eta eskean ibiltzeko. Taldeka banatu ziren; kinto batzuk Bolibarrera joan ziren eta beste batzuk, berriz, Apotzagara.

Goiza amaitu aurretik herri-ira itzuli ziren eta hango ikaste-axeak bisitatu zituzten. Eta eguerdian indarrak berreskuratu ostean, bisitatu barik zituzten elizateetara igo ziren kinto eskoriatzarrek.

Ohiturari jarraituz, eguaztenean, Santa Ageda egunean,

berriz, kalerik kale ibili ziren kantuan neska-mutilak. Orduan ere taldeka banatu ziren hasieratik. Batzuk Olaeta eta Aranburuzabala aldean ibili ziren eskean, beste batzuk erdialdean eta beste talde bat Intxaurtxueta eta San Pedro auzoetan barrena. Denera, 1996an jaiotako 24 gazte inguru ibili ziren.

Zaharren egoitzara

Esan bezala, goiza abesten pasa ostean, bezperan bezala, Toki Alai jatetxera joan ziren bazkaltzera, eta, lasai egoteko denbora barik, 17:00etan zaharren egoitzara joan ziren han bizi direnei bisita egiteko. Eta betiko moduan, 19:00etan plazan elkartu ziren

azken hilabeteotan horrenbeste bider entseatutako dantzak dantzatzeko.

Kinttada Eguna

Ospakizunak, dena dela, ez ziren Santa Ageda egunarekin amaitu. Etzi, domeka, elkartuko dira ostera dantza egiteko; 19:00etan egingo dute urteroko dantzaldia. Horrez gain, azken urteotako ohiturari jarraituz, Kinttada Eguna egingo dute herriko askotariko adinetako kintoek; orain arte, baina, Santa Ageda aurreko zapatuan ospatu izan dute egun hori. Bada, bihar, zapatua, elkartuko dira herriko kinto asko eta asko elkarte eta jatetxeetako mahai baten bueltan.

OHARRAK

FIELTRO TAILERRA

Asteroko ekintza berezien barruan, gaur eta bihar, fieltro tailerra izango dute herriko gaztelekuan, 17:00etan.

KIROL HITZORDUAK

Saskibaloiko senior mailako norgehiagokarekin hasiko dira partidua oraingo astean. Gaur, egubakoitza, 20:15ean, neskak Atletico SnSn taldearen kontra lehiatuko dira, Manuel Muñoz

kiroldegiko kantxan. Bihar, berriz, areto futboleko hitzordu bi daude: 16:30ean, 1. erregionalean, Eskoriatza eta Bar Babilon taldeek jokatuko dute; eta 18:00etan, Euskal Ligan, etxeok Laskorain tolosarren kontra lehiatuko dira.

ZINE FORUMA

Gaztelekuan, zine foruma egingo dute gazteek etzi, domeka, arratsaldean.



MIRIAN BITERI

Aranburuzabala kalean lanean

Dagoeneko badabilta Aranburuzabala kaleko errepide zatia konpontzen. Martitzenean hasi ziren hura berritzeko lanak, eta, eguraldiak laguntzen badu, datozen egunotan asfaltatuko dute zati hori. Eguaztenean zuloak konpontzen ikusi genituen Razkin enpresako langileak.

Hondakinen gaineko batzarrak daude datorren astean

M.B. | ESKORIATZA

Herri osoan ezarriko den hondakin bilketa sistema berriari buruzko batzar informatiboak deitu dituzte datozen egunotarako Eskoriatzan.

Santa Ana, Eduardo Gorosarri, Olazar, Gaztañadi, Hidalgo, San Juan, Elorreta eta Jose Arana auzo eta kaleetakoek datorren astean izango dituzte bilkurak: otsailaren 11n, 18:30ean, egingo dutena euskaraz izango da; otsailaren 12an, 10:00etako, ele bitan; eta egun berean baina 18:30ean egingo dena, gazteleraz. Ibarraundi museoan izango dira esandako batzarrak.

Agerraldia gaur

Bestalde, sistema horren gaineko azalpenak emateko agerraldia deitu dute gaur goizerako udal ordezkariak.

Torradak eta pellak egiteko ikastaroa dago hilaren 17an

M.B. | ESKORIATZA

Torrada eta pellen sasoian gaude, eta, horren bueltan, ikastaroa antolatu dute otsailaren 17rako. Interesa dutenek hilaren 14a baino lehen eman behar dute izena herriko kultura etxean, eta, horrekin batera, bost euro ordaindu.

Esan bezala, hilaren 17an izango da ikastaroa kultura etxe erretiratuen sukaldean, 18:00etan.

Pertsonalizazio ikastaroa

Bestalde, Amaia Albes diseinatzaileak martxotik apirilerara bitartean arropa pertsonalizatzeko eskainiko duen ikastarorako izen-ematea otsailaren 21ean amaituko da. 25 euroko matrikula ordaindu behar da, eta ziurtagiriarekin kultura etxera joan.



MIRIAN BITERI

Kultura agendarik ez paneletan

Hezetan arazoak dituzte Intxaurtxueta eta Dorleta auzoetan eta Aranburuzabala kalean jarrita dauden kultura agenda panelek, eta, horiek konpondu bitartean, Udaletik jakinarazi dute hitzorduen berririk ez dutela emango. Udaletxean, liburutegian eta kiroldegiko paneletan izango dute eskoriatzarrek otsaileko egitaraua; horrez gain, etxerik etxe ere banatzen dabilta egunotan eskuorriak.

Bigarren eskuko mozorroen azoka egingo dute gaur

Hezkuntza Foroak antolatuta, gaur, egubakoitza, bigarren eskuko mozorroen azoka izango da, 17:30ean, plazan. Mozorroen saleros-teaz gain, umeendako ekintzak ere izango dira toki berean: hain justu, torrada tailerra, Aratusteetako dantza eta gura dutenendako aurpegia margotzeko aukera ere egingo da.

Umeendako uretako parkea dago etzi herriko igerilekuan

Etzi, domeka, uretako parkea jarriko dute herriko kiroldegiko igerilekuan. Oraingoan ez da ordutegi banaketarik eta 16:00etatik 19:00etara irekita egingo da gura duen edozein umerendako. Prezioari dagokionez, kiroldegiko bazkideendako bi euro balioko du sarrerak eta gainera koendako, berriz, hiru euro.

'Ontziratu zaitez' kanpaina martxan da gaurtik aurrera

'Tupper' bidez erosketak egiteko kanpaina berria da eta sei hilabete iraungo du

ANE ETXEBERRIA | ANTZUOLA

Udalak eta Kutxa Ekogunea bultzatuta, erosketak plastikozko poltsetan edo paperetan bilduta barik jangaiak etxera tuperretan eramatea sustatzeko ekimena da. Familia bakoitzak ontzi bana jaso du atzo eta gaur artean udaletxeko arkupeetan. Kanpainak sei hilabete iraungo du.

Kanpaina aurrera ateratzeko, Kutxa Ekogunea eta Antzuolako Udala, lehenik, dendariekin izan dira. "Eskertzekoa da agertu duten jarrera eta borondate ona", adierazi dute bi erakundeetatik. Kanpainak irauten duen sei hilabeteetan, herriko bi dendatan -Jaione arrandegia eta Kalebarren denda- erosketak egiteko ontzi berrerabilgarriak erabiltzen dituztenek zozketa berezietarako txartelak lortuko dituzte: "Hilean behin, bi denda horietan 20 euro balio duten produktuen zozketa egingo dute. Txarteletan, zein dendatakoak diren idatzita egongo da; beraz, ez dago galbiderik: zenbakia eta denda bat badatoz, hileko irabazlea nor den jakingo da", argitu zuen Otazuk.

Ontziratu zaitez! kanpainarekin, produktu freskoak erosten direnean sortzen diren hondakinak murrizten lagundu nahi da. "Erosketa hauek egiterakoan hondakin kopuru handia sortzen da, produktu hauek paperean biltzeaz gain, plastikozko poltsa batean edo bitan sartzen baitira ondoren, eta bizitza oso laburreko materialak dira", adierazi zuen Amaia Otazuk, Kutxa Ekoguneako arduradunak.

Kanpainaren lorpenak

Ekimen horrekin, hiru lorpen egiten direla adierazi zuten kanpainako bultzatzaileek: "Alde batetik, erosketak egitea eroso-



Amaia Otazo, Kutxa Ekogunea-koa, eta Inma Beristain, alkatea. | JON BEREZIBAR

goa izango da; bestetik, saltokientzako kostua murriztu egingo da; eta azkenik, lehengai gutxiago gastatuko denez, ingurumenarentzat eta, beraz, guztiontzat, positiboa izango da".

Familia bakoitzari tuper bana eman zaio, berde kolorekoa. Guztira, 520 banatuko dira, baina, hala ere, tuper urdin bat ere egongo da dendetan. Hala, erosketak egiterakoan tuperra ahaztuz gero, urdina etxera eraman eta gero berriz dendara itzuliz, erabilpena erraztuko da.

DATUA

520

TUPER

Herritarren artean 520 tuper banatuko dira, guztira. Berde kolorekoak dira eta, duten tamainagatik, erosoak dira.

Antzuola kanpaina horretan parte hartzen duen 28. udalerrria da. Debagoienean, baina, ez da bakarra, Elgetan ere parte hartzen baitute.

Kutxa Ekogunea

Kutxa Ekoguneak 2011ko maiatzean **Ontziratu zaitez** kanpaina Hernanin martxan jarri zuenetik, egitasmoa Gipuzkoako 28 herritara zabaldu da. "Ordutik, bi urte igaro dira; herritarrek ontzien erabilera barneratu dute eta ingurumena kaltetzen duen hondakin kopurua murrizten ari da", adierazi zuen Amaia Otazuk, Kutxa Ekoguneako arduradunak.

Kutxa Ekogunea Kutxaren Gizarte Ekintzatik bultzatutako proiektua da, eta, Gipuzkoako errealitate sozial, kultural eta ekonomikoari lotuta, iraunkortasunaren kulturaren sentsibilizazio eta dinamizazioan eta ingurumenarekiko errespetuan proiektu interesgarrienetako bat bezala aurkezten da. Kutxa Ekogunea proiektu irekia eta parte-hartzailea da.

Mireia Alberdi | Nutrizionista

"Jatorduetan, pazientzia, eredu izatea eta umorea beharrezkoak dira"

Haurren elikadurari buruzko hitzaldia egingo du martitzenean, Olananen, 17:30ean hasita

A.E | ANTZUOLA

Mireia Alberdi nutricionistak hitzaldia egingo du Olananen 0-8 urte bitarteko umeen elikadura, *denon jolasa* izenburuean. Kikirixo Txiki-txoko taldeak antolatuta du solasaldia.

Haurrak gaizki elikatzen dira?

Gaizki hitza, agian, ez da egokiena. Eta gai batzuetan orokortzea ere ez da egokia. Baina gaur egun sumatzen da umeen elikaduran badaudela akatsak. Batzuetan larriagoak eta beste batzuetan ez horrenbeste. Nork onartu nahi du bere umea ez duela ondo elikatzen?

Zein da dieta aproposena?

Ahalik eta gutxien manipulatuak jakiak erabiltzea komeni da. Beraz, bertako eta garaiak jakiak erabili eta etxean prestatu, 4, 5 edo 6 jatorduetan banatuta. Barazkiak, frutak, lekaleak eta zereal integraletan oinarritutako elikadura. Ez ahaztu, fruitu lehorrak (frijitu gabeak) eta koipe gutxiko esnekiak. Animalia jatorrizko jakiak gutxitu, gehiegi jaten ditugu azkenaldian...

Kantitateak ere zalantzak sortzen ditu; zein da kopuru onena?

Kopuru konkretu batzuk ematea zaila da, orokorrean. Ume bakoitzak oso behar desberdinak izan ditzake...

Askotan, jatorduak eramanezin bihurtzen dira guraso askorentzat; zer gomendatuko zenieke?

Pazientzia, eredu izatea (umeei barazkiak ipini eta gu arroza jateak ez du balio), umore ona eta eurak txikiak zireneko garaiak gogoratzea. Batzuen ustez, inoiz ez da derrigortu behar. Baina noski, plater bat



Mireia Alberdi nutricionista. | GOIENA

ez badu jaten (goserik ez duelako, gustuko ez duelako...), ez da komeni beste zerbait eskaintzea horren ordez. Behin jaten ez badu ez zaio ezer gertatuko. Gero, agian, badira beste kasu batzuk gurasoek esaten dutena: "Ez du deus jaten". Hori horrela den konprobatu behar da, eta, horrela bada, irtenbiderik egokiena bilatu.

Eta gozokiak noiz?

Nire iritzia horretan oso zorrotza da. Eta agian, jende gehienak ez du ulertuko, baina uste dut ez zaiela eman behar. Egia da bizi garen gizarte honetan hori oso zaila dela. Baina guk guraso bezala ez dut uste eman behar diegunik, eta ematen badiegu, ahalik eta litxarkeria gutxien ematen saiatuko gara.

"Oso zorrotza naiz gai honetan: umeei ez zaie gozokirik eman behar"

Ikurrinak balkoian jartzearen aldeko kanpainaren gainean alkateak bidalitako mezua

"Espainiako banderaren ezarpena zela eta, gurea dena aldarrikatuz urtarrilean zehar etxeetako balkoietan ikurrina ezartzeko dei egin genuen. Ikurrinaz josia eduki dugu herria azken hilabeteetan, eta, modu honetan, Espainiako banderaren ezarpen derrigortuari aurkakotasun garbia erakutsi diogu. Gogorazi nahi dugu, urtarrilaren 10eko ekitaldian adierazi bezala, gure herria sortzen, alorrez alor, auzolanean, egindako pauso bakoitza dela ikurrinari egin geniezaiokeen omenaldirik onena".

San Blas eta Santa Ageda aste barruan izan badira ere, asteburuan ospatuko dituzte hainbat auzotan

Zapatuan San Blas eguna ospatuko dute Basalde auzoko San Blas ermitan. Urtero legez, bazkaria egingo dute auzotarrek eztauriko mina ez izateko eskaera mezan egin eta gero. Domekan, aldiz, Galartza auzoan ere ospakizuna izango dute; izan ere, Santa Agedaren omenez auzotarrak eta herritarrek batuko dira. Han ere, Santa Ageda ermitan meza izango da eta ondoren, gerturatutako guztiek hamaiketako goxoz batez gozatzeko aukera izango dute. Beraz, asteburuan ere egongo da zer ospatu.



ANE ETXEBERRIA

Kaleak kantuz girotu zituzten

Santa Ageda bezperan, urteroko ohiturari jarraituz, kintoak baserri baserri eta auzoz auzo kantari ibili ziren goizean goizetik. Abestiak diogen moduan, *eztarriz sano gabiltza eta kantatu nahi dugu gogoz* aintzat hartu eta egun osoan jardun zuten kantari. Anelkarko kideek ere ez zuten hutsik egin, eta Santa Agedaren omenezko koplekin girotu zituzten herriko kaleak. Bada, bildutako dirua Senegalera eta Kongora bidaliko dute.

ARAMAIO

Aurrekontua auzorik auzo azaldu, herritarren iradokizunei zabalik

Martxoaren 5ean egingo dute udal aurrekontua onartzeko osoko bilkura

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

2014ko udal aurrekontua onartzeko ezohiko osoko bilkura egingo du udalbatzak martxoaren 5ean. Urtarrilaren 30eko osoko bilkuran aurrekontua luzatzea aho batez onartu ostean, Udaleko ordezkariak eguaztenean hasi ziren auzoz auzo aurrekontuaren zirriborroa aurkeztu eta auzotarren iradokizunak batzen.

Aurten ere herritarren parte-hartze zuzena sustatu gura dute proposamena Ogasun batzordea –otsailaren 26an– eraman aurretik.

"Estu ibiliko gara"

Ramon Ajuria alkateak aurreratu duenez, iaz baino diru kopuru txikiagoa izango du Udalak aurten Aramaio kudeatzeko: "Guretako diru sarrera nagusia den FOFEL [Diputazioaren ekarpena] delakoaren gainean ez dugu datu zehatzik jaso eta modu probisionalean ibili gara lanean".

Ajuriak aitortu du aurrekontuaren zirriborroa prestatzea "oso lan zaila" izan dela: "Aurten bereziki zaila izan da kontuak koardatzea, burukomin handia izan da. Iaz bagenuen marjina bat

AURREKONTUAK: KRONOGRAMA

Otsailaren 8a, zapatua:

Zabolako elkartean, 11:00etan. Biler, Barajuen, Azkoaga, Zabola eta Altzagako auzotarrei zuzenduta.

Otsailaren 10a, astelehena:

Etxaguengo elkartean, 18:30ean. Biler, Etxaguen, Gantzaga eta Arragako auzotarrei zuzenduta.

Otsailaren 11, martitzena:

Untzillako elkartean, 18:30ean. Biler, Suña eta Untzillako auzotarrei zuzenduta.

Otsailaren 12a, eguaztena:

Oletako elkartean, 18:30ean. Biler, Oletako auzotarrei zuzenduta.

Otsailaren 15a, zapatua:

Udaletxeko osoko bilkuren aretoan, 11:00etan.

Biler, Ibarra, Eguzkierripa, Matxin kale eta Zalgoko auzotarrendako.

Otsailaren 22a, zapatua:

Herri batzarra udaletxeko osoko bilkuren aretoan, 11:00etan.

Martxoaren 5a, eguaztena:

Ezohiko osoko bilkura, 18:30ean.

dirua bideratzeko, baina aurten murrizketa handia jaso dugu, estu ibiliko gara". Alkatearen arabera, bi milioi euro inguruan ibiliko da 2014ko aurrekontua, eta herritarrek izango dute aukera informazioa jaso eta ekarpenak egiteko: "Herritarrei azaldu gura dizkiegu aurrekontuen nondik norakoak. Euren ekarpenak eta oposizioko kideenak kontuan hartuko ditugu; gero, herri batzarrean eztabaidatuko da".

Alkatearen aurkako argitalpena

Bestalde, Aramaio Alkartasunak aurkeztutako mozio bat onartu zuen udalbatzak, EAJren abstentzioarekin. 2013ko abenduaren 13an *Diario de Noticias de Álava* egunkarian alkatearen gaineko albiste baten harira aurkeztu zuten mozioa. Udaleko diru-kontuen gainean Euskal Kontu Publikoen Epaitegiak egindako fiskalizazio txostenaren gaineko albiste argitaratu zuen egunkari horrek. Honakoa esan zuen Jose Ramon Uribe: "Albiste alderdikieratik eta objektibotasun faltatik idatzita zegoen eta Ramon Ajuria alkatea aipatu zuen aurreko legegintzaldian gertatutakoekin nahastu nahian. Berriak anormaltasunak edo arazoak aipatzen zituen –titularrean ere–, txostenak udal kudeaketa ontzat ematen duela ezkutatuta. Larria da hori egitea, bestelako interesak bilatuta eta gezurretan oinarrituta".

Alkateari babesa erakustez gain, mozioa egunkariko zuzendaritzara bidaliko dute.

Liztor asiarra agertuz gero, jarduera protokoloa

J.B. | ARAMAIO

Asiako liztor inbaditzailea –*vespa velutina* da haren izen zientifikoa– ikusiz gero nola jokatu jakiteko jarduera protokoloa atera du Arabako Diputazioak. Habia bat ikusiz gero larrialdietarako telefonora deitzea da egokiena (112). Protokolo guztia Udaleko webgunean kontsulta daiteke: www.aramaio.org.

Vespa velutina-ren Arabako lehen habia Aramaion aurkitu zuten iaz urrian. 2012ko irailean liztor horien presentzia ohartarazi zuen Diputazioak, baina habiarik topatzeke zeuden 2013ra arte. Habiok metro inguruko tamaina izan ohi dute, eta sarrerarako zulo bakarra; suhiltzaileek zulo horretatik pozoia sartu eta erabat ixten dute, liztorrak atera ez daitezten.

Gaur da azken eguna Orixolen eski irteeran izena emateko

Orixol mendizale elkarrekin eski irteera antolatu du otsailaren 14tik 16ra Formigalera. Gaur da izena emateko azken eguna: 3035 0161 28 1611005178 kontu korrante zenbakian sartu behar dira 150 euro –barkideek 140 euro ordaindu behar dituzte–. Iaz 43 lagun elkartu ziren eta antolatzaileek espero dute aurten 25 bat elkartuko direla.

Aramaixo taldeak etxean jokatu du bihar, 19:00etan

Areto futboleko Aramaixo taldeak bolada onari eutsi gura dio bihar etxean sailkapeneko goiko postuetan dagoen Electricidad Jolma taldearen aurka. Aukera ona izango da biharkoa, aramaioarrek talde on baten aurka neurtu beharko dituzte-eta indarrak. Kiroldegian izango da, 19:00etan.



Uribarri elkartean egin zuten lehen bilera, eguaztenean. | ARAMAIOKO UDALA

Udal zerbitzuen gida etxetik etxe banatuko dute

J.B. | ARAMAIO

2012an egin zen herrian pertsona nagusien diagnostikoa eta bertan sumatu zen askok ez zutela ezagutzen egun euren dako dauden zerbitzuak. Bada, hutsune hori betetzeko, Udaleko Ongizate Sailak zerbitzuen gida bat atera du. Gida horretan, intereseko telefonoak, gizarte zerbitzuen ordu-tegiak –Leire Espinosa da erreferentzia pertsona– eta Jaurlearitzaren zein Diputazioaren eskumenak jasotzen dira, besteak beste. Laster banatuko dute etxetik etxe.



San Martin eskola osoa irten zen Santa Ageda eskean

San Martin Eskolako neska-mutikoei esker, ia Aramaio txoko guztietara heldu ziren martitzenean Santa Agedako koplak. Eskola osoa irten zen eskean, goizean; txikienak kalean geratu ziren, eta Lehen Hezkuntzako artean –5 urtetik gorakoak– maila bakoitza auzo batera irten zen. Ia auzo guztietara heldu ziren. Barajuenen ere Santa Ageda bezperan irten ziren; Gantzagan, Uribarrin, Azkoagan eta Zabolari bihar irtengo dira.

LEINTZ GATZAGA

Bertso bazkarirako sarrera guztiak salduta daude dagoeneko

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

70 sarrera atera eta guztiak saldu dituzte astebete pasatu baino lehen. Antolatzaileak orain "negoziatzen" dabilta sarrera gehiago ateratzeko aukerarik izango duten. Baina horrela izanda ere, sarrera horiek dagoeneko eskatuta (salduta) dituztela jakinarazi dute. Laburbilduz, beraz, dagoeneko

ez dago lekurik otsailaren 15ean Soran etxean egingo duten bertso bazkarirako. Edo bestela esanda, izugarritzko arrakasta eskuratu du, beste urte batez, Korrika batzordeak (eta ez Sorginak elkarrekin) joan den astean iragarritako moduan) antolatutako ekimen horrek. Gogora ekartzeko aldera, Amets Arzallus eta Andoni Egaña

bertsolariak protagonista izango dituen bertso bazkaria da Korrika batzordeak antolatu duena.

Angula porra eta guzti

Eta ekimen horren bultzatzaile osagarri izango diren beste bi ere iragarri dituzte: 12:30ean Lutxurdiok trikiti doinuekin girotuko ditu Gatzagako kaleak; txikiteoa egingo dute eta, iaz moduan, aurten ere bazkari aurretik angula porra izango dela iragarri dute. Joan den urtean demaseko arrakasta izan zuen porra horrek.

LEINTZ GATZAGA

Bake epaile kargurako izenemate epea datorren astean bukatuko da

U.M. | LEINTZ GATZAGA

Joan den urtarrilaren 30ean argitaratu zen Gipuzkoako Buletin Ofizialean Leintz Gatzagan bake epaile kargua berri beharra dagoela. Bada, kontuan hartuta behin iragarkia argitaratuta kargu hori hartu gura duenak 15 eguneko epea duela bere burua aurkezteko, horrek esan gura du datorren astean

itxiko dela izen-emate epea. Udaletxean daude bete beharreko inprimakiak.

Interesa duen edozein herritar aurkez daiteke bake epaile izateko. Kontuan hartu beharrekoa da, hori bai, kargua lau urterakoa dela. Eta horretaz aparte, pertsona horrek zenbait baldintza bete beharko dituela. Argibide guztiak, Udalean.

Intxortako gerrateen bigarren errekreaziorako boluntario bila

Antolatzaileek ekimenean parte hartzeko dei egin diete, bereziki, elgetarrei

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Elgetako Udala eta Intxorta 1937 kultur elkarteak hasita daude Intxortako borrokaldien bigarren errekreazioa antolatzeko lanetan. Iaz egin zuten lehenengo aldiz 1937an Intxortako frontean gertatutako borrokaldien errekreazioa. Ekimenak harrera ona eta oihartzun garrantzitsua izan zuen, eta asmoa da jarraipena ematea.

Aurten, apirilaren 27an

2014ko errekreazioak finkatuta dauka data: Pazko Asteko domekan izango da aurten, apirilaren 27an.

Iaz moduan, Intxortako Atearen aurreko aldean, gertaerak jazoak leku berean, egingo da antzezpena. Berrikuntza moduan, eta iaz ez bezala, zelaia erabiltzeko aukera izango dela adierazi dute Udaletik.

Deia, bereziki, elgetarrei

Boluntarioekin egingo dute aurten ere Elgetako errekreazioa. Iaz 70 bat lagunek hartu zuten parte, eta gehienek dagoeneko konfirmatu dute aurtengo parte hartzea.

Helburua, orain, parte-hartze hori handitzea da. "Elgetarrak animatu gura ditugu ekimen honetan parte hartzera. Izena eman dezakete udaletxean eta herriko tabernetan. Baita *dano-*

nartian@elgeta.net helbidera mezua idatzita", adierazi dute Udaletik.

Egun osoko egitaraua

Apirilaren 27rako egun osoko egitaraua gertatzeko asmotan dira antolatzaileak. Berrikuntzak ere izango dira: garrantzi handia izan zuten eraso jo aurretik tropa frankistek egingoak bonbardaketek, eta kanoi berri bat iragarri dute errekreaziorako.

Ferixa Nagusiko jaietarako ekarpenak

Jai batzordea ere hasita dago Ferixa Nagusiko jaiak prestatzen, eta *Egin daiguzen jaixak* ekimena abiarazi dute. "Ideia zaparrada honekin aurtengo jaien egitaraua hobetzea da asmoa", esan dute. Martxoaren 3ra arteko epea ipini dute ekarpenak jasotzeko. Laga proposamenak udaletxeko postontzian, udal webgunean edo @*elgetaherria* zein *danonartian@elgeta.net* kontuetan.



Seigarren mailako neska-mutikoak santa eskean. | MIREN ARGIZI ZEZIAGA

Baserririk baserri ere Santa eskean ibili dira aurten herriko neska-mutikoak

L.Z. | ELGETA

Santa Ageda bezperako ospakizun politak izan ditugu aurten herrian.

Herri Eskolako ehun bat neska-mutiko izan ziren lehenak santa eskera irteten. Baserritar jantziak soinean eta irakasleen eta gurasoen laguntzarekin herriko hainbat tokitan ibili ziren koplak kantuan. Eskolatik 15:00 aldera abiatu, eta Uruburun, San Roke kalean, Salbador

kalean, Torrealdean eta herriko plazan abestu zuten. Nagusien txirula eta makila doinuekin lagunduta hainbat koplak abestu zituzten herritarrendako.

Baserririk baserri

Seigarren mailako neska-mutikoak baserririk baserri ere ibili dira aurten. Larrabil Zezarran eta herrigunean egin zuten Santa eskea. Pozik agertu dira izandako harrerarekin.

NIRE USTEZ

MARI KARMEN LARRAÑAGA



Selektiboak al gara?

Mendi gain honetatik bailaran gertatzen dena entzuten dugu, baina behealdekoek dituzten ekimenekin, proiektuekin zein arazoekin eta buruhausteekin ez dugu zipriztinduak izatea nahi. Aldaketek beldurra sortzen dute, erosoagoa da hondakin guztiak aho handia duen kontenedore berdera nahastuta botatzea.

Bailaran liskarrak, tirabirak izan ondoren irteerak ematen ari zaizkie. Gu noizko? Elgeta izango da bailaran, herri mailan, eztabaida sortu ez den udalerririk bakarra.

Bai, Udalean dauden partiduen artean adostasun batera iritsi ziren, iazko urterako bide-orri

bat aurkeztu zen komunikabideetan, baina aipaturiko epeetan gauzatu ez dena.

Herritarrak hedabideetan entzundakoak eta jasotako papekin soilik ez dira informatzen, ezta konprometitu, ezta ardurak bereganatu ere. Aldiz, martxan ipinitako ekintzak emaitza onak ematen ari dira, bai tuperren erabilera zein konposta egiten. Zoriontzeko moduko jarduerak eta erabiltzaileak ere.

Udalaren pausoak oso geldo doaz, beldurra balu bezala, bakoitzean zerbait gehituz, baina herritarrak igarri gabe sartuz. Aurrera jarraitzeko, garbi adostu behar ditugu pausoak, denok batera helburu berarekin jokatzeko: hondakinak gutxitu, berrerrabili eta birziklatu ondoren zero zaborrerantzerako helburua izan dezagun.

"Udalaren pausoak oso geldo doaz, beldurra balu bezala"

FUTBITOIA

4. JARDUNALDIA.

EMAITZAK

Bandoleira-Etxaon **4-7**

PARTIDUAK

OTSAILAK 7, BARIKUA

20:00 Intxorta's Crew-Txapela

OTSAILAK 8, ZAPATUA

17:00 Nahaste Borraste-Jaitxo

18:00 Gaztiak-Etxaon

OTSAILAK 9, DOMEKA

11:00 Astuan Villa-La Kokotxa



Herri Eskolako umeak plazan koplak abesten. | L.Z.

OHARRAK

MATRIKULAZIOA ESKOLAN

Otsailaren 3tik 14ra zabalik da 2014-2015 ikasturterako aurre-matrikulazio epea Elgetako Herri Eskolan.

IPIUINAK GAUR

Lehenengo saioa gaur, barikua, izango da, 17:20tik 18:00etara, liburutegian. 3 eta 6 urte bitarteko umeendako gomendatu dute saioa.

SASKIBALOIA UMEENTZAT

Gaztetxoendako saskibaloia saio irekia Aitor Gorostizaren eskutik. Gaur, barikua, 18:30etik 19:30era gimnasioan.

KONTZERTUA ESPALIOAN

Bide Ertzean eta Balerdi Balerdi taldeen emanaldia gaur, barikua, Espaloia antzokian. Sarre-ra 8 euro da. Aurretik, 6 euro. [Ikus 32. orria]

MEZA ARANTZETAN

Bihar, zapatua, meza esango du Elgetako parroko Juan Cruz Juaristik Arantzeta auzoko San Blas ermitan. Ospakizuna 12:00etan hasiko da.

'ONTZIRATU ZAITEZ!'

Urtarrileko zenbaki sarituak honakoak dira: Goikoetxe harategia, 1.001; Amagoia arrandegia, 1.399; eta Ugari denda, 187.



Elgetako Udala

www.elgeta.org



Zorionak, Elgeta!

Elgetarron %25ak sortzen dugun hondakin organikoa Elgetan kudeatzen dihardugu.

egin konpostatzaile!

TXIRRINDULARITZA

Zirauna Infisport, ibarrarekin lotura estua duen proiektua

- ▶ Gorka Beloki ziklista ohiak abian jarri duen proiektuan bailarako hiru ziklista daude
- ▶ Otsailaren 27an aurkeztuko dute taldea Gasteizen; erreferente izateko asmoz jaio dira

XABIER URZELAI | ARRASATE

Txirrindularitzako amateur mailak talde berria izango du aurtengo denboraldian, Zirauna Infisport. Berez, talde arabarra izango da, baina Debagoienarekin lotura zuzena duena. Bailarako hiru txirrindularik bertan egoteaz batera, Dorletako Ama taldea euren filiala izango da. Eta gainera, Iñigo Azkarate arrasatearra buru-belarri dabil proiektuan, zuzendarietako bat izango da.

Puntako ziklistekin osatua

Once-Eroski taldean ibili zen Gorka Beloki izango da Zirauna Infisport taldeko arduradun nagusia, eta haren aginduetara lehiatuko dira 18 ziklista, elite eta 23 urtez azpikoen mailan. Euretako asko puntako txirrindulariak dira –Lehendakari Txapelketa irabaztea zer den badakien Imanol Estevez, esaterako– eta ziklista horien artean euren lekua egiteko lanean dihardute Unai Mendikutek (Aretxabaleta, 1990), Alex Aranburuk (Arrasate, 1993) eta Iker Eskibelek (Eskoriatza, 1993).

Kanpanzar Harrobia taldeak emandako txirrindulariak dira hiru horiek, talde horretan ezagutu zuten amateur maila, eta aurten beste aurrerapauso bat egingo dute, aurrekontu eta maila askoz handiagoko talde batera egin dute-eta salto: "Kanpanzar Harrobia oso eskola ona izan da bertan egon diren ziklistendako, eta baita taldean beste ardura batzuk izan ditugunondako ere", diosku Iñigo Azkaratek. "Taldea umila izan da Kanpanzar Harrobia, bailarako ziklistei kategoriatan honetan lehiatzeko aukera emateko asmoz jaio zena, eta hutsune bat bete du. Baina beste pausoa bat egiteko beharra ikusten genuen, eta Gorka Beloki bere kabuz proiektu bat abian jartzeko lanean zebilela jakin genuenean, harekin harremanetan jarri ginen".

Hala, hiru urteko ibilbidearen ostean, amateur mailako Kanpanzar Harrobia desagertu egingo da, eta aurrerantzean Dorle-



Taldekideak, denboraldi-aurrean, Lakua hotelean egindako egonaldian. | IÑIGO AZKARATE



Alex Aranburu, Iker Eskibel eta Unai Mendikute. | IÑIGO AZKARATE

tako Amak harreman estua izango du Zirauna Infisport-ekin: "Gure ziklista gazteendako erreferente izango dena". Azkaratek berak Dorletako Amarekin jarraituko du, harrobiarekin lanean, baina talde arabarrean ere ardurak izango ditu.

Otsailaren 15ean hasiko dira

Belokirekin batera talde berriaren ziklistekin batera lanean izango dira Jose Luis Urdiain eta Iñigo Azkarate bera: "Kilometro askoko urtea izango da", diosku Arrasatekoak, barrez. "Euskalduna eta Lehendakari Txapelketako

lasterketekin batera, besteak beste, Espainiako Kopa ere jokatuko dugu-eta". Horrek esan nahi du Espainian barrena egingo dituzten bederatzita lasterketan izango direla: "Esaterako, otsailaren 23 Badajozera joango naiz taldearekin, Espainiako Kopako lehenengo lasterketara".

Ofizialki, baina, taldeak Iparralden egingo ditu lehenengo kilometroak, hilaren 15ean, L'essor Basque lasterketan. Gipuzkoan, baina, Zumaian egingo dute debuta, otsailaren 22an, Euskaldunako lehen hitzorduan: "Lan handia egiten gabilza, eta lan horren emaitzak errepidean ikusi nahi ditugu. Baina, azkenean, errepideak berak jartzen du nor bere lekuan, eta ikusteko dago taldeak ze maila emango duen. Lasterketak hasten direnean ikusiko dugu zein den tropelan gure lekua. Uste dugu amateur mailako erreferenteetako bat izan gaitzkeela, lasterketak irabazteko gai garela uste dugu, eta horretarako ari gara lanean, baina konpetizioak esango du".

Hasteko, taldeak merezi duen moduko aurkezpenean egingo du hilaren 27an Gasteizen.

MENDI ESKIA

Altitoy proba, Pirinioetako herrikoiena, asteburuan

X.U. | ARRASATE

Oraingo asteburuan egingo dute mendi eskiak Pirineotan duen probarik herrikoiena, Altitoy Ternua. Eta, urtero moduan, bertan izango dira lehiak bailarako eskia-tzaile ugari. Tourmalet eta Luz Ardiden inguruan antolatzaileek bi ibilbide zehaztu dituzte, kategorien arabera, baina, urtero moduan, momentuko eguraldi iragarpenak eta elurraren baldintzak dezentente alda ditzakete hasierako asmoak.

Gaur, dortsalak hartzera

Antolatzaileek gaur bertan banatuko dituzte dortsalak, 17:00ak eta 23:00ak bitartean, Luz-Saint Sauveur-eko igerilekuen ondoan, eta ibilbide guztien eta azken ordukoen azalpenak emango dituzte.

Bihar, zapatua, berriz, 08:30ean A eta B ibilbideko eskia-tzaileak irtengo dira (Superbareges-tik) eta domekan ordu berean irtengo dira, baina orduan Luz Ardidengo eski estaziotik.

Berritasuna, gazteak

Grande Course-ko gainontzeko probetan egiten duten moduan, aurten Altitoy Ternuak gazteen kategoriak ere izango ditu, hori da berritasun nagusia. Hala, gazteak eta kadeteak B ibilbidea bete beharko dute eta bikoteka egingo dute lasterketa.

PILOTA

Eneko Muguruza Soraluze lau t'erdikitik kanpo geratu da

Joan den martitzenean jokatutako kanporaketa ezin izan zuen gainditu pilotari bergararrak. Azken hilabetearen eskuko arazoekin ibili ostean, Muguruzak erraztasun handiak eman zizkion Albaradori (22-8). Datorren martitzenean (19:00) promes mailan Errandoneak eta Etxeberriak jokatuko dute eta nagusietan, Ioldik eta Arrietak.

ESKOLA KIROLA

Beisbolean eta errugbian jardungo dute Bergaran

Bergarako, Antzuolako eta Elgetako gazteendako eskola kirol jardunaldi berezia izango da oraingo asteburuko (egubakoitzean eta zapatuan, Ipintzan), euredako horren ohikoak ez diren kirol jardueretan lehiatuko dira-eta; beisbolean eta errugbian, hain zuzen. Gaur 17:00etan hasiko dituzte beisbol partiduak.

ESANAK

"Lasterketak hasterakoan ikusiko da zein den gure maila"

IÑIGO AZKARATE | ZIRAUNA INFISPORT

Ordezkaritza zabala izango du ibarrak amateur kategorian

Zirauna Infisport taldean ibiliko diren hiru debagoiendarrekin batera, bailaran beste zortzi ziklista izango dira amateur mailan lehiak. Jon Odriozolak zuzenduko duen Gipuzkoa taldean izango dira Eneko Lizarralde bergararra eta Aitor Umerez eta Iñaki Mugertza oñatiarrak. Bestalde, Debabarrena taldean ibiliko dira Lokatzako

harrobiko Jon Rivero –aurten ziklo-krosean nabarmendu da–, Julen Irizar eta Etxabe anaiak. Eta, kategorian ibiltzeko 25 urteko muga baztertuta, Kepa Otxoa arrasatearrak ere jardun ahal izango du, independente moduan. Hala, aipatutako ziklista batzuk Benidormen dira egunotan, prestakuntza zorrotzen.



Bergarako jokalaria Iñigo, Zarautzen kontra jokaturako partiduan. | JA

MENDI LASTERKETAK

Antzuolako 8 Miliak probak, harrera ona atleten artean

X.U. | ARRASATE
Otsailaren 16an egingo dute Antzuolako 8 Miliak lasterketaren bigarren edizioa, eta, antolatzaileen harridurarako, segituan agortu dira korrikariendako plazak: "Ikustekoa izan da, *hegan* egin dute plaza guztiek. Hasieran 200 lagunendako lekua jarri genuen, eta bi egunean agortu ziren plaza guztiak. Beste 60 lagun hartzeko erabakia hartu genuen, eta astelehenean ordu gutxian agortu zen hori ere", adierazi du Aritz Saidik, Kirol zinegotziak.

Horrek esan gura du egunean bertan ez dela izena emateko aukerarik egongo.



Iaz, Irimoko tontorrean. | GOIENA

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

EMAKU. BIGARREN MAILA
Mondra-Osasuna
Zapatua. 17:00. Mojategi.

GAZTEAK, EUSKAL LIGA
Aretxabaleta-Real Union
Domeka. 16:30. Ibarra.

OHOREZKO ERREGIONALA
Ostadar-Antzuola
Zapatua. 15:30. Lasarte.
Bergara-Real Union
Zapatua. 16:00. Bergara.
Hondarribia-Aretxabaleta
Zapatua. 15:45. Ondartza.
Aloña Mendi-Touring
Domeka. 16:30. Azkoaga.

ERREGIONAL PREFERENTEA
Iñitxa-Mondra
Domeka. 16:30. Legazpi.

EMAKUMEZKOAK, IGOERA
Arizmendi-Urola
Zapatua. 15:30. Ibarra.

ARETO FUTBOLA

EUSKADIKO TXAPELKETA
Eskoriatza-Laskorain
Ordua zehaztu gabe.

BIGARREN MAILA
Aretxabaleta-Euskalduna
Zapatua. 11:30. Ibarra.
HIRUGARREN MAILA
Mondrate-Anoeta
Zapatua. 20:00. Iturripe.

ESKUBALOA

LEHENENGO NAZIONALA
Askartza-Ford Mugarri
Zapatua. 19:30. Sakonet.

EUSKADIK. GIZONEZKOAK

Soraluce BKE-Laubide
Domeka. 12:30. Labegarieta.

EUSKADIKO, EMAKUMEZK
Aloña Mendi-Ereintza
Zapatua. 17:30. Zubikoa.

SASKIBALOA

LEHEN NAZIONAL MAILA
Valle de Egues-MU
Zapatua. 18:00. Iturripe.

MAILA AUTONOMIKOAK
Leioa-Natra Oñati
Zapatua. 16:30. Leioa.

SENIOR BIGARREN MAILA
Autobuses Al-Aloña Mendi
Zapatua. 16:00. Orio
Soraluce Bergara-MUA
Domeka. 16:00. Labegarieta

FUTBOLA

Bergarak eta Aloña Mendik taula erdian dauden kontrarioen bisita izango dute

X.U. | ARRASATE
Ligako 21. jardunaldia jokatu dute Ohorezko erregionalean. Mahoneroek (25 puntu) Real Unionen (28) bisita izango dute (zapatua, 16:00); lehia estua Aitor Arrateren mutilendako. Azken boladan Bergarak etxean erakutsi ohi duen nagusitasuna galdu du, eta abenduaren 1eraino egin behar dugu atzera Agorrosingo zaleek etxekoan azken garaipena ikusi zutenetik.

Aloña Mendik (28) ere sailkapenaren erdi inguruan dabilen taldea izango du aurrean etzi, Touring (16:30). Eta, Bergarakoek moduan, oñatiarrek ere etxetik kanpora erakutsi dute aspaldian

bertsiorik onena. Hala, Azkargortaren mutilek ere abenduaren 1ean lortu zuten azkeneko etxean irabaztea.

Antzuola, bosgarren

Adi antzuolarrekin (30), joan den astean 3-0 irabazi ostean dagoeneko bosgarren daude eta sailkapenean; eskerrak kategoriara iritsi berriak diren... Bihar (15:30) Lasarten jokatu dute, sailkapenean seigarren dagoen Ostadarren kontra. Aretxabaleta (27), azkenik, hasi da kontrarioek galdutako errespetua errekupeperaten, aspaldiko salto handiena egin du eta sailkapenean. Hondarribian jokatu dute bihar (15:45).



ARIZMENDI

IGOERA FASEAN BURU-BELARRI Arizmendiko neskek igoera faserako sailkatu dira eta joan den astean 1-1 egin zuten Oreretan. Bihar, zapatua, Urola izango dute kontrario, Ibarra (15:30).

ALMACENES ARRASATE

MERCATUKO MARKARIK ONENAK. Etxetresnetan sekulako eskaintzak!
Orain erosi, eta ordaindu sei hilabeteetan interes barik.

BERMEA 2 URTE

**1000 b/min
6 Kg**

A+ Sailkapen energetikoa

3TS-863 GARBIGAILUA

275 €

BERMEA 2 URTE

**1200 b/min
6 Kg**

A+ Sailkapen energetikoa

3TS-865 GARBIGAILUA

299 €

BERMEA 2 URTE

**1000 b/min
7 Kg**

A+ Sailkapen energetikoa

ZWH-6102PS GARBIGAILUA

299 €

BERMEA 2 URTE

**1200 b/min
7 Kg**

A++ Sailkapen energetikoa

VTO-712D12 GARBIGAILUA

330 €

BERMEA 2 URTE

**1200 b/min
8 Kg**

A+++ Sailkapen energetikoa

DYN-8124 GARBIGAILUA

375 €

BERMEA 2 URTE

**1400 b/min
8 Kg**

A+++ Sailkapen energetikoa

L-73481FL GARBIGAILUA

435 €

BERMEA 2 URTE

**142
x 55
x 60**

A+ Sailkapen energetikoa

CFD-2460 HOZKAILUA

299 €

BERMEA 2 URTE

**187
x 60
x 60**

A+ Sailkapen energetikoa

ZRB-34310 HOZKAILUA

425 €

BERMEA 2 URTE

A+ Sailkapen energetikoa

HOME V-3 ONTZI-GARBIGAILUA

299 €

BERMEA 2 URTE

450 €

440 €

A Sailkapen energetikoa

**EH651FJ17E INDUKZIO PLAKA
HB74AR521E LABEA**

SIEMENS

Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.
Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.
Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3an.

Eskaintza baliagarria akats tipografikorik ez dagoen neurrian.

Kataide poligonoa 3 • Arrasate Tel.: 943 77 13 52 / 943 77 00 34 Faxa: 943 77 13 13

Ordutegia: 09:00-13:00 / 15:00-20:00 ZAPATU GOIZETAN ZABALIK

Europar Batasunaren arautegiak ezartzen duen batz besteko energia kontsumoaren araberako energia aurreztea.

A+ >>> 70%
A >> 45%
B >> 25%

Bertakoa eta sasoikoa

Telebistako programazio berria
Hainbat berritasun otsailean eta martxoan



- ▶ Programazio berria prestatu dugu familia guztiarendako.
- ▶ Protagonistak eta gertaerak bertatik bertara aurkeztuko ditugu.
- ▶ Edukiak, gauzak kontatzeko modua eta itxura, berrituta.

KULTURA

Amaia Artolaren gutuna, onena

- ▶ Amodiozko Gutunen Lehiaketako lehenengo saria irabazi du Amaia Artola tolosarrak
- ▶ Bergarako Jardun euskara elkarteak antolatutako 22. lehiaketa egin da aurten

MIRARI ALTUBE | BERGARA

Begarako Jardun euskara elkarteak antolatutako Amodiozko Gutunen Lehiaketak baditu irabazleak. Amodioa eta euskara ardatz dituen lehiaketaren 22. jardunaldia da aurtengoa, eta eguaztenean elkartu zen epaimahaia erabakia hartzeko. Epaimahai nagusiko kideak izan dira: Jon Suinaga idazlea; Manex Agirre bertsolaria; Miren Narbaiza musikari eta kantaria; eta Iratxe Esnaola 2013ko lehiaketaren irabazlea. Eta erabaki dute gutunik onenaren irabazlea dela Amaia Artola Etxeberria tolosarra; 500 euroko saria jasoko du horrek otsailaren 14an egingo duten ekitaldian.

Ezinezko amodioak

Aurten 65 gutun jaso dituzte, eta epaimahaiko kideek jakinarazi dute ezinezko eta ezkutuko mai-

tasuna izan dela gehien errepikatu den gaia: "Sufrimendu batek idatzitako gutunak". Umorea eta erotismoa, oster, gutxi. Eta gaineratu dute: "Teknologi berriek ere izan dute euren lekua (facebook...). Eta azken lerroa arte nori idazten ari diren ez jakitearen teknika asko landu da".

Amaia Artola irabazleak Alzheimer duela jakinarazi dioten ama batek alabari idatzitako gutun hunkigarria aurkeztu du. "Garaipen ona eta ondo idatzitako gutun borobila, perfektua. Oso intimoa eta amodioaren ikuspegi partikularra lantzen duena", esan dute epaimahaiko kideek.

Bigarren geratu da Barakaldoko Diego Leon, eta epaimahaia jakinarazi du: "Hunkigarria, sentimenduz betetako gutuna. Betiko maitasunen topikoa errepikatu arren, lehenengo pertsona idatzitako gutun orijinal eta sinergiarria". 250 euro jasoko ditu.

Begarar onenaren saria, oster, Uxue Agirrek eskuratu du. Agur gutuna idatzi du horrek: "Amodio estuegia ona ez denaren erabakia adierazten duen gutun ausarta. Barruko sentimenduak adierazteko hizkuntz aberatsa erabilia", diote epaimahaikoek. 150 euro eskuratuko ditu.



Epaimahai gaztea: K. Uribealago, M. San Torcuato, M. Elortza eta A. Eraña. | JARDUN



Epaimahaikoak eta Jardunekoak: I. Esnaola, M.A. Elkoroberezibar, M. Agirre, M. Arizabaleta, M. Narbaiza eta Y. Suinaga. | M. ARREGI

LEHEN SARIA

(...) *Gustatuko litzaidake zuk ahalik eta gutxien irakurri behar izatea baina, benetan behar duzunean eskura izan ezazu. Nahi nuke une zail eta gogorretan eskutitz hau irakurtzea, izan dadila arnasaldi bat, indar ufada edo olatu bat. Eta bete zaitzala, guztiz agortu aurretik, karga ditzala zure pila eta indarrak. Ondotxo dakizu zuk zer pasa dugun lehendik ere etxe honetan amonarekin, badakizu nola bizi izan naizen urte askoan eta ez nuke nahi inondik inora ere zuk berdina pasatzerik. Ez, zuk ez laztantxo.*

Gogoratzen, zenbat ordu pasatzen genituen sukaldeko epelean, amonari kontu egiten, eskolako lanetan, zartagin eta lapikoekin jolasten, kantuan... Gogoratzen, txikia zinenen nola erakutsi zizun amonak puntu egiten? Oraindik hor nonbait gordeta egongo dira zure txikitako orratz eta hariak. Zure izena brodatu zenion aurreko mantala ere (...)

Ainhoa Ortega, gazteen artean

Epaimahai gazteak 26 urtetik beherako gutunak baloratu ditu, eta kideak izan dira Bergarako ikasleak: Maddi Elortza, Karmele Uribealago, Maider San Torcuato eta Ane Eraña. Algortako Ainhoa Ortégaren gutunari eman diote horiek saria; 150 euro.

AMAIA ARTOLA IRABAZLEA

"Nagusien zaintzaileak eskertzeko da"

Psikologoa da eta idazteko zaletasuna du tolosarrak.

Zelan animatu zara lehiaketara aurkeztuta?

Nire lanarekin zerikusia duen istorio bat kontatzeko gogoan nuen —persona nagusiak eta horien zaintzaileak— eta hortik etorri da gutuna. Istorio asko, bizipen asko jasotzen ditugu eta horien berri eman gura nuen; niregatik idatzi dut, baina baita zaintzaile horien-gatik ere.

Gutun berezia da...

Bai; gainera, ez gaude ohitura halakoak irakurtzera. Amak alabari idatzitako esker gutuna da, eta horrekin, indar ufada bat bidali gura nien nagusiak zaintzen dituzten horiei guztiei, egiten duten lana errekonozitu eta eskertu, eta zergatik ez, omenaldi txiki bat egin.

Epaimahaiko kideek esan dute gutun borobila dela, perfektua.

Gehitxo esatea izango da, baina ez noa kontra egitera.

UXUE AGIRRE BERGARAKO ONENA

"Originala izan behar duzu zerbait lortzeko"

20 urte ditu bakarrik baina ez du lehenengoz parte hartu.

Ez zara lehenengoz aurkeztu.

Ez, 16 bat urte nituenean hasi nintzen eta ia urtero bidali izan dut gutuna.

Hortaz, baduzu idazteko zaletasuna.

Bai, astia dudan guztietan saiatzeko naiz idazten. Eta ipuin lehiaketa batzuetara ere aurkeztu izan naiz.

Mutil batek idatzi du gutuna, samurra da mutilaren papera hartzea?

Egia esan, izenarekin hitz jokoa egin gura nuelako bakarrik hartu dut mutil papera.

Agur gutuna da, baina ez ohikoa, eta ausarta dela esan du epaimahaia?

Ez dakit ba... Dagoeneko gai asko landu izan dira eta zerbait lortzeko originala izan behar duzu.

Eta saria espero zenuen?

Ez, sorpresa polita izan da. Hori bai, gustura geratu nintzen egindako lanarekin.

SARITUAK

SARIA	IZENA	HERRIA
Lehen saria	Amaia Artola	Tolosa
Bigarren saria	Diego Leon	Barakaldo
Begarako onenaren saria	Uxue Agirre	Bergara
Gazteen saria	Ainhoa Ortega	Algorta

Gezurrak oinarri dituen lana ekarriko du Glu Gluk Bergarara

'Vamos a contar mentiras toda la vida' ikusgai egongo da Zabalotegin gaur, 22:00ean hasita

Z.V.D.M. | BERGARA

Glu Glu antzerki taldearen eskutik *Vamos a contar mentiras toda la vida* antzezlan ikusteko aukera egongo da gaur, 22:00etan hasita, Bergarako Zabalotegi aretoan.

Oholtza gainean Lander Otaola eta Galder Perez aktoreak izango dira, gezurrak kontatzen. Bien artean sortutako lana da, gainera. Hain zuzen ere, Otaolak berak idatzi du antzezlan eta Perez da zuzendaria.

Antezlan horren bidez, bi aktoreek euren buruari barre egin gura izan diote; haien esanetan, "apur bat biografikoa" ere bada. Horren erakusgarri da obrako pertsonaiek aktoreen izen berdinak dituztela.

Antzezlearen arteko harremana Ikusleek antzerki munduan sartu berri den Lander ezagutuko dute. Hain zuzen ere, telebistatik eta zinematik datorren aktorea da, eta Galderrek gon-

bidatuta iritsiko da antzokira; bada, bertako sekretuak erakutsiko dizkio hark: antzoki bat eta publikoa zer diren, esate baterako.

Baina Lander zinematik datorrenez, *glamour* handiko mundutik, Galderrek uste du hark ere asko erakutsiko diola. Hartu-eman sortuko da orduan, eta nork egin duen lanik garrantzitsuena eta halako lehiak izango dira, esate baterako.

Komedia garrantza

Perezek eta Otaolak gaur gauean Zabalotegin eskainiko duten lana komedia garrantza da, baina ikusi dutenek bere puntu samurra eta tragikoa ere badaukala esaten dute.

Eta aktoreek eurek hone-la azaltzen dute: "*Vamos a contar mentiras toda la vida* hunkitzen duen lana da, zer pentsatu ematen duena, baina, batez ere, barre eragiten duen obra da".

Balerdi Balerdi taldearen abesti ezagun eta ez horren ezagunak Espaloian

Bide Ertzean taldeak ere joko du gaurko emanaldian, 22:30ean hasita

ZURIÑE V.D.M. | ELGETA

Balerdi Balerdi taldekoek eza-gutzen dute Espaloia; duela bi urte inguru igo ziren bertako oholtzara. Bada, gaur gauean esperientzia errepikatuko dute eta sarrerak salgai daude dagoneko -6 euro aurrez, 8 euro leihailan-. "Kontu ugari aldatu dira Balerdi Balerdi; tardean, kideak". Hala eman digu aditzera Toño Murok. Hain zuzen ere, Toñok (abeslaria), Zarak (bateria), Carlosek (baxua) eta Pettik (gitarra) osatzen dute egun taldea.

Errepertorioa moldatu dute

Emanaldi berezia izango da gaurkoa. Izan ere, Petti Balerdi Balerdi sartuta, bi gitarra ditu taldeak, eta orain arteko emanaldiez haratago joateko aukera ematen die. Hain zuzen, Toñok aditzera eman duenez, errepertorioa moldatu egin dute Balerdi Balerdi-koek Petti taldean sartu denetik: "Bi gitarra ditugu orain taldean



Balerdi Balerdi taldeko kideak zuzenean. | IÑAKI ALDATZ

eta horrek joko handiagoa eman digu. Halere, esan behar da gure emanaldietan falta ezin diren abestiak ere baditugula, *Hautsaren Dantza*, esaterako. *Philosophia* izenekoak, osterak, ez genuen aspaldian jotzen eta berreskuratu egin dugu".

Ibilbide luzeko taldea

Balerdi Balerdi sortu zenetik (1990) urte asko pasatu dira. Tardean, etenaldia ere egin dute, "luzea, gainera", Toñoren esanetan. Hasierako eta oraingo taldeak alderatu behar izanez gero, aldeak nabaritzen direla dio abeslariak. "Nabarrienak, orduko taldetik bi bakarrik geratu garelako, Zara eta biok, hain zuzen".

Aldatu ez dena zuzeneko biziak eskaintzeko egiten duten saio-kerak da. Jarraitzaileei dagokienez,

hasira-hasieratik zitzuten zaleetako batzuk oraindik ere izaten jarraitzen dutela eman du aditzera abeslariak. "Jarraitzaile berriarentzat ere bitxia izan daiteke gure musika, gure eskaintza. Nork bere gustuak ditu, baina, gure kantuei dagokienez, ez dugu estilo zehatzik, beti izan gara irekiak eta nahasi egin ditugu: popa, rocka, folka...".

Bide Ertzean bidaia-lagun

Bide Ertzean taldeak ere joko du gaur; lagunak dituzte, gainera, Balerdi Balerdi-koek. "Balerdi Balerdi berriz hasteko zegoenean bultzadatxo bat eman ziguten. Esaterako, *Zeruan* izeneko gure kantuen bertsoa egin zuten; batzuetan haiekin zuzenean jotzen nuen, gainera. Oso garrantzitsuak izan dira guretzat."

LANBIDE HEZIKETAKO ESPERIENTZIAK EZAGUTUZ

"Lanbide Heziketan praktikari ematen zaio garrantzia, gehienbat"

Eider Roak Eraikuntza Proiektuak goi mailako heziketa zikloa egin zuen Arizmendi Ikastolan, eta, alor hori gustuko zuela ikusita, unibertsitatean Arkitektura ikasketak bukatu ditu. Duela gutxi Arizmendira itzuli da, Enplegu Berdea programan parte hartzerako.

Zergatik Lanbide Heziketa?

Eraikuntza arloa gustatzen zait, batez ere interiorismo aldetik, eraikinen barrualdeak eta. Unibertsitatearako sarbide proba batzuk egon ziren eta ezin izan nuen aurrera jarraitu. Orientatzaileek heziketa ziklo honi buruz hitz egin zidaten; bi urtean gai teoriko-praktikoak landuz, epe motzean ikusiko nuela nire mundua ote zen edo ez. Bide hori aukeratu nuen.

Zer azpimarratuko zenuke Lanbide Heziketatik?

Praktikotasuna. Eta teoria jorratzean ere, beti praktikan aurkituko duzunari begira lantzen da.

Zer gustatu zaizu gehien?

Marraketa. Asko praktikatu dugu, gainera, Autocad-en eta.

Lana bilatzea, laneratzea, erraza izan al da Lanbide Heziketarekin?

Ez naiz lan bila hasi, baina ez naiz geratu. Lanbide Heziketatik unibertsitate; karrera amaitu eta hemen lan aukera handirik ez zegoela ikusita, proiektua egitera kanpora joan nintzen, lan egin



eta ingelesa ikastera. Proiektuaren aurkezpena pixka bat atzeratu nuen, eta 2013ko urtarrilean aurkeztu nuen. Ondoren, Arizmendi Ikastolan Enplegu Berdea programan sartu nintzen.

Zein da unibertsitate ikasketen eta Lanbide Heziketaren arteko aldea?

Unibertsitatean teoria asko ematen da; matematika, fisika, kimika, egiturak... Egia da gero eraikuntza alorrean sartzen dela. Lanbide Heziketa praktikoa da, eta norberaren lana benetan zein izango den ikustena da. Gainera, praktikak curriculumean sartu ahal izateak bere pisua du.

Lanbide Heziketa gomendatuko al zenuke?

Bai, batez ere zer ikasi nahi duen ziur ez dakienari. Eramangarria da, bi urtean egiten baita, eta oso praktikoa da. Lana topatzeko ere praktikotasunak erraztasunak ematen eta beste formazio batek bideak irekitzen ditu.



GOIAZ! 2014

Lanbide Heziketaren Azoka
Martxoak 26 eta 27an;
Kulturaren, Arrasaten.



NiNeu / YoMism@ BideoCV
lehiaketa antolatutako dugu.

Pentsatu, grabatu eta bidali
zure bideo curriculum-a!

Informazio guztia:
www.debagoiena.net



www.facebook.com/goiazdebagoiena



www.twitter.com/goiazdebagoiena



DEBAGOIENEN MANKOMUNITATEA



Gipuzkoako Foru Aldundia
Berrikuntza, Landa Garapena
eta Turismoaren Departamentua
Departamento de Innovación,
Desarrollo Rural y Turismo



Arkupen prestatuko du Roger Bernat Konpainiak azken obra asteburuan

Z.V.D.M. | ARETXABALETA

Kataluniako Roger Bernat Konpainiak geldialdia egingo du asteburuan Aretxabaletan. Hain zuzen ere, gaur eta bihar, 19:00etan hasita, maiatzera begira prestatzen ari diren antzezlan baten prestatketa saioak egingo dituzte. Konpainiatik aditzera eman duteenez, "saio itxia izatea" gura dute.

Etxetresnak oinarri

Duela 34 urte estreinatu zen *Numax* izeneko filmaren berrinterpretazioa egingo dute maiatzeko obran Roger Bernat Konpainiako kideek. Numax etxetresna lantegi bat zen eta 1979an,

bi urte eta erdiz greba eta mobilizazioetan murgilduta egon eta autogestio bidezko funtzionamendua izan ostean, langileek batzar bidez erabaki zuten gertzen zitzaizkien azken 600.000 pezetak Joaquim Jordak bere borroka graba zezan erabiltzeko izan zitezten.

Aretxabaletako bi saioetara Fagor Etxetresnetako langile izandakoak gonbidatu gura izan dituzte. "Harremanetan jarri ginen gure asmoa zein den ezagutzera emateko eta euren parte hartzea eskatu genien. Hala, gaur eta bihar Arkupen egingo ditugun saioetan euren esperientziak eza-gutu gura ditugu".

'El intérprete' martxoan dator Arrasatera eta sarrera gehienak salduta daude dagoeneko

Asier Etxeandiaren lanak musika, interpretazioa eta dantza batzen ditu

ZURIÑE V.D.M. | ARRASATE

"Show bat. Horrela definituko nuke *El intérprete* lana. Ez zait gauzak sailkatzea gustatzen, eta, beraz, ez nuke musikal bat denik esango. Kontzertu baten antza eduki dezake, baina ez da kontzertu bat; bakarriketa bat izan liteke, baina ez da horrela; eguneroko bat izan daiteke, nire bizitzaz egiten dudalako berba... Horregatik diot *show* bat dela". Hala eman du aditzera Asier Etxeandia aktore bizkaitarrak.

Eszenaratze indartsua dauka *El intérprete* lanak, eta martxoaren 29an Arrasateko Amaia antzokian ikusi ahal izango da, 19:30ean hasita. Sarrera gehienak saldu diren arren, oraindik ere erosteko aukera dago. Horretarako bideak antzokia irekita dagoenean bertako leihatila eta Arrasateko Udalaren webgunea dira; 15 euro ordaindu beharko dira aurrenekoaren bidez eta Internet bidez



Asier Etxeandia aktorea *El intérprete* lanean. | FACTORIA MADRE CONSTRUCTOR

eskuratuta, ostera, deskontua dute sarrerek, eta 13,65 euro ordaindu behar dira.

Ikuskizun arrakastatsua

2013an estreinatu zenetik arrakasta erdietsi du ikuskizunak eta Etxeandiak oso pozik dagoe-

la eman du aditzera: "Aurrekoan irakurri nuen Gasteizen sarrerak salgai ipini eta ordubeteen saldu zirela guztiak. Publikoarengana iritsi garela esango genuke".

Horrelako oihartzuna izateko *El intérprete*-k zein osagai duen galdetuta, hori obra ikustera

bertaratzean jakiten dela dio bizkaitarrak. "Oso formula erraza erabiltzen duen lana da, biluztasuna, egia eta musika kalitate handia. Dena nahasten da *El intérprete* lanean, eta orain arte egin dudak gauzarik zintzoena da, zalantza barik". Izan ere, Asier Etxeandia obra horretan gustuko dituen esparru guztiak batzen ditu: aktore gisa dihardu, baina musikarekiko bere pasioa ere nabari-nabaria da, dantza egiten du, *performance*-a...

Askatasunari deiadar

Krisi garaian jendeak nork bere buruarengan konfiantza galtzen duela dio Etxeandiak: "Gauzak aldatzeko dugu ahalmen horretan konfiantza, eta nik uste dut askatasunari deiadar bat dela lan hau, eta dena posible dela oihu egiten dut bertan".

El intérprete lanean Etxeandiak bere esperientzia pertsonala partekatzen du publikoarekin, artista izateko ametsa izan zuenetik lortu arteko bidea kontatuta. "Ametsak egia bilakatzen dira, eta antzokiak betetzen ari naizela da horren erakusgarri! Uste dut jendearentzako eredu izan daitekeela".

Arrasateko Hawkins Thugs taldeak Parisen joko du bihar

Z.V.D.M. | ARRASATE

Hawkins Thugs talde arrasatearrak Parisen eskainiko du kontzertua bihar, zapatua. Hain zuzen ere, gaur hasiko den Winter Oi Fest! jaialdiaren baitan joko dute.

Les Mains D'Oeuvre aretoan izango da eta Trotskids, Wunderbach, Gonna Get Yours eta Lion's Law taldeak ere izango dira oholtza gainean. Azken horiekin, gainera, behin baino gehiagotan jo izan dute Hawkins Thugs taldekoek.

Bestalde, azken sei hilabeteetan lanean ibili ondoren, laster izango da kalean arrasatearren lehenengo disko laburra. Single bat izango da, biniloan, eta *My Own Path* izena ipiniko diote; Contra Records diskoetxearekin aterako dute.

EGIN TXOTX! sagardotegietan



Oialume Bidea, 63 / Astigarraga
943 55 22 42
gurutzeta@gurutzeta.com
www.gurutzeta.com

Gurutzeta

Eskaintza

- Urtarriletik apirilaren 16ra arte irekita, astelehenetik larunbatera eguerdi eta gauetan.
- Urte osoan sagardoa botilan salgai
- Eserita jateko jangela bat dugu eta upeltegian zutik
- Astelehen, astearte eta ostegunetan 20 €ko menua (B.E.Z. barne): txorixo pintxoak, bakailao tortilla, txuleta, intxaurrek eta gazta sagar dultzearekin eta sagardoa txotxean.
- Asteazkenetan "Asteazkena kantuz" otxote taldea.



Arraga auzoa / ARAMAIO
945 44 53 85 / 685 72 15 93
iturrietasagardotegia.blogspot.com

Iturrieta

Eskaintza

- Egubakoitzetik domekara irekita. Erreserbatuz gero beste egunetan ere bai.
- 90 lagunendako lekua, eserita edo zutik.
- Bertako sagardoa ekologikoa Eusko Labelarekin.
- Sagardotegiko menua (txuletoi edo saihekiarekin)
- Giro aparta zuzeneko musikarekin.



Larre-gain sagardotegia
HERNANI
943 55 58 46 / 616 28 78 67

Larre-Gain

Eskaintza

- Janaria sagardotegiak jartzen du
- Bakailao saltsan, aurrez deituta
- Egubakoitzetan eta zapatuetan egun osoa zabalik
- Domeketan, eguerdira arte zabalik
- Astelehenetan, itxita
- "Tolare" sagardotegia



OIHARTE SAGARDOTEGIA
943 50 10 13 - 686 29 91 58
OTATZA SAGARDOTEGIA
943 80 17 57

Oiharte / Otatza

Zeraingo sagardotegietara joateko autobus zerbitzua:

- Otsailaren 21etik martxoaren 28ra bitarteko ostiral guztietan, autobus zerbitzua egongo da:
 - 19.30ean Eskoriatzan.
 - 19.45ean Aretxabaletan.
 - 20.00etan Arrasaten.
 - 20.15ean Bergaran.

Itzulera ordua: 00.15ean.

Erreserbak egiteko deitu sagardotegietara: Prezioa: 5 € joan etorria (sagardotegiko menuarekin batera ordainduko da)



Zabala z/g
ARAMAIO
945 44 50 95

Unzueta

Eskaintza

- Sagardoa txotxetik urte osoan.
- Sagardotegiko menua: 31 €
- Berezitasuna: txuleta.
- 70 lagunendako tokiak.
- Parking eta terraza.



Garagartza baserria / ADUNA
(Andoain eta Billabona artean)
943 69 07 74 / www.rzabala.com

Zabala

Eskaintza

- Urtarriletik maiatz hasiera arte zabalik.
- Egubakoitz, zapatu eta domeka eguerditan ere zabalik.
- Bertako janaria.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako Sagardo Lehiaketetan, 2004an, 2006an eta 2010ean irabazleak.
- Botilak salgai urte osoan.
- "Tolare" sagardotegia

Goi mailako bertsolaritzaz gozatzeko hainbat aukera egunotan gurean

Zortzi bertsolari Bergaran etzi eta 'Bertsotxia' egunean Eskoriatzan

A. ARANBURUZABALA | BERGARA

Otsailaren 9an, domekan, bertso saioa izango da Bergarako pilotalekuan, 18:00etan, Bergarako Libre plataformak antolatuta. Honako bertsolariak izango dira taularen gainean: Amets Arzallus, Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Igor Elortza, Unai Iturriaga, Sus-trai Colina, Jon Maia eta Aitor Sarriegi.

Sarrerak dagoeneko salgai daude, 10 eurotan, Bergarako Arrano, Pol-Pol eta Depor tabernetan eta baita Arrasateko Irati eta Aretxabaletako Urbaltz tabernetan ere.

Aspaldiko lagunak oholtzan

Saioa hasi baino ordu erdi lehenago batuko da bertsolari taldea Bergarako pilotalekuan, saioa ariketen argibideak jasota, saiorako giroa eta plazara egokitzeko. Sarritan igo dira elkarrekin oholtzara, aspaldiko lagunak dira, elkarrekin bertsotan hasitakoak gehienak. Maialen Lujanbioekin izan gara, eta hauxe dio, saioan kide izango dituen lagunak aurkezteko eskatuta: "Hurbileko bertsokideak gara. Amets Arzallus txapelduna beti bikain aritzen den bertsolaria da; Andoni Egaña, berriz, lehen-go eta gaurko bertsolari punta-kotzat dut; Igor Elortza ideia eta umore zorrotza eskain dezakeen bertsolaria da; Unai Iturriagaz ikuspegi interesgarria eta ideiatan jenioa dela esango nuke; Sus-trai Colina, ordea, edozein plazatarako garanta den bertsolari dotoretzat dut; Jon Maia bihotza eta umorea bertsotan jartzen duen pertsona moduan aurkeztuko nuke eta Aitor Sarriegi buruz bertsolari elegantea eta fina dela esango nuke".



Begarako pilotalekuan domekan izango diren bertsolariak. | BERGARAKO LIBRE PLATAFORMA

Josu Goikoetxeak jardungo du gai-jartzaile lanetan, aspaldiko laguna eta lankidea: "Asko preziatzen dut Josu lagun eta gai-jartzaile edo sortzaile moduan. Saio ona egiteko garantia da Josurekin dugun konplizitatea eta harremana. Konplizitatea da, nire ustez, saio ona ateratzeko faktore edo osagai garrantzitsuetako bat. Badirudi plater goxo bat ateratzeko osagai guztiak ditugula", dio Lujanbiok.

Libre asteburuaren barruan

Gai-jartzailea aurrez ondo eza-gutzea ez da nahiko pista, Lujanbioen hitzetan, bertsotarako proposatuko gaiak aurrez asmatzeko: "Domekako saioaren motiboa jakina eta zehatza da, eta tematika horrek presentzia izango duela seguru; baina ez da gai bakarria izango, eta, Josu ezagututa, ez da samurra aurrez asmatzea nondik nora eramango gaituen domekan".

ESANAK

"Konplizitatea bertso saio ona egiteko osagai indartsua izaten da"

MAIALEN LUJANBIO | BERTSOLARIA

Finalari gainbegiratu

Begarakoan, Txapelketa Nagusiko finalista gehienak daudela aitzakia hartuta, atzera begiratu eta finalaren gaineko hausnarketa egiteko eskatu diogu txapel-dunordeari: "Txapela merezitako buruan dago. Sentimendu asko eta nahasien eguna izan zen: tentsio eta urduritasun handikoa, lana egindakoaren sentsazioduna, baina baita egun pozgarria eta bertsokideekin talde-sentimendu handikoa ere. Atzera begiratu, nahiko gauza zuzenduko nituzke baina alperrik da orain, etxeko besaulkitik, egindakoak zuzentzea, hango egoeran asmatu behar da. Domekako saioa modukoak dira gure jardun arruntaren oinarria eta gure bertsogintzaren benetako plaza. Txapelketa da ezohikoa dena".

Erreferentziako emakumea

Garaiak aldatuaz doazen arren, ohikoa du Lujanbiok oholtzaren emakume bakarria izatea: "Ez nuke inoren eredu izan nahi, are gutxiago emakumeena bakarrik eta estimatua izatekotan, nire bertsokeragatik eta bertso jardunagatik izatea nahiko nuke, eta horrela den ustea dut", dio Maialen Lujanbiok.

ASIER IRIZAR | HUHEZIKO IRAKASLEA ETA ANTOLATZAILEA

"Bertsolariek kantatu beharko diete entzuleek txioen bidez bidalitako gaiei"


Huheziko Euskara Batzordeak, Eskoriatzako Udalaren laguntzarekin, Twitter bidezko *Bertsotxia* antolatu du egunerako (18:00), campuseko klastroan. Sarrera, doakoa.

Amets Arzallus eta Miren Amurizarekin saio bitxia egingo duzue.

Batzordean dagoen ikasle batek ekarri zuen ideia, haren herrian, Lekeitio, horrelako bat egin zutela-eta. Bertsolari horiei esan zitzaizkien batzordean badirelako horien lagunak; Miren Amuriza, gainera, Huheziko ikasle ohia da.

Zer-nolako saioa izango da?

Hainbat atal izango ditu, baina ezaugarri nagusia da gaiak ikusleen artean aurretik Twitterren irekiko



ASIER IRIZAR

den kontu batetik aterako direla. Bertsolariek eta entzuleek elkarrekin egingo duten saioa izango da, beraz. Entzuleek bidalitako txioak eta proposatutako gaiak aretoan jarriko den pantaila handian bilduko dira eta gai horien gainean kantatu beharko dute bertsolariek gero. Fakultateko bi ikasle gidatuko dute saioa. Ordu-bete inguruko saioa izango da

Nola har dezakegu parte?

#bertsio traola erabili beharko duzue gaiak proposatzeko. Asteburuan martxan jarriko dugu; beraz, eguna aurretik ere erabilgarri izango da.

Beste ekitaldirik antolatzeo asmorik baduzue?

Hilero ekintza bat egiteko asmoa dugu: martxoan, Joseba Tapia etorriko da; apirilean poesia eta musika emanaldia izango dugu Keu Agirretxe eta Mikel Etxabururen eskutik eta maiatzean Artedrama konpainia ekartzeko asmoa dugu.

Bertso-afaria eta bazkaria

Aipatutako bertso hitzorduez gainera, parte hartzeko izen-ematea dagoeneko itxita duten arren, badira beste bi egunotan gurean: Gesalibarren eta Gatzagan.

Gesalibarko Jentil-Ola elkartearen Sebastian Lizasorekin eta Aitor Mendiluzerekin bertso-afaria izango da gaur eta otsailaren 15ean, Gatzagako Korrika batzordearen eskutik, bertso-bazkaria Amets Arzallusekin eta Andoni Egañarekin, Soran etxean.

'Erdaldun berrien kluba' antzerkia erakusteko prest

Euskararen erabileraren gaineko gogoeta lantzen duen AED elkartearen bigarren antzezlan da

A. A. | ARRASATE

AED euskara elkarteak estreinatuko du antzerkia erakusteko prest duen bigarren antzezlan: *Erdaldun berrien kluba*. Otsailaren 14an, egubakoitza, erakutsiko du lehenengoz Arrasateko gaztetxean, 22:30ean.

Irantzu, erdaldun berria

Idoia Etxeberria oñatiarrak idatzitako gidoia da Olatz Pagaldai Eskoriatzako aktoreak oholtzara eramango duena.

Irantzu da istorioaren protagonista; euskaraz pentsatzen, euskaraz sentitzen eta, ahal duen guztietan, euskaraz diharduen neska eskoriatzarra. Horrek hamaika arazo sortuko dizkio egunerokotasunean; bada, bizipen horien kontaketa oinarritzen da antzezlanaren hari nagusia: "Euskaraz bizi garenok erdaldun berriak gara, gazteleraz hitz egiterakoan esan beharrekoak pentsatu eta askotan hitzak faltan ditugu-eta", azaldu du aktoreak.



Olatz Pagaldai, Maite Agirre eta Idoia Etxeberria, abenduan egindako aurkezpenean. | GOIENA

'Buah Txabal'-en ondorengoa

Aurreko lanean moduan, oraingoak ere publikoarengan euskararen erabileraren inguruko gogoeta bultzatzea du helburu

nagusi, AEDko Maite Agirreren esanetan, betiere umore klabearen landuta, eta gaineratu du euskaldunontzat antzezlan terapeutikoa izan daitekeela.

Emakumearen ikuspegitik landutakoa da estreinatzearen duten lana, hizkuntza-transmisioaren eta genero rolen inguruko gogoe-tak ere eraginez horrela.

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Aramai. Aramaien etxebizitza salgai. Toki argitsua. 105 metro koadrokoa: hiru logela, egongela, sukalde eta bi komun. Sukaldea eta komunak guztiz ekipatuta ditu. 18 metro koadroko garajea etxe azpian. Erabilgarriak diren 15 metro koadroko ganbara. Interesa izanez gero deitu zerbaki hauetara: 65272 83 60 edo 945 44 53 52

Arrasate. 60 metro koadroko etxebizitza salgai Musakalako Sailuente plazan. Hiru logela, bainugela, sukalde hornitua, egongela, despentsa eta trasteleku. Antolamendu ezin hobe, dena kanpoaldera begira eta oso argitsua. Egoera oso onean. Interesa izanez gero deitu zerbaki hauetara: 63070 81 23 edo 646 26 34 04

Bergara. Erdigunean 104 metro koadroko etxebizitza salgai. Lau logela, bainugela, egongela-jangela handia eta sukalde. Bizitzera sartzeko moduan. Dena kanpoaldera begira. Igoailu eta berokuntzarekin. Ikusi eta gero, prezioa zeuk ipini. 626 65 99 94

Boi-Taüll (Lleida). Apartamentua salgai. Aukera oso ona. Etxe berria da eta estreinatze dago. Jantzi. Eskiatzeko pistatilik oso gertu eta Aigüestortes parke naturaleran bertan. 625 70 84 20

Oñati. Pisu berria salgai Kurtebide kalean. 90 metro koadrokoa. Trasteleku eta bi garaje-erako aukerarekin. Interesa izanez gero deitu zerbaki hauetara: 651 70 92 57

Oñati. Roke Azkunen 72 metroko etxebizitza salgai. Lau logela, sukalde, egongela, bainugela. Dena kanpoaldera begira, balkoi batekin. Igoailua. Garajea aukeran. 656 00 84 92

102. EROSI

Bi pisuren bila Arrasaten. Eraikin berean dauden bi pisu erosiko nituzke erdialdean. Prezio ekonomikoan. Interesa izanez gero deitu zerbaki honetara: 675 70 24 17

103. ERRENTAN EMAN

Aretxabaleta. Etxebizitza ematen da errentan Araba Ibilbidean. Hiru logela, egongela eta komun. Jantzi. 650 06 00 57 edo 650 00 86 58

Arrasate. Etxebizitza ematen da errentan Erguinen. Logelak ere aloka daitezke, sukalde erabiltzeko aukerarekin. Deitu telefono zerbaki honetara: 650 02 79 29

Baserritxeko Eskoriatzako Mazmela auzoan. 165 metro koadro. Guztiz berrituta. Sarrera, hiru logela, sukalde hornitua, egongela, despentsa, bainugela guztiz jantzi, trasteleku, kotxearentzat aterpea, baratza eta lursail gehiago erabiltzeko aukera. Kontakua: idiaz@ikerlan.es edo 680 33 40 76 edo 638 86 82 50

Bergara. Etxebizitza ematen da errentan Bolun. Hiru logela eta bi komuneko. Guztiz jantzi. Berritua eta bizitzera sartzeko moduan. Berokuntzarekin. Ana. Deitu telefono zerbaki honetara: 629 03 71 35

Bergara. Gela bakarreko etxebizitza jantzi errentan ematen da Madura kalean. Berehalak bizitzera sartzeko moduan. Berokuntza du. Prezio interesgarria. Bikote edo pertsona batentzat aproposa. Deitu telefono zerbaki honetara: 667 59 26 81

Bergara. Simon Arrietan 80 metro koadroko etxebizitza ematen da errentan. Bi pertsonarentako edo bikote batentako egokia. 943 76 48 54 edo 680 33 36 36

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Beheko solairuan edota igogailua duen etxebizitza hartuko genuke errentan. Prezio ekonomikoan. 617 98 88 76

Arrasate. Hiru logelako etxebizitza hartuko nuke errentan Arrasate erdialdean. Deitu telefono zerbaki honetara: 661 97 14 76

Arrasate. Logela bateko edo bi logelako etxebizitza hartuko nuke errentan hilabete baterako, denbora gehiago luzatzeko aukerarekin. Bidali mezua: laguntzen@gmail.com

Baseria. Debagoienan base-ri edo lursaila duen etxe bat hartuko genuke errentan. Bertakoak gara eta etxea eta lurak zainduko genituzke alokairu merke batean. Bikote arduratsua gara eta lanean gaude. 400 euroko alokairua ordainduko genuke. 675 61 09 77 edo 606 74 42 37

Bergara. Gutxienez bi gelako etxebizitza hartuko nuke errentan. Mila esker. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 602 03 33 56

Bergara. 2-3 logelako etxebizitza errentan hartu nahi dut. 631 36 17 62

Bergara. Bergaran etxebizitza bat errentan hartuko nuke pertsona batentako. Berdin zait gela bat edo bikoa bada. Sukalde eta egongela batera baditu, hobe. Deitu telefono zerbaki honetara: 661 07 10 99

Bergara. Hiru pertsonaz osatutako familia batek etxe bat hartuko luke errentan Bergaran. Harremanetan jartzeko deitu telefono zerbaki honetara: 630 99 11 85

Bergara. Neska euskalduna etxebizitza bila, errentan. Niretzako bakarrik da. Etxe txikia eta prezio egokian. Eskerrik asko. Deitu telefono zerbaki honetara: 680 35 26 00

Debagoiena. 2-3 logelako etxea alokatuko nuke. 500 euro inguru ordaintzeko prest nago. Deitu telefono zerbaki honetara: 669 30 16 89

Pisu bila Oñatin. Etxebizitza hartuko nuke errentan, 3 logeladuna. Eskerrik asko. Telefonoa: 652 70 35 29

105. ETXEA OSATU

Arrasate. Pertsona bat behar dut etxebizitza osatzeko San Josepen. Garbia eta txukuna izatea beharrezkoa da. Deitu telefono zerbaki honetara: 628 85 42 06

Arrasate. Uribe auzoan. Bi pertsona gaude eta hirugarren baten bila gabilta. Pisu handia, berokuntza, bi komunekin eta etxetresna guztiak. Deitu telefono zerbaki honetara: 657 72 51 65

Debagoiena. Logela behar dut errentan, kontratuarekin eta bertan errola emateko aukerarekin. Deitu telefono zerbaki honetara: 671 70 30 79

Logela ematen da errentan. Pertsona bat behar dut etxebizitza osatzeko. Garbia eta txukuna izatea beharrezkoa da. Espazio komunak erabiltzeko aukerarekin. 634 81 94 79

Oñati. Bi logela ematen dira errentan duplex berri bat osatzeko. Plazatik gertu. Wifi konezioarekin. 656 74 29 49

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Eguaztente 16:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu. Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera utzerik ere. GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA: PREZIO BEREZIA GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu.

Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.

- Profesionalen moduluak.

2. GARAJEAK

201. SALDU

Arrasate. Garaje itxia salgai Uarkapen. Handia da eta autoaz gain motorra edota bestelakoak gordetzeko txokoa dauka. 615 73 98 30 edo 943 24 53 57

203. ERRENTAN EMAN

Bergara. Bi plaza garaje Bolun eta plaza bakarreko garajea Ibargarain. Itxiak. 665 73 98 32

3. LOKALAK

304. ERRENTAN HARTU

Eskoriatza edo Aretxabaleta. 70 metro koadroko lokal bat bilatzen ari gara, tximiniaduna, tailer bat montatzeko. Kontakua: lajaboneriadelaalmdra@gmail.com. 690 12 48 51 edo 945 10 09 54

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Bergara. Emakume bat behar da bost hilabeteko umea orduka zaintzeko. Harremanetarako deitu telefono zerbaki honetara: 606 01 18 32

402. ESKAERAK

Arrasate edo Bergara. Neska arduratsua egunka zein orduka lan egiteko gertu etxeko lanak egiten zein taberna, elkar-tea, atari eta abarren garbitasunean. 625 86 99 51

Arrasate. Emakume euskalduna goizetan plantxa eta etxeko lanak egiteko gertu. 699 54 17 27

Arrasate. Emakumea gertu umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko, nagusiak zaintzeko zein ospitalean gauak egiteko. 943 25 05 72 edo 658 70 56 94

Arrasate. Emakumea nagusiak zaintzeko gertu. 672 98 20 91

Arrasate. Nagusiak zaintzen lan egingo nuke, etxean bertan bizi izaten edo orduka. Garbitasun lanak ere egingo nituzke eta baita umeak zaindu ere. Astelehenetik ostiralera. 682 31 97 37 edo 603 22 53 66

Arrasate. Neska euskalduna gertu goizetan umeak zein nagusiak zaintzeko. 686 80 15 38

Bergara. Adin ertaineko emakumea, informea dituen, goizetan umeak eta nagusiak zaintzeko. Interesa izanez gero deitu telefono zerbaki honetara: 610 34 97 88

lbargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA:

- Masterreka 73 m², 2 logela. Oso ondo. Igogailua.
- San Pedro 70 m², 4 logela. Erabat berritua. Garajea aukeran. 138.000€.
- AUKERA**
- Boly 66 m², 2 logela. Trasteleku. Garajea aukeran. Oso ondo. 150.250
- Bidekuruzeta 65 m², 2 logela. Trasteleku. 117.000 PREZIO JEITSIERAREKIN.
- Zubiaurre 56 m², 2 logela. Igogailua, erabat berritua. 135.000 €.
- Matxiategi 65 m², 3 logela. Berogailua, igogailua eta trasteleku. 150.000 €.
- Koldo Eleizalde 74 m², 3 logela. Trasteleku. 160.000. Aukera ona.
- Zabaloategi 80 m², 3 logela. Igogailua. 154.760 .
- Azkarruntz 75 m², 3 logela. Berritua. Oso ondo. 144.243 €.
- Zubietta 60 m², 3 logela. 126.213 €. Berritua.
- Zubietta 70 m², 2 logela. 150.253 €. Berritua.
- Ibarra 65 m², 3 logela. Berritua. 114.192 €.
- Zubiaurre 82 m². Igogailu eta berogailuarekin. Egoera onean. 132.223 €.
- Zabaloategi 54 m², 2 logela. 96.000 €.
- Matxiategi 60 m², 2 logela. Igogailua. Erabat berritua.
- Fraizkozuri 78 m², 3 logela. Balkoia, trasteleku eta garajearekin. 205.000 €.
- Martoko 140 m², 4 logela. Berritua. Oso ondo. 225.000 €.
- Koldo Eleizalde 78 m², 3 logela. Berritua. AUKERA BIKAINA. 200.000 €.
- San Antonio 70 m², 2 logela, igogailua. Garajea. Berritua. 157.000 €.
- San Lorenzo, 87 m², duplex, 3 logela. Berritua. Oso ondo. 159.000€. PREZIO JAITSIERA
- Ibargarai, 60 m², 2 logela. Berritua. Oso ondo. 229.000 €.
- Matxiategi, 115 m², 3 logela, trasteleku eta balkoia. Berritua. Oso ondo.

ANTZUOLA:

